

IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK MASTERRA MASTER EN ESTUDIOS FEMINISTAS Y DE GÉNERO

Curso académico 2022 -2023 Ikasturtea

Master Amaierako Lana / Trabajo Fin de Máster

**Emakume kirolarien errepresentazioa eta irudia idatzizko
prentsan**

**Traineru estropaden kasua *Berria* eta *El Diario Vasco* egunkarietan
(2018-2022)**

Egilea / Autor/a:

Oihane Puertas Ramirez

Tutorea / Tutor/a:

Jone Miren Hernandez Garcia

Septiembre 2023 / 2023 ko Iraila

Laburpena

Ikerketa honen bitartez, emakume kirolariak hedabideetan nola irudikatzen diren aztertu nahi da. Horretarako, 2018tik 2022ra bitartean *Berría* eta *El Diario Vasco* hedabideek emakumeen traineru estropadei eman dioten espazioa eta trataera ikertuko da, edukien analisiaren bitartez. Horrez gain, bi hedabideek traineru estropadetan egiten duten trataeraren arteko alde-raketa egin da. Eta, azkenik, emakume arraunlariei ematen zaien trataera gizon arraunlariei ematen zaienarekin konparatu.

Hitz gakoak: Emakumeak, kirola, emakume kirolari, traineru estropada, idatzizko prentsa, hedabideak.

Resumen

Este estudio se propone examinar la manera en que las mujeres deportistas son representadas en los medios de comunicación. Para lograr este objetivo, se llevará a cabo un análisis de los contenidos relacionados con las regatas de traineras femeninas en los periódicos *Berría* y *El Diario Vasco*, abarcando el período de 2018 a 2022. Además, se llevará a cabo una comparación de cómo ambos medios abordan las regatas de traineras, así como una comparación del tratamiento otorgado a las remeras en comparación con los remeros.

Palabras clave: Mujeres, deporte, mujeres deportistas, regata de traineras, prensa, medios de comunicación.

Abstract

The aim of this study is to analyze the representation of female athletes in the media. To accomplish this, the contents related to women's rowing regattas in the newspapers *Berría* and *El Diario Vasco* will be analyzed, covering the period from 2018 to 2022.. A comparison will also be made between how both media outlets approach rowing regattas, and, lastly, a comparison will be made between the treatment of female rowers and male rowers.

Keywords: Women, sports, female athletes, rowing regatta, media.

4.3. Emakumeen eta gizonen trataeraren alderaketa	100
5. Ondorioak	113
6. Balorazio pertsonala	119
7. Bibliografia	121
8. Eranskinak	126

Irudien aurkibidea

1. irudia	52
2. irudia	53
3. irudia	63
4. irudia	66
5. irudia	68
6. irudia	69
7. irudia	71
8. irudia	75
9. irudia	77
10. irudia	78
11. irudia	78
12. irudia	105

Taulen aurkibidea

1. taula	49
2. taula	54
3. taula	56
4. taula	58
5. taula	59
6. taula	60
7. taula	61
8. taula	64
9. taula	67
10. taula	70
11. taula	72
12. taula	73
13. taula	76
14. taula	80
15. taula	81
16. taula	83
17. taula	84
18. taula	85
19. taula	87
20. taula	89
21. taula	91
22. taula	93
23. taula	96
24. taula	98
25. taula	101
26. taula	102
27. taula	104
28. taula	106
29. taula	107
30. taula	109
31. taula	110
32. taula	111
33. taula	112

1. Sarrera

Ikerketa hau emakume kirolariak hedabideetan nola irudikatzen diren aztertzeko jakin-minetik abiatu da. Hori da, hain zuzen, lan honen ikerketa objektua: emakume kirolariek egunkarietan duten errepresentazioa eta trataera. Horiek horrela, ikerlan hau interes eta behar bikoitz batetik sortu da, lehenik, gizartera begirako ardura batetik, eta, bigarrenik, barnera begirako ego-nezin batetik.

Jakina da emakumeok gero eta presentzia handiagoa dugula gizartean, bizitza publikoan, ardura postuetan, eta horrekin batera, nola ez, kirol munduan; hori da, behintzat, imajinario kolektiboan hedatu den ideia. Baina kirolean hartutako tokiak izan al du eraginik hedabideetan? Gehiagotan agertzen dira emakume kirolariak, bai, baina parekidea al da espazio banaketa? Modu berean tratatzen al dira emakume eta gizon kirolariak? Funtsean, nolakoa da emakume kirolariek hedabideetan duten presentzia?

Kirolak, hedabideek eta gizarteak, gainera, badute lotura estua, gure inguruan behintzat. AIMC Hedabideak Ikertzeko Elkarteak egindako EGM Hedabideen Azterketa Orokorren arabera, *Marca* kirol egunkaria da, gaur egun, Espainiako Estatuan gehien kontsumitzen den hedabidea (Hedabideak Ikertzeko Elkartea [AIMC], 2023). Horrek argi adierazten du kirolak gure gizartean duen garrantzia.

Hedabideek, gainera, berebiziko rola jokatzen dute norbanakoengan, gizartean gertatzen dena islatzen duteko, eta horietan kontsumitutakoa normalizatu, barnerratu eta erreproduzitzen dugulako. Hala, emakume kirolariak ez badira egunkarietan agertzen, existitzen ez direla dirudi, eta kirolari gazteenek ez dute erreferenterik izango. Horrez gain, hedabideek, herritarren ideia, iritzi, ohitura eta jokabideak moldatzeko edo aldatzeko ahalmena dute. Horregatik guztiagatik, garrantzitsua da hedabideetan errepresentazio egokia izatea.

Lan honekiko interesak, bestalde, badu alor pertsonaletik. Izan ere, kirola eta idatzizko prentsa nire bizitzaren zati izan dira, eta zenbaitetan gurutzatu ere egin dira. Txikitatik egin dut kirola. Edo egin ditut kirolak, pluralean. Tenisa, atletismoa, igeriketa, futbola, gimnasia erritmikoa, karatea, hipika, eskubaloia, errugbia... Etxean jaso dut kirolarekiko zaletasuna. Ama kirol psikologoa, eskubaloj jokalaria eta eskubaloj talde ezagunenetako bateko presidentea. Aita errugbi jokalaria internazionala. Anaia ere errugbi jokalaria.

Amak beti kontatzen dit hiru urte nituenean Realeko partida bat ikustera joan ginela Anoetara. Aitaren sorbalda gainean nengoen, eta realzale guztiak kantatzen ari ziren gure inguruan. Ni ere bai. Halako batean, aitaren sorbalda gainetik amari beherantz begiratuta zera galdetu nion: “Ama, zergatik esaten dute ‘aurrera mutilak’ eta ez ‘aurrera neskak’?”. Gerora aldatu dute letra, baina garai horretan aipatu ere ez zen egiten. Nik banekien Realean emakumeek jokatzen zutela. Garai horretan konturatu omen nintzen kirolean bazeudela gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak.

Horrelako beste oroitzapen bat ere badut, hau ere amarekin izan zen. Bederatzi bat urte izango nituen, ez gehiago, eta amari galdetu nion ea zergatik emakumeen taldeetan gizonak ziren entrenatzaile, eta zergatik ziren epaileak gizonak. Alderantzizkoa ere galdetu nion: “Emakumeen taldeetako entrenatzaileak gizonak badira, zergatik ez dira emakumeak gizonen taldeetakoak?” Galdera ona zela esan zidan, eta berak bazuela lagun bat egunkari batean lan egiten zuena. Idazteko berari, emateko nire iritzia. Idatzitakoa bidali genion, eta erantzun zidan oso interesgarria iruditu zitzaiola, jarraitzeko idazten.

Eta idazten jarraitu nuen, Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi eta *Berría*-n kazetari gisa lanean bukatu nuen arte. Bitartean jarraitu nuen kirola egiten. Lehenengo eskubaloiak maite-mindu ninduen, eta ondoren errugbiak. Eskubaloian banituen erreferenteak, emakumeak denak. Eli Pinedo eta Marta Mangué miresten nituen. Astebururo ikusten nituen Bera Beraren partidak, gehienetan, gureak jokatu ondoren. Errugbian ez nituen izan hainbeste erreferente, eta nituen gehienak kanpokoak ziren, Zeelanda Berrikoak, batik bat. Hedabideetan erreprezentazio gutxi zuen errugbiak, eta gutxiago oraindik emakumeenak. Ia agertu ere ez zen egiten. Nik ere sentitu nuen hori: errugbiarekin lotuta prentsan agertu naizen gutxitan, beti gizonena aipatu ondoren azaldu izan naiz.

Berría-n lanean hasi nintzenean, tarteka idazten nituen kirolari buruz interesatzen zitzaizkidan kontuak. Ez nengoen kirol sailean, baina beti nuen begi bat bertan. Eta kirolari buruzko albisteak bilatzen nituenean, gehienetan gizonak agertzen ziren; emakumeen kirola bilatzen ari nintzela zehaztu behar nion ordenagailuari. Nik horiek kontatu nahi nituen, eta euskaraz kontatu nahi nituen.

Beranduago, Olinpiar Jokoak segitzea egokitu zitzaidan. Horretarako ere beste komunikabide batzuk argitaratzen zutena irakurtzen nuen: begi bistakoa zen gizonen emakumeen aldean okupatzen zuten espazioa. Begi bistakoa ere gizonen begiradatik idazten zituztela emakumei lotutakoak: “*La admiradora de Nadal gana...*” –Nadalen miresleak... irabazi du–, “*La ex de Broncano logra...*” –Broncanoren neska laguna ohiak irabazi du...–. Horrek egonezina sortzen zidan, amorrua, nazka. Eta kazetaritza eta kirolaren arteko lotura horretatik, baita injustizia sentsazio horretatik ere piztu zitzaidan egunkariak eta emakume kirolarien trataera ikerzeko nahia. Nolabait, gauzak aldatzeko grina.

Interes eta behar bikoitz batetik sortutako lan hau hobeto ulertzeko, jarraian, ikerketa honen helburuak azalduko dira, eta, ondoren, ikerlan hau aurrera eramateko erabili den diseinu metodologikoaren berri emango da, erabilitako laginaren eta tresnen azalpena emanez.

Gero, gaiari buruzko aurrekari teorikoei erreparatuko zaie, aurrerago azalduko den analisiaren aspektu guztiak ulertzeko xedez. Horrela, atal horretan genero sistema; emakumeak eta kirola; eta emakumeak, kirola eta prentsa landuko dira. Horren ondoren, egindako ikerketan lortutako emaitzak islatuko dira, hiru atal nagusitan sailkatuta: presentziari lotutako emaitzak, trataerari lotutako emaitzak, eta gizonen eta emakumeen trataeraren konparaketaren emaitzak. Azkenik, analisisia egin ondoren ateratako ondorioak azaleratuko dira, ikerketa honen helburuei erantzuna emateko asmoz.

1.1. Helburuak

Lan honen helburu nagusia da *Berría* eta *El Diario Vasco* hedabideek emakumeen arraunari ematen dioten espazioa eta trataera ikertzea; hots, zein diskurtso, eredu edota iruditeri zabalitzen den, eta, horrekin batera, 2018tik 2022ra bitartean bilakaerarik izan den ikustea, bertiere edukien azterketaren bitartez.

Horrez gain, *Berría*-k eta *El Diario Vasco*-k emakumeen traineru estropadetan egiten duten trataeraren arteko alderaketa egin nahi da, 2018. urtetik 2022. urtera izandako bilakaeran sakonduz.

Azkenik, asmoa da emakume arraunlariei ematen zaien trataera gizon arraunlariei ematen zaienarekin konparatzea, lehenengo, egunkari bakoitzaren datuei erreparatuz, eta, gero, bi egunkarien arteko alderaketa eginez.

Guzti horrekin ikusi nahi da nola agertzen diren emakume kirolariak errepresentatuta gure inguruko hedabideetan, eta ea ematen zaien espazioa eta trataera egunkari bakoitzaren irizpideen arabera den edo orokorrean egunkariak patroi berdinak jarraitzen dituzten. Egunkari bakoitzak gai bakoitzean izan duen bilakaera zein den aztertu nahi denez, egunkari bakoitzak ze joera duen ikertuko da.

2. Diseinu metodologikoa

Ikerketa galderei erantzuna emateko, eta, beraz, ezagutzeko egunkariak 2018tik 2022ra bitartean emakumeen traineru estropadei emandako espazioa eta trataera, eta horren bilakaera, edukien analisia erabili da. Jaime Andréu Abela ikerlariak azaltzen duenez (2002:2), teknika horren bitartez hitzezko adierazpenak aztertzen dira; testuak, funtsean. Eta testu horiek idatzizkoak izan daitezke, grabatutakoak, bideoz filmatutakoak, irudiak... Edukiaren analisia aplikatzeko, oinarrian, testuak irakurri egin behar dira, betiere “modu sistematiko, objektibo, erreplikagarri eta baliozkoan”¹.

Kasu honetan, aipatutako bi egunkarietan emakumeen traineru estropadei buruz argitaratutako edukien datuak atera dira, ematen zaien espazioa nolakoa den ikertzeko, eta, horrekin batera, testuek eta horietan agertzen diren argazkiek emakume arraunlariei buruz transmititzen duten irudia zein izan den ezagutzeko.

Ikerketa hau, beraz, *ex post facto* ikerketa bat da, gertaeren ondoren egindako azterketa bat delako (RAE, d.g.). Horiek horrela, Rocio Cancela Gordillo, Noelia Cea Mayo, Guido Galindo Lara, Sara Valilla Gigante (2010:3) ikerlariak azaltzen dute mota horretako ikerketetan lehenengo gertaera jazotzen dela, eta, ondoren, horren kausa eta ondorio posibleak aztertzen direla.

Edukien analisia aurrera eramateko, azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartu dira lan honetan. Izan ere, metodologia mistoak ikerketa kuantitatiboa eta kualitatiboa bildu, aztertu

¹ Lan honetan ageri diren aipu guztiak euskaraz daude, baita jatorrian beste hizkuntza batzuetan argitaratu direnak ere. Itzulpen guztiak nik egindakoak dira.

eta integratzen ditu. Horrez gain, mistoa izateak ahalbidetzen du aldi berean galdera esplikatzaileak eta baieztatzaileak erantzutea, datu kuantitatiboan aztertuz, eta, jarraian, “behatutako efektuaren atzean dauden arrazoiak esploratuz” (Sainz de Baranda, 2013:40). Horrela, bi ikuspegiak konbinatuta, bata bestearen aurkikuntzak egiaztatzeke balio dezake, bata bestearen abiapuntu gisa erabil daiteke, edota galdera beraren alderdi desberdinak aztertzen lagundu dezake (Sainz de Baranda, 2013:39).

Esan bezala, beraz, kasu honetan metodologia mistoa erabili da, batetik datuak kuantitatiboki bildu direlako, datuen deskribapena egin delako, eta horren gainean irakurketa bat egin delako, azalpenei sakontasun bat emateko asmoz.

2.1 Lagina

Aipatu den moduan, ikerketa honetan emakume kirolariei ematen zaien espazioa eta trataera ikertu nahi izan da, eta, horretarako, traineru estropadak aztertzea erabaki da. Izan ere, Euskal Herrian, eta, bereziki, kostaldeko herri eta hirietan pisu eta oihartzun handia duen herri kirola da. Honetaz gain, esan daiteke kirol praktika honek zenbait berezitasun biltzen dituela. Alde batetik, traineru estropaden liga bi hilabetekoa izaten da², eta, beraz, urte osoan zehar hedabideetan kirol horren inguruan ia ez da ezer argitaratzen. Hala ere, liga hasten denetik bukatzen den arte ia egunero egiten zaio jarraipena hedabideetan. Bi hilabete horietan, beraz, urte guztian zehar eman ez zaion arreta eta aitortza ematen zaio. Beste alde batetik, Kontxako Bandera da traineru estropadetako txapelketarik esanguratsuena; talde guztietan garrantzi handiena ematen zaiona, eta, zalantzarik gabe, jarraitzaile gehien mugitzen dituen ekitaldia.

Emakumeen traineru estropadei eskaintzen zaien espazioa eta trataera ikertzeko *Berría* eta *El Diario Vasco* egunkariak aukeratu dira. Izan ere, ideologia desberdineko bi egunkari jeneralista aztertu nahi izan dira, traineru estropadekin nolabaiteko lotura dutenak. Ideologia desberdina izateak ahalbidetzen du transmititzen den irudiari buruzko lagin edo espektro zabalgago bat izatea. Ildo horretan, *Berría* egunkaria ezkertiarra eta aurrerakoia da, eta bere burua

² Euskotren Liga –emakumezkoen traineru estropaden liga gorena–, uztailean hasten da eta abuztura arte irauten du. Jaitsiera kanporaketak eta Kontxako Bandera irailean jokatzen dira. 2022an, esaterako, uztailaren 2an hasi zen, Bilbon, eta abuztuaren 21ean amaitu zen, Zarautzen (Euskotren Liga, d.g.a).

feminista gisa identifikatzen du (*Berría*, d.g.a). *El Diario Vasco*-ren ildo editoriala, berriz, zentro-eskuinekoa da, eta oro har, egunkariaren ideologia politikoa foralista, konstituzionalista, katolizista eta monarkista da (Diaz Noci, 2012:163; hiru.eus, d.g.).

Horrez gain, *Berría* egunkari euskaltzale nazionala da, Euskal Herri osoari –zazpi probintziei– erreferentzia egiten diona, eta euskara hutsean argitaratzen dena; horrela zabaltzen den egunkari bakarra izanik. *El Diario Vasco*-k, aldiz, Gipuzkoari erreparatzen dio, eta probintzia horretako egunkaririk irakurriena da (El Diario Vasco, 2023ko apirilak 19); egunkari hori %90ean gaztelaniaz argitaratzen da, eta %10ean euskaraz. *El Diario Vasco*-k kiroletako sail zabala du, *Berría*-k baino zabalagoa, baina biek ematen diote arraunari balio handia. Ligak iraun bitartean, biek argitaratzen dituzte ia egunero traineru estropadei buruzko albisteak. Kontxako Bandera jokatzen denean, gainera, biek argitaratzen dute egunkariarekin batera eskusiboki txapelketa horri lotutako gehigarri bat, albiste informatiboekin, elkarrizketekin eta erreportajeekin.

Horiek horrela, 2018, 2020 eta 2022 urteetan traineru estropaden Euskotren Liga hasi eta Kontxako Bandera bukatu arte –bi hilabete eta erdi, gutxi gorabehera; uztail hasieratik iraileko bigarren asteburura arte– *El Diario Vasco* eta *Berría* egunkarietan argitaratu diren emakumeen traineru estropadei buruzko albisteak ikertu dira. 2018, 2020 eta 2022 urteak aukeratu dira egunkarietako 2018tik 2022ra bitartean izan duten bilakaera ikertzea zelako helburuetako bat, eta urteak tarteka hautatzeak ematen du horretarako aukera. 2018a aukeratu da abiapuntu gisa urte horretan hasi zelako emakumeen traineru estropadetako liga gaur egun ezagutzen dugun bezala. Izan ere, 2018an sortu zen ETE Liga –Emakumeen Traineru Elkarteak sortutako liga–, eta, horrekin batera, emakumeen ligaren antolaketa gizonen antolaketa-rekin berdindu zen.

Ikerlana egiteko, paperezko egunkarien PDF bertsioak kontsultatu dira Interneten, *berria.eus* eta *diariovasco.com* atarietan, egunkari bakoitzari dagozkion harpidetzak erabiliz. *El Diario Vasco* egunkarietako 2018ko artxiboa, baina, ez zegoen eskuragarri Interneten, eta, hori analizatzeko, Donostiako Udal Liburutegiko artxiboa erabili da.

Horrela, 224 egun ikertu dira, eta bi egunkari aztertu direnez, guztira 413 egunkari berrikusi dira –*Berría*-k astelehenetan ez duelako egunkaririk argitaratzen–. Ikerketa hau egiteko, traineru estropadei buruzko albisteak bakarrik hartu dira kontuan, kirol sailetan agertu direnak; beraz, datuak kirol horren berrien arabera dira. Hala, orotara, traineru estropadei buruzko

952 berri argitaratu dira, eta horietatik 449tan (%47,16) emakumeak agertzen ziren protagonista gisa.

Aztertu nahi zen atalaren arabera, irizpide desberdinak aplikatu dira. Hala, emakumeen traineru estropadei ematen zaien protagonismoa ikertzeko, emakumeak protagonista diren albiste guztiak hautatu dira. Tratararako, ordea, analisiak³ alde batera utzi dira, *Berria* egunkarian ez dituztelako kazetariak idazten, kirolariak baizik. Horrela, emakumeen eta gizonen tratararen arteko desberdintasunak aztertzeko, albiste mistoak erabili dira; gizonak eta emakumeak protagonista konpartitu diren berriak, hain zuzen. Eta, azkenik, gizonari ematen zaien espazioaren konparaketa egiteko, estropada baten ondoren argitaratutako albisteak hautatu dira, betiere gizonak eta emakumeak lehenengo postuan geratu badira.

2.2. Tresnak

Ikerketa aurrera eramateko erabili diren tresnak Google-en kalkulu orriak (excel) eta Google Forms-a izan dira. Excela lagungarria izan da ikusteko egunero traineru estropadei buruzko zenbat albiste zeuden, horietatik zenbatetan ziren emakumeak protagonista⁴, horietako zenbat ziren nagusiak⁵ edo hori baino handiagoak, eta zenbat ziren albiste mistoak (Eranskina 1). Horrekin, beraz, emakume arraunlariak izandako presentzia neurtu da, kuantitatiboki.

Espazioaren banaketaren azterketarako beste excel bat erabili da. Horretan, ondorengo datuak bildu dira: agerpen urtea, egunkaria, protagonistaren generoa, ligan jokaturako jardunaldietako lorpenak, albiste horri emandako zutabe kopurua eta agerpen ordena (Eranskina 2). Horren helburua izan da jakitea egunkariaren barruan zenbat zutabe ematen zaizkien gizonari eta zenbat emakumeei, eta emandako espazioa eta agerpen ordena lortutako garaipenen arabera den. Ikertutako albisteetan gizonak eta emakumeak lehenengo postuan gelditu direnez, ordura arte jokaturako garaipen guztiak ere hartu dira kontuan, garaipen bakoitzari

³ Analisiak dira egoera, gai edota gertakizun baten inguruan egiten diren irakurketa pertsonalak. *Berria* egunkarian, arraunlariak estropadei buruz idazten dute. *El Diario Vasco* egunkarian estropadei buruzko analisiak argitaratzen direnean, berriz, kazetariak.

⁴ Protagonista izateak esan nahi du albistean haiei buruz hitz egiten dela, nahiko sakon, eta ez zaiela aipamen soil bat egiten. Albiste mistoetan gizonak eta emakumeak agertzen dira protagonista bezala.

⁵ Albiste bat nagusia da egunkariko orrietan nahikoa presentzia ematen zaionean, eta, oro har, berria landua izaten da. Titulua, azpitulua eta bi zutabetik gora izaten ditu, eta argazki batekin agertu ohi da.

puntuak emanez. Puntu horiek irabazitako estropaden eta jokaturako jardunaldien arteko zatiketaren bitartez atera dira; esate baterako, 7 jardunaldietatik 7 irabazi badituzte, puntu 1 dute, eta 9 jardunaldietatik 5 irabazi badituzte, 0,55 puntu.

Beste aldetik, galdetegi batzuk diseinatu dira –fitxa moduan–, albiste bakoitza aztertzeko erabili direnak. Guztietan galdera berak erabili diren arren, 6 galdetegi erabili dira: urteko eta egunkariko bana, emaitzak urteka eta egunkariaren arabera banatuta izateko. Google Forms-a erabili aurretik, taula bat egin zen, dokumentu batean (Eranskina 3). Aurrerago, ordea, taula hori Google Forms-era pasatzea erabaki zen (Eranskina 4), datu guztiak automatikoki bilduta eta sailkatuta gera zitezten. Galdetegi horretara, beraz, hasierako taula horretako galderak eta aukerak pasa ziren, hiru ataletan banatuta: fitxa teknikoa, argazkia eta trataera.

Ikerketarekin aurrera egin ahala, erabilitako Google Forms horri aldaketak egin behar izan zitzaizkion. Izan ere, hasieran ez ziren albiste mistoak kontuan hartu, baina gero, ikusita albiste horiek berebiziko garrantzia zutela, beste modu batera aztertzea erabaki zen, gizonen eta emakumeen trataeran desberdintasunik zegoen edo ez antzeman ahal izateko.

Edukien analisia egiteko, beraz, egunkariak berrikusi eta zehaztutako berriak irakurtzearekin batera, azaldutako taulak eta fitxak bete dira, baita koadernoan oharrak hartu ere. Koadernoan hartutako apunteak, gainera, lagungarriak izan dira gehien errepikatzen ziren edota deigarriak ziren kontzeptuak biltzeko.

3. Generoa, kirola eta prentsa: Egungo egoera ulertzeko zenbait nozio

Jada jakina denez, ikerketa honek, orokorrean, hedabideen azterketa du oinarritzat; egunkari jeneralistetako kirol saileko emakume kirolarien albisteak analizatzea, zehazki. Horrek, baina, hainbat aspektu barne hartzen ditu, eta garrantzitsua da horietako bakoitzari erreparatzea, aurrerago datorren analisia bere osotasunean ulertzeko.

Horrela, atal hau hiru zatitan banatuko da: generoa, emakumeak eta kirola, eta emakumeak, kirola eta prentsa.

Lehenengo atalean, genero sistemaren nozioa landuko da, lana zein markotan onduko den kokatzeko. Ondoren, emakumeen eta kirolaren arteko harremanari egingo zaio erreferentzia. Horrekin batera, emakumeen eta herri kirolen inguruan hitz egingo da, eta, zehazki, emakumeak eta traineru estropadak landuko dira.

Emakumeek kirolean duten eta izan duten parte hartzeari ere erreparatuko zaio, errepaso historiko txiki bat eginez: Kretatik Olinpiar Jokoetara, hain zuzen. Horrela, Olinpiar Jokoetan emakumeek izandako presentzia landuko da, eta, azkenik, egungo emakume kirolarien egoeraz hitz egingo da.

Bukatzeko, emakume kirolarien eta prentsaren arteko harremana landuko da: lehenengo, orokorrean, kirolari eta hedabideei erreparatuko zaie; bien artean dagoen harremanari. Horren barruan emakume kirolariak prentsan duten egoera landuko da espreski, haiei buruz egiten den trataerari eta transmititzen den irudiari erreparatuz.

Azkenik, kazetaritza feministak kazetaritzan bertan eta gizartean jokatzeko duen rola landuko da, ondo komunikatzeak duen garrantzia nabarmenduz.

3.1. Genero sistema: Gizartearen antolaketa dikotomikoa ulertzeko gakoak

“Gutxitan ematen zaio zilegitasunik emakumeen ahotsari eta, ematen zaionetan, biktima posiziotik edo bere buruaren eta bere gisako beste emakumeen izenean izan ohi da”. Hala idatzi zuen Uxue Alberdik (2019) *Kontrako eztarritik* saiakeran, eta hori da, hain zuzen, historian zehar gertatu dena. Gizonek idatzi dute historia, eta emakumeek esandakoa, egindakoa edota bizitakoa ez da kontuan hartu, edo zalantzan jarri izan da. Pixkanaka kontakizun horiek berri-dazten eta beste errealitate batzuk azaleratzen joan diren arren, belaunaldiz-belaunaldi, gizonen begiradatik deskribatutako emakumeen irudia transmititu da (Osa, 2018): “Gaitasunak eta eskubideak mugatu zaizkie [emakumeei], irudi mitifikatu eta merkantzia sexual baten ordainetan”.

Irudi hori kontuan hartuta, espazioak ere banatu dira historian zehar; publikoa eta pribatua bereiziz. Hala, emakumeak kulturalki gutxiagotuak izan ohi diren eremu pribatuetara mugatuak izan dira, eta euren parte-hartzea debekatua edo baldintzatuta egon da esparru publiko (ia) guztietan. Bereizketa horrek bat egiten du genero sistemarekin⁶; gizarte-antolakuntza markatzen du eta gizarte genero harremanak hierarkizatzen ditu (Diez, 2006). Jakina da generoan ardaztu eta oinarritutako gizarte batean bizi garela; jaio aurretik ere bakoitzari genero bat esleitzen zaio, eta horren inguruan eraikitzen eta bideratzen du norberak –gizartearen

⁶ Atal honetan, oro har, mendebaldeko gizartei buruz mintzo naiz; mendebaldeko ikuspegi, kontzeptu eta iturriak oinarri hartuta. Beraz, hainbat ideiak, noziok eta irudik modu desberdinetan funtzionatu dezakete bestelako testuinguru sozial eta kulturaletan.

presiopean– bere bizitza guztia: nola jokatu, nola adierazi, nola sentitu, zer egin, zer ez egin... funtsean, nolakoa izan.

Binarismo horren barruan, bakoitzak esleitu zaionaren arabera sortzen du bere “ni”-a. Hori guztia ikasi egiten da, hain zuzen, generoa eraikitzen den zerbait delako. Generoa emakumeak eta gizonak bereizten dituzten sinesmenak, ezaugarri pertsonalak, jarrerak, sentimenduak, balioak, jokabideak eta jarduerak dira (Leoz, 2015). Horrela, kulturalki, gizon edo emakume gisa sailkatuak izateagatik pertsonen artean ezberdintasunak markatzen dituzte (Rojas eta Vargas, 2010).

Botere-sistema dinamikoa da generoa, eta, beraz, dituen ezaugarriak ez dira estankoak eta zurrunk; kultura, eremu geografiko edota garai historikoaren arabera aldatu egiten dira, hain zuzen: “Maskulinitatea eta feminitatea ez dira kontzeptu unibertsalak; bizitza sozialaren dinamikan eraikitzen, ehuntzen eta aldatzen dira” (Diez, 1996). Horiek horrela, Angela Maria Rojasek eta Elvia Vargasek (2010) azaltzen dute emakumei eta gizonei esleitutako eta praktikan jartzen dituzten rol sozialak ez direla sexuarekin lotutako desberdintasun biologikoen ondorio, historikoki onartutako eraikuntza sozial eta kulturalen emaitza baizik. Horrekin batera, nabarmentzen dute ez dagoela zerbait funtsean femeninoa edo maskulinoa dena; kultura bakoitzak bere definizioak eraikitzen dituela, alegia.

3.2. Emakumeak eta kirola: Femeninoa den horrentzat ukatutako sektorea

Arestian aipatu bezala, tradizionalki emakumeak bizitza publikotik, eta, beraz, gizarte-jarduera askotatik kanpo geratu dira, eta gauza bera gertatu da kirolean ere: kirolean parte hartzen duten emakumeen kopurua gizonena baino txikiagoa izan da historian zehar, baita gaur egun ere. Clara Sainz de Baranda ikerlariaren arabera (2013), hori gertatu da, historikoki, kirola emakumeentzat betorik handiena izan duen gizarte sektoreetako bat izan delako. Izan ere, Carmen Diezek (2006) adierazten du kirol sistema gizonek eta gizonentzat bakarrik izan dela sortua, eta sistema horretako egitura zein antolaketa androzentrikoak direla.

Bide horretan, hainbat autorek (Diez, 2006; Pedraza, 2012) maskulinitate hegemonikoa erreproduzitzeko erakunde eta espazio gisa identifikatzen dute kirola; klase sozialari, eta arraza eta genero-harremanei ere lotuta dagoena. Are, “maskulinitate eredia erreproduzitzen den espazio guztietatik, kirola da adierazgarrienetako bat” (Pedraza, 2014:50).

Kirol jarduerak berebiziko garrantzia du identitate maskulinoa eratzeko orduan, gizonen “benetako gizonen” izaera bereganatzen duten espazio bihurtzen delako. Horiek horrela, kirolak femeninoa den horrentzat ez du lekurik uzten, “ez espazio errealik, ezta sinbolikorik ere” (Pedraza, 2012:50). Emakumeak historikoki kirol eremutik kanpo uzteko hiru “mito” edo argudio nagusi erabili izan dira: batetik, ariketa fisikoak emakumeak “maskulinizatu” egiten zituela esaten zuten; bestetik, emakumeen osasunerako praktika “arriskutsua” zela zioten; eta, azkenik, emakumeei ez zitzaiela kirola interesatzen azpimarratu ohi da, eta, egiten bazuten, ez zutela ondo egiten (Diez, 2006).

Estereotipoak ere izan dira garrantzitsuak emakumeek kirola ez praktikatzeko orduan, estereotipoek sendotu egin dituztelako aipatutako mitoak. Izan ere, estereotipoak eta mitoak elkarren eskutik doaz eta traba izan dira –eta oraindik ere badira– emakume kirolarientzat. Gizarteak ahalegin andana egiten ditu emakumeek jarraitu beharreko rol “natural” batzuk barneratu ditzaten eta, batzuetan, inguruak ere ez du laguntzen horiei aurre egiten; egoera iraultzen: “Gizartean ezarritakoaren aurka joan behar izan zuten [emakume futbolariak], baita lagun, ezagun eta senideen iritzien aurka ere, neskato batzuk baino ez zirenean. Inguruak eragin handia du genero desberdintasunetan” (Boronat, 2021:23). Horiek horrela, neska eta emakume kirolariak beldurra sentitu dute sarri, euren nahi eta gogoari jarraitzeagatik: “Beldurra zen nagusi: tratu bidezkoagoa eskatzeko beldurra, zer esango duten beldurra, egoera batzuei aurre egitean hartuko zituzten errepresalien beldurra, etorkizun ez oso pozgarriari beldurra; azken finean, gizonen mundu batean emakume izateko beldurra” (Boronat, 2021:43).

Diezek (1996; 2006) nabarmentzen du kirola ezagutzea gizartea bera ezagutzeko giltza dela, hori baita gizarte sistema erreproduzitzeko mekanismo nagusietako bat: “Kirolaren bidez erreproduzitzen den maskulinitate eredua oinarritzkoa da gizonen nagusitasunari eusteko”, baita gizarte eredu dikotomikoa mantentzeko ere. Izan ere, kirol jarduerak dituen ezaugarrien konbinaketak sozializazio tresna bihurtzen du kirola bera, eta “ohartu gabe” eduki sexistak naturalizatu eta gizarte harremanetara transmititzen ditu (Diez, 1996). Horiek horrela, “kirol jarduerak praktika sozial orokorragoak bideratzen eta katalizatzen ditu, eta praktika horiek genero-sistemak sortzen eta erreproduzitzen dituzte” (Diez, 2006).

3.2.1. Emakumeak eta herri kirolak: Plazan ez agertzetik erreferente izatera

Kirolak, beraz, garrantzia handia du gizartean, eta, Euskal Herriko gizarteari, eta, nola ez, ikerlan honi begira jarrita, bereziki aipagarriak dira herri kirolak; arrauna kirol mota horretan kokatzen delako. Kirol tradizional hauek, orokorrean, herriko plazan egiten dira, herri guztia-
ren begi bistan. Gertaera horrek indartzen du aurreko paragrafoetan azalera tutakoa: batetik, kirolak bizitza publikoarekin duen lotura zuzena, eta, bestetik, kirolak gizartean hartzen duen lekua.

Plazan ere nabari da aipatutako gizonen nagusitasun hori, plazan ere erreproduzitzen delako genero sistema hierarkikoa; eta plazan ere erreproduzitzen delako espazioaren banaketa. Nahiz eta edonork har dezakeen plaza modu informalean, “kontuan hartzen” diren ekitaldiak, sozialki oihartzuna dutenak, gizonezkoenak baino ez dira (Gonzalez Abrisketa, 2013:89): “Gizonen arteko jokoek bakarrik merezi dute ikusiak izatea, eta ikusle gehienak ere gizonak dira”. Izan ere, gorputz kontenplazaileek dituzten praktiken bitartez generizatzen da plaza; eta praktika horiek, gehien-gehienean maskulinoak izaten dira (Gonzalez Abrisketa, 2013:89).

Tradizionalki, hori gertatu izan da herri kirolekin; landa inguruko lanbide tradizioaletan oinarritzen diren kirolekin, alegia (Euskaltzaindia, d.g.). Landa eremuko lanbideak ez ezik, bada, dira itsasoko lanetan ere oinarritzen diren herri kirolak; traineru estropadak, esaterako. Erronka, beraz, zeregin horietan oinarrituta sortzen zen: “Atsedean hartu beharrean, baserritarrek euren aisialdiko orduetan etxean egiten zituzten lan berberak egiten zituzten, baina plazan, mendian edo zelai batean, beste nekazari batzuekin lehia gogorrean, eta emozioz beterik zegoen publiko baten aurrean” (Mendizabal, Lizarraga eta Fuentes, 2009:18).

Herri kirolean, beraz, lanarekin lotutako jarduerak erritualizatu egiten dira, euskal kulturaren eta identitatearen parte garrantzitsu bihurtuz. Erritualizatu eta kirol bihurtu diren behar horiek, baina, gizonekin lotutakoak izan dira, eta jokoen ezaugarri nagusia “energia fisiko eta erresistentzia dosi handiak” erabiltzea da (Mendizabal, Lizarraga eta Fuentes, 2009:18). Herri kirolak bereizten dituen indar eta ezaugarri horiek maskulinitatearekin lotu izan dira tradizionalki, eta gaur egun oraindik lotzen dira; indar hori ere badelako erresistentzia fisikoa, indarra, boterea, autoritatea, eragina, ugaritasuna, energia, eraginkortasuna eta bizi-indarraren adierazle (Ott,

1992:253). Erresistentzia fisiko gisa erakusten den indar hori “asko baloratzen dute euskaldunek”, eta herri kirolen bitartez “gizonen indarra” –edo irudi maskulinoarekin lotzen diren atributu guzti horiek– publikoki jartzen dira proban eta lehian (Ott, 1992:254).

Nahiz eta gaur egun herri kiroletan aritzen diren emakumeak gero eta gehiago izan, espazio eta jarduera horiek ukatu izan zaizkie urteetan zehar, eta, hala, mendeetan zehar, “Euskal Herriko plazetan emakumeen presentzia anekdotikoa izan da” (Mendizabal, Lizarraga eta Fuentes, 2009:23). Izan ere, euskal gizartean, “emakumeen gorputzak ez datoz bat protagonistaren irudiarekin” (Gonzalez Abrisketa, 2013:100), eta horren arrazoietako bat izan da “emakumeen eta espazio publikoaren bateraezintasun tradizional bat” dagoela euskal imajinarioan (Gonzalez Abrisketa, 2013:86).

Guzti horren adibide da, esaterako, jarduera horiekin lotutako terminologia: “Emakume baten zat ez dago euskarazko hitzik gizon baten zat *plaza-gizon*-en esanahi bera duenik. Itzuli daiteke: plaza-andrea, baina ez zen existitzen harik eta Donostiako emakume talde batek (emakume-plaza) alderdi politiko feminista bat sortu zuten arte” (Gonzalez Abrisketa, 2013:99).

Plazaren erabilera erritualizatuetan⁷ toki mugatua egon da emakumeentzat eta hortik ulertu daiteke emakumeek herri kiroletan izandako presentzia urria. Baina traba gehiago ere izan dira, adibidez, herri kirolak eta euskal kultura zein identitatearekin ezarritako lotura. Izan ere, nazio identitatea hertsiki harremanduta dago generoarekin; genero maskulinoarekin, hain zuzen. “Identifikazio horren eraginez, emakumeak baztertu egiten dituzte, eta ez bakarrik kirol horretatik [pilota], horrek hartzen duen espaziotik ere, frontoitik, eta, hori, askotan, herriko plaza bera izaten da” (Gonzalez Abrisketa, 2013:86).

Horiek horrela, plaza-gizon baten irudia osatzen duten ezaugarrien arteko lotura –gorputz maskulinoak, espazio publiko eta kolektiboak, eta kirol nazionalak, besteak beste– garrantzitsua da ulertzeko zergatik baztertu dituzten emakumeak kirolak eskaintzen duen prestigio

⁷ Begoña Aretxagak *Los funerales en el nacionalismo radical vasco* lanean (1988) azaltzen du hileta erritualetan (plazaren erabilera erritualizatu batean) nolakoa den emakumeen parte hartzea. Andreek funtsezko rola betetzen dute, baina beti amatasunetik; izan ere, amaren irudia da emakumeen balio sinbolikorik handiena hartzen duena. Erritu horietan funtsezko papera bete arren, andreek toki mugatua zuten: emakumeen jarduerak espazio itxietara zeuden mugatuta, eta gizonenak publikoetara. Espazio femeninoak banatzaileak diren bitartean, maskulinoek elkartzea eta proiektu komunak eraikitzea ahalbidetzen dute” (Aretxaga, 1988:37). Horrez gain, espazio publikoan parte hartzean ere nabari ziren desberdintasunak, eta horietan ezarritako ordenak hierarkia bat markatzen zuten; hileta prozesioetan, esaterako, gizonak joaten ziren lehenengo, eta, azkenak emakumeak.

eta protagonismotik eta, oro har, ordezkartza eta espazio publikotik (Gonzalez Abrisketa, 2013:107).

Egoera, baina, joan da pixkanaka iraultzen, eta iraganean ez bezala, egun, txikienek badituzte erreferente modura plazaren erdigunea hartzen duten emakumeak. Karmele Gisasola Zelai III.ak (Mallabia, Bizkaia, 1994), esaterako, ez zuen erreferenterik izan: “Haurra nintzenean aitak harriak eta txalekoak ematen zizkidan, baina nik ez nuen emakumerik ikusten plazan, eta ez nuen parte hartu nahi izaten” (Prieto, 2021ko urriak 26). Gaur egun, ordea, bera da herri kiroltako erreferente bat: aizkoran eta harri jasotzean hainbat sari eta txapelketa irabazi ditu, eta 2021ean historia egin zuen emakumezkoen lehen banakako pentatloia irabazita. Izan ere, 1980ko hamarkadan jokatu zen lehen aldiz pentatloia, eta XXI. mendera arte ez dira aritu emakumezkoak (Etxeberria, 2021ko irailak 28).

Emakumeen plaza-hartze eta presentzia horren ondorioa da Euskadiko Herri Kirol Federazioan izandako lizentzien gorakada. Apurka-apurka bada ere, gero eta emakume gehiago egiten dituzte herri kirolak, eta, hala, 2005. urtean 130 emakume ariztetik, 146ra igaro ziren 2006an (Mendizabal, Lizarraga eta Fuentes, 2009:24). Emakumeen parte hartzearen garapena ikusita, eta hori sustatzeko asmoz, federazio ezberdinak joan dira emakumeentzako txapelketak antolatzen: Gipuzkoako Federazioak, adibidez, 2007an lehenengoz emakumeen segalari txapelketa antolatu zuen (Mendizabal, Lizarraga eta Fuentes, 2009:24), eta 2021ean egin zen emakumezkoen lehen banakako pentatloia.

Gainera, herri kiroltan emakumeen parte hartzea eta presentzia bultzatzeko asmoarekin, zenbait ekimen egin dira. Horren adibide da Eusko Jaurlaritzak 2006an argitaratu zuen Herri kirolen plan estrategikoa. Plan horren helburua da, batetik, gizartea herri kiroltara hurbiltzea eta horietan inplikatzeta; eta, bestetik, herri mailan, nazio mailan eta nazioartean herri kirolen sustapena areagotzea (Eusko Jaurlaritza, 2006). Horrez gain, plangintza horrek emakumeen parte hartzea handitzeko asmoa izango luke.

Azken urteetan, beraz, zenbait saiakera egin dira andreek plazan egiten diren kirol jardueretan duten presentzia areagotzeko xedez. Ahalegin hauek pixkanaka eman dute euren fruitua, eta, gaur egun, emakumeen presentzia eta protagonismoa errealitate bat dira Euskal Herriko plazetan. Badaude emakume herri kirolari erreferenteak, gazteenek badute nor ikusi, eta herri kiroltan aritzen direnek badituzte txapelketak, eta badute noren aurka lehiatu. Hala azaldu

zuen Karmele Gisasolak *Berria* egunkarian egin zioten elkarrizketa batean: “Plaza dezente egiten ari gara, baita txapelketa asko jokatzeko ere. Gero eta aukera gehiago dugu lehiatzeko. Apurka-apurka, baina ari gara aurrera egiten” (Etxeberria, 2021ko irailak 28). Horrela, aurretik nabarmendu den moduan, 2021eko emakumezkoen lehen banakako pentatloia “mugarri” gisa identifikatu zuen Gisasolak; emakume gehiago animatzeko erakusleiko gisa, hain zuzen (Etxeberria, 2021ko irailak 28).

3.2.1.1. Emakumeak eta traineru estropadak: Mugarriak

Herri kirol ugari daude, eta, horien artean, oihartzun gehien izaten duenatariko bat traineru estropada izaten da. Aurrez aipatu bezala, herri kirolak lehen sektorearekin lotutako zereginetan oinarritzen diren jarduerak dira. Hori da, baita ere, traineru estropaden kasua, izan ere baxurako arrantza du oinarrian. Horrela, bapozko itsasontziak iritsi baino lehen, arraunean egiten zen baxurako arrantza; normalean, patroia izaten zen ontziaren eta arraunen jabea, baita sareena eta arrantzarako behar zen edozein tresnarena ere. Hala, patroiak ahoz egindako kontratu baten bidez erreklutatzen zuen eskifaia, eta ordainsaria arrantza-produktuaren banaketa proportzionala izaten zen. Lehenengo, arrainaren salmentatik lortutako guztitik, hornigaiak erostegatik sortutako gastuak likidatzen ziren. Ondoren, gelditzen zena-ren %25 sare eta trainerua mantentzeko gordetzen zen, eta gainerakoa eskifaia-artearen banatzen zen (Eusko Jaurlaritza, d.g.). Gauzak horrela, ogibide horrek berak bazuen bere baitan lehiakortasuna: “Portura lehenengo itzulitako tripulazioak bazekien arrainak prezio onean sal zitzakeela” (Eusko Jaurlaritza, 2020).

Traineru bateko eskifaia hamahiru arraunlarik eta patroia batek osatzen dute; eta patroia da norabidea ezartzeaz arduratzen dena (Eusko Jaurlaritza, d.g.). Traineru estropadak kostatik hurbil egiten dira, lurretik ikusi ahal izateko, “baina ia beti itsaso zabalean egiten dira” (Eusko Jaurlaritza, 2020). Idatziz jasotako lehen desafioa Zarautz eta Getariako bi traineruren artean gertatu zen, 1761ko maiatzaren 2an (Eusko Label Liga, d.g.).

Traineru bakoitzak hamabi metroko luzera izaten du, baxurako arrantzarako itsasoratzen ziren ontzien luzera mantenduz; izan ere, 1916. urtera arte, arrantza traineruak ziren estropadetan erabiltzen zirenak. Hortik aurrera, ordea, lehiaketarako baino ez ziren traineruak egiten hasi ziren, eta horien diseinua aldatu zuten, ontzien pisua jaitsiz –arraunik eta osagarririk gabe ontziek gutxienez 200 kiloko pisua izan behar dute–, betiere “hamabi metroko luzera *klasikoari*

entsiz” (Eusko Jaurlaritzak, d.g.). Ontzien eta arraunen eboluzio horrek eragin du arraunketa estiloa ere aldatzea: “Besaurre-jokoak gerri-jokoa ordezkatu zuen. Erritmoa azkartu egin zen eta palada laburtu” (Eusko Jaurlaritzak, d.g.).

Estropada irabazten duen traineruak, lehiaketa egiten den herriko bandera brodatua lortzen du sari gisa (Eusko Jaurlaritzak, 2020), eta banderarik desiratuen *Kontxako Bandera* (Donostia) izaten da, iraileko lehenengo bi igandetan egiten dena. Kontxako estropada 1879. urtean egin zen lehenengoz, eta, orduetik, jarraitutasuna izan du gaur egunera arte, urteko traineru estropada ospetsu eta preziatuena bihurtuz (Eusko Jaurlaritzak, 2020; Eusko Jaurlaritzak d.g.; Macias, Unsain, Romano eta Iza, 2016).

Traineru estropadek ospe eta entzute handia dute Euskal Herriko kostaldean; jarraitzaile andana biltzen dituzte estropadek, eta, ildo horretan, aipatzekoa da emakumeen estropadek azken urteetan izan duten gorakada nabaria. Izan ere, emakumeen lehenengo traineru estropada 2005. urtean egin zen, Hondarribian (Gipuzkoa), Txingudi-Eguneko Bandera antolatuz zenean. Cabo da Cruz-eko (A Coruña, Galizia) arraunlariek irabazi zuten (Macias, Unsain, Romano eta Iza, 2016; Obregon, 2021).

2005. urteko estropada hori garrantzitsua izan bazen ere, beste bi dira emakumezkoen estropadetan mugari izan diren urteak: 2008a eta 2009a, hurrenez hurren. 2008. urtera arte lehiaketek ez zuten denboraldi oso baten forma hartu, eta urte horretan bertan, 129 urteren ondoren, emakumezkoen Kontxako bandera jokatu zen lehenengoz. Horrez gain, urte horretan ere lehiatu ziren Txingudiko Ikurrina, eta Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak (Obregon, 2021).

Kontxako Bandera eta Euskadiko traineru txapelketa lehiatu zirela-eta, hurrengo urtean, 2009an, Emakumezkoen Traineruen Liga –egungo Euskotren Liga– abiatu zen, “emakumezkoen arraunari bultzada bat eman eta gizonezkoetan egiten zen bezalako goi mailako txapelketa bat sortzeko helburuarekin” (Euskotren Liga, d.g.b; Obregon, 2021). Hasieran, selekziok lehiatzen ziren, baina 2011. urtean, emakumezkoen arraun klubek selekzioen lekua hartu zuten, eta klubaren arteko lehia izatera pasa zen (Euskotren Liga, d.g.b).

Emakumeen traineru estropadak antolatzen hasi zirenetik, nabarmen handitu dira jokaturako lehiaketak; Angel Obregon ikerlariaren arabera (2021), gorakada hori emakumezkoen traine-ruentzako soilik diren liga berrien sorreraren ondorioz gertatu da. Liga horietako baten adibide da 2018ko apirilean eratu zen ETE Liga –Emakumeen Traineru Elkarteak sortutako liga–, “emakumeen arrauna arautzeko eta antolatzeko beharrak bultzaturik” (Emakumeen Traineru Elkarteak [ETE Liga], d.g.). Elkartearen xedea da andreen traineru lehiaketak arautzea eta antolatzea, besteak beste, lehiaketa arauak eginez eta traineru estropaden egutegia eratuz (ETE Liga, d.g.).

ETE Liga bigarren mailako liga da, eta hori sortu zenerako, existitzen zen bigarren mailako beste liga bat: Emakumezkoen Gipuzkoako Traineru Liga, Gipuzkoako Arraun Federakundeak antolatzen zuena (ETE Liga, d.g.). Bi liga zeuden, beraz, baina ez zeuden bata bestea-rengandik bereizita: Euskotren Ligan zebiltzanak Gipuzkoako ligan ere lehiatzen ziren, gehien-gehienean beste taldeei itzal eginez (Manterola, 2018ko uztailak 19).

Horiek horrela, ordura arte Gipuzkoako Traineru Liga zena, ETE Liga bihurtu zen, eta federazioak antolatzetik, elkarteak berak antolatzera pasa zen, gizonen ligaren antolakuntzarekin berdinduz. ETE Liga, beraz, bigarren mailako liga gisa sortu zen, eta Euskotren Ligak jarraitu zuen liga gorena izaten: bertan jokatzeko zuten lau traineru onenek. ETE Liga ezartzearekin batera, bi ligak bereizi zituzten –Euskotren ligakoek ezingo zuten bigarren mailako ligan parte hartu, ordura arte bezala–, eta, hala, Euskotren ligara igotzeko kanporaketak ezarri eta liga sistema iraunkor bat finkatu zuten. Bi ligak bereizteak, gainera, “berdindu” egin zuen ETE Ligako borroka (Manterola, 2018ko ekainak 22; ETE Liga, d.g.).

2018. urtea nobedade gehiagorekin etorri zen: alde batetik, 16 jardunaldiraino luzatu zen emakumezkoen Euskotren ligako egutegia –2011tik 10 jardunaldikoa zen–, eta, bestetik, Kontxako Banderako diru sarietan parekidetasuna izango zen lehen aldiz. Izan ere, ordura arteko emakumeen saria 9.000 euro inguru gutxiago zen, eta, 2018tik aurrera, gizonezkoek eta emakumezkoek sari berak jasotzen dituzte dirutan: irabazleek, 24.000 euro; bigarren sailkatuek, 15.000; eta hirugarrenek, 12.000 (Berria, 2018ko abuztuak 28; EITB, 2017ko abuztuak 28).

Horrez gain, “ezohiko sasoi” izango da aurtengoa –2023– Euskotren Ligan, lau ontziren orde, zortzi ontzi lehiatuko direlako lehenengoz (Mujika, 2023ko martxoak 19). Patxi Frances (Donostia, 1958) Orioko entrenatzailearen arabera, “askoz gehiago estutuko da dena”, eta,

bere aburuz, “hori guztia ona izango da kirolarentzat eta ikuskizunarentzat” (Mujika, 2023ko martxoak 19). Gauzak horrela, 2023ko denboraldian bi txandakoak izango dira estropadak.

Guzti honek agerian uzten du emakumezkoen estropaden gorakada mantsoa baina ukaezina eta etengabea izaten ari dela 2008. urtetik gaur egunera arte, eta hori arraun taldeek, elkar- teek eta federazioek egin duten apustuari esker izan da (Obregon, 2021), baita emakume kirolariek egin duten lanari esker ere. Joera hori traineru estropadetan ikus daitekeen bezala, beste kirol batzuetara ere estrapolatu daiteke, kirola ere sektore parekideagoa bilakatzeko dagoen nahia azalerratzuz.

3.2.2. Emakumeen parte hartzea kirolean: Kretatik Olinpiar Jokoetara

Emakumeak kirol mundura orain dela gutxi iritsi direla uste den arren, historiak erakusten du aspalditik praktikatzen dutela kirola: andreen parte-hartzearen lehenengo aztarnak Kretako kulturaren (Grezia) kokatzen dira, k.a. 3500 urtean (Sainz de Baranda, 2013:76). Iturri arkeolo- gikoen arabera, garai horretan emakumeak hainbat kirol-jardueratan aritzen ziren: lasterkete- tan, ehizan, gurdi lasterketetan, pugilatoan –borrokan–, eta zezen-jauzian –zezenketetan–, besteak beste (Sainz de Baranda, 2013:76; Macias, 1999:29).

Kretako zibilizazioa, baina, k.a. 1200 inguruan desagertu zen –idatzizko tradizioa ere galdu zuten–; k.a. IX. mendean, ordea, Greziako baldintzek hobera egin zuten. Greziako mitoetan, tarteka emakumeak agertzen dira kirolen bat praktikatzen; baina “ezohiko” emakumeak izaten ziren horiek, haien ezaugarri maskulinoengatik bereizten zirenak (Sainz de Baranda, 2013:78). Emakume kirolari horien adierazle da Cirene ninfaren eta Atlantaren kasua. Garai horretan, gizonek biluzik egiten zuten kirola; emakumeek, aldiz, jantzita.

Grezia Klasikoan, emakumezkoentzat bakarrik ziren kirol-lehiaketak antolatzen zituzten; ho- rietatik garrantzitsuenak Hereo Jokoak ziren, hain zuzen ere, Hera jainkosaren omenez egiten ziren oinezko lasterketak. Kontrara, emakumeek ezin zuten Olinpiar Jokoetan parte hartu, ezta horiek ikustera joan ere. Emakumeen bertaratzea heriotzarekin zigortzen zuten (Sainz de Baranda, 2013:80; Macias, 1999:29).

Espartako emakumeen egoera bestelakoa zen, eta askatasun handiagoa zuten kirola egite- rako orduan. Andreek gizonek bezain beste kirol jarduera egiten zituzten, eta abiadura eta indar lehiaketetan hartzen zuten parte; korrikan, borrokan edota disko zein xabalina jaur-

tiketari (Sainz de Baranda, 2013:82). Horren helburua zen emakume gazteak fisikoki prestatzea, uste zutelako kirolari esker erditzeko ahaleginari hobeto egingo ziotela aurre, eta seme-alaba osasuntsu eta sendoagoak erdituko zituztela.

Emakumeak, beraz, salbuespenak salbuespen –Espartako kasua, adibidez–, kirol-praktikatik kanpo gelditzen ziren Antzinako Grezian, “ia bizitza publiko guztian” gertatzen zen bezala (Sainz de Baranda, 2013:75): “Ariketa fisikoaren eremuko desberdintasunak hasieratik gertatzen dira agerian, eta, horren ondorioz, ezarritako estereotipo sozial eta kulturek sortutako oztupoek, batzuetan, gaur egun ere irauten dute, XXI. mendean” (Sainz de Baranda, 2013:84).

Egipton ere badira kirola egiten zuten emakumeen aztarnak (Macias, 1999:29). Tenplu, jauziregi eta hilobietako horma-irudietan azaltzen denez, egiptoar aberatsen emazte eta alabek ehizatzeaz gain, igerileku pribatuetan edo Nilo ibaian ikasten zuten igeri egiten.

Erromari dagokionez, emakume gutxi hartzen zuten parte kirol lehiaketetan, nahiz eta emakume gladiatore batzuk ere existitzen ziren (Macias, 1999:30). Dontzeila lasterketak, gimnasia txapelketak edota gladiatore-espektakuluak zeuden, baina k.o. 200. urtean debekatu zituzten, eremu publikoan ikusle huts izatera pasatuz. Hortaz, andreek termetan bakarrik egiten zuten kirol jarduera, eta, toki horietan, igeri egiteaz gain, korrika, pilota eta eskrima egiten zuten, besteak beste (Sainz de Baranda, 2013:85; Labaka, 2016).

Erdi Aroan kristautasuna hedatu eta sendotu zen gizartean, eta horrek eragin zuzena izan zuen jarduera fisikoan: zenbait autoreren arabera (Sainz de Baranda, 2013:86), kristautasunak kirol jarduerarekin amaitu zuen. Hala ere, jasota dago Erdi Aroko emakumeek zenbait kirol jardueratan parte hartzen zutela: hipika, ehiza, pilota joko batzuk, igeriketa, andreentzat soilik ziren oinezko lasterketak, tenisa, izotz patinajea, eta gizonen eta emakumeen arteko borrokak, esaterako.

Hurrengo etapa historikoan, Errenazimendutik XVII. mendera arte, emakumeek kirolean zuten rola antzekoa izaten jarraitu zuen. Garai horretan, klase altuko emakumeek dantza, ehiza eta zaldiketa praktikatu zuten; herri xeheko emakumeek, ordea, joko herrikoietan hartzen zuten parte, pilota jokoan, esaterako (Sainz de Baranda, 2013:86). Horiek, baina, ez ziren kirol lehiaketak izaten. Sainz de Barandaren arabera (2013:87), emakumeak kirol lehiaketetatik urruntzeko zenbait arrazoi edo aurreiritzi daude –eta gaur egun ere, horietako batzuek

irauten dute—, besteak beste: kirola ugalkortasunerako oztopotzat jotzea, kirola egiteko jantziak probokatzailatzat hartzea, eta kirola egitea feminitatearen aurkako iraintzat hartzea.

XVIII. mendean, aldiz, jokoak kirol bihurtu ziren, eta, pixkanaka, XIX. mendean, gaur egun ezagutzen dugun kirol modernoak garatu zen —gizonentzat bereziki—, Ingalaterran (Sainz de Baranda, 2013:87). Erdiko klasearen agerpenak eragina izan zuen kirol modernoaren sorreran (Macias, 1999:33); izan ere, sektore pribilegiatuaren estatus marka gisa hartzen zen kirola, eta XX. mendean eliteetan bakarrik egotetik gehiago zabaltzera pasa zen (Sainz de Baranda, 2013:88). Hala ere, kirola guztiz kirol moderno bihurtzen da ordainpeko entretenimendu bihurtzen denean, eta ikusleak modu pasiboan kirol ariketa ikustera joaten direnean; futbola da horren adibide garbia (Sainz de Baranda, 2013:21).

Sainz de Barandaren arabera (2013:87), kirol modernoaren sorrerarekin batera sortu ziren emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei buruzko estereotipo gehien. Elida Alfaro, Mercedes Bengoechea eta Benilde Vazqueze ikerlariak (2010:12) azaltzen dutenez, garai horretan emakume gutxi sartu ziren kirol munduan, eta, sartu zirenak, “motel eta gizonekiko modu oso desberdinean” sartu ziren: klase altuko emakumeak sartu ziren, eta garaiko estereotipo femeninoa arriskuan jartzen ez zuten kirolean —kirol estetikoetan edota indarkeriarik gabekoetan—. “Kirol-eredu hori bat zetorren garaiko sexuaren araberrako lanaren eta aisiaren banaketarekin” (Alfaro, Bengoechea eta Vazquez, 2010:12).

Kirolak gizartean bereganatu zuen garrantziaren erakusle da 1896an Atenasen (Grezia) Aro Modernoko lehen Olinpiar Jokoak egin izana; Jokoek mundu osoan izango zuten eragina, “kirola gertakari sozial unibertsaltzat egituratuz eta berretsiz” (Sainz de Baranda 2013:88). Emakume kirolarien egoera, baina, ez zen gehiegi aldatu; izan ere, antzinako Olinpiar Jokoe-tan bezala, Aro Modernoko lehenengoetan ere ez zieten parte hartzen utzi.

Emakumeak lehiaketetan pixkanaka murgiltzen joan baziren ere, Sainz de Barandak (2013:87) azaltzen du emakumeek ez zutela kirolean modu aktiboan parte hartu Lehen Mundu Gerra amaitu arte (1914-1918). Izan ere, 1920 eta 1960 urte bitartean, lantegi eta industrietako emakumeek kirol garapena izan zuten lehia eta aisialdi mailan, eta, horrela, milaka emakume hartu zuten parte hainbat kirolean (Macias, 1999:35). Garai horretan, industriak babestu zituen kirol taldeak, leialtasuna sustatzeaz gain, “absentismoa murrizten eta parte-hartzaileen arteko adiskidetasuna sortzen zuen ekintza osasuntsua zelako” (Macias, 1999:35).

XX. mendean hainbat lege eta ekimen politiko jarri ziren martxan emakume kirolarien alde, eta horietatik hainbat autorek (Sainz de Baranda, 2013; Macias, 1999) nabarmentzen dituzte AEBetan egin zirenak: AIAW elkarte eta Hezkuntza Legeari egindako zuzenketa, hurrenez hurren. Alde batetik, AIAW Association for Intercollegiate Athletics for Women elkarte 1971. urtean sortu zuten, eta neska eta emakume ikasleentzako “aurrerapauso izugarria” izan zen: “Emakume ikasleentzako kirol-aukerak diseinatzeaz eta sortzeaz arduratu zen, baita kirolean eta atletismoan emakume guztientzako berdintasuna defendatzeaz eta justizia sustatzeaz ere” (Macias, 1999). Bestetik, Sainz de Barandak (2013:87) nabarmentzen du 1972an Hezkuntza Legeari IX. tituluari egindako zuzenketa; izan ere, horrekin, AEBetako hezkuntza erakundeetan sexu-diskriminazioa debekatu zuten.

Bidea luzea eta oparoa izan da, nahiz eta oraindik ere badagoen zer aldatu. Horren erakusle dira azken Olinpiar Jokoak, 2021ean Tokion egin zirenak. Izan ere, Joko horietan emakumeek ezohiko parte hartzea izan zuten (Barrera, Cerero eta Plascencia, 2021ko abuztuak 9), eta, hala, lehiaketako parte hartzeari dagokionez historiako Jokorik parekideenak izan dira, “gizon eta emakume kirolarien artean ia 50-50eko proportzioa izanik” (Olympics, 2021). Zehazki, parte hartzaileen %49 emakumeak izan ziren, eta historian lehen aldiz, parte hartu zuten 206 ordezkarietaz gutxienez emakume bat zegoen (Barrera, Cerero eta Plascencia, 2021).

3.2.3. Olinpiar Jokoak: Emakumeen parte hartzean akuilu

Arestian aipatu bezala, XIX. mendean berrezarri ziren Olinpiar Jokoak, baina horien bultzatzaile edota antolatzaileek emakumeak lehiaketatik kanpo utzi zituzten. Horren erantzuleetako bat Pierre de Coubertin baroia izan zen, Olinpiar Joko modernoaren sortzailea. Coubertinen arabera, “antiestetikoa” zen emakumeen parte hartzea eta presentzia, eta, gainera, ez zen ez interesgarria ezta zuzena ere (Alfaro, Bengoechea, Vazquez, 2010:13). Horrez gain, baroiak emakumeen parte hartzea errefusatu zuen: “Kirol-lehiaketetan, emakumeen parte-hartzeak erabat debekatuta egon behar du” (Sainz de Baranda 2013:88). Izan ere, Coubertinek Olinpiar Jokoak sortu zituen klase altuko gizon zurientzako kirol jaialdi gisa. Emakumeen kasua, horiek loria, ospea edo arrakasta izaten zuten seme-alaba kopuruarekin lotzen zuen (Macias, 1999:37). Are, ezin zehatzago azaltzen zuen Coubertinek bere iritzia: “Emakumeek funtzio bakarra dute: garailea giraldekin koroatzea” (Sainz de Baranda 2013:75).

Debekuaren aurrean, emakumeek “erantzun bateratua eman eta haien ahotsa entzunarazi zuten” (Labaka, 2016), eta, hortaz, hurrengo Jokoetan onartu zituzten; “emakume boteredunen presioagatik”, alegia. Izan ere, “Coubertinek emakumeek ezin zutela kirolik egin esaten

zuenean, emakumeek, emakumeentzako kirol elkarte eta klubak sortzen zituzten”, besteak beste (Perez, 2022ko otsailak 21).

Horiek horrela, aurreiritziak aurreiritzi, Aro Modernoko bigarren Olinpiar Jokoetan (Paris, 1900) 22 emakumek hartu zuten parte –guztira 997 atleta izan ziren– (Sainz de Baranda 2013:88), baroien gogo eta nahien kontra. Bost kiroletan aritu ziren, emakumeentzat “egokiak” zirelakoan, hain zuzen: tenisa, bela, golfa, zaldiketa eta croquet-a; hala ere, horietatik bi bakarrik izan ziren proba ofizialak: golfa eta tenisa. Olinpiar Jokoetan saria jaso zuen lehen emakumea Charlotte Cooper tenislaria izan zen (Britania Handia, 1870-1966).

Saint Louisen (Missouri, AEB) egin ziren hirugarren Olinpiar Jokoak (1904) eta gauzak ez ziren gehiegi aldatu emakumeen parte hartzeari dagokionez. Arku jautiketara gehitu zitzaion emakumeek parte hartzeko aukera zuten kirolei (Sainz de Baranda, 2013:89), baina ez lehiaketara gisa, erakustaldi gisa baizik (Macias, 1999:38). Are gehiago, Amerikako Batzorde Olinpikoko kideek arku jautiketara erakustaldi hutsa baino ez zela adierazi zuten, eta Olinpiar Jokoetan zein beste lehiaketetan emakumeen parte hartzearen kontra agertu ziren (Macias, 1999:38).

Zailtasunak zailtasun, pixkanaka hazten joan zen emakumeek parte hartu zezaketen diziplina kopurua, baita partaide kopurua ere. 1908an Londresen egin ziren Jokoetan, Batzorde Olinpikoak emakumezkoen patinaje, tenis eta arku erakustaldiak onartu zituen, besteak beste (Macias, 1999:38). Bide horretan, Nazioarteko Igeriketa Federazioak emakumeek Olinpiar Jokoen igeriketan lehiatzearen alde egin zuen, eta 1912ko Stockholmen (Suedia) egin ziren Olinpiar Jokoetako programan sartzeko proposamena egin zuen eta onartua izan zen.

Emakumeen presentziak Jokoetan izan zuen garapena, baina, ez zen xamurra izan: “XX. mendean zehar, emakumeek kirol olinpikoan edo, besterik gabe, lehiaketetan izan zuten parte-hartzeak gaitzespen handia izan zuen, ez bakarrik kirolaren esparruan, baita gizartearen zati handi batean ere” (Alfaro, Bengoechea eta Vazquez, 2010:13). Coubertinek ere emakumeen parte hartzearen kontra jarraitzen zuen, eta bere posizioa defendatzeko zenbait argumentu edo arrazoi erabiltzen zituen, besteak beste: Antzinako Greziako Joko Olinpikoak zituen eredu eta euren forma eta formatu errepikatzearen alde zegoen; eta, bestalde, uste zuen jarduera bizietan parte hartzen zuten emakumeek euren “xarma femeninoa” galtzen zutela (Macias, 1999:39).

Trabak traba, emakumeek aurrerapausoak eman zituzten kirol munduan, eta bide horretan Alice Milliat (Nantes, Britainia 1884-1957) izan zen pertsonarik esanguratsuenetako bat: “Hasi-erata-hasieratik jabetu zen Olinpiar Jokoak kirolaren erakusleho nagusia zirela, baina ez zuen ulertzen emakumeek Jokoetan ia aukerarik ez izatea” (Sainz de Baranda, 2013:89). Milliatek Parisko Club Fémina sortu zuen 1915ean, hiriko emakumeen artean kirola sustatzeko. Horrez gain, 1917an, Frantziako Emakumeen Elkartearen Federazioa (FFSF) sortu zuen, eta 1921eko azaroan, FSFI Emakumezkoen Kirol-elkartearen Federazio Internazionala (Sainz de Baranda, 2013:89). Azken hori, emakumeen nazioarteko lehiaketa atletikorako presio-talde garrantzitsu bihurtu zen (Macias, 1999:39).

FSFIk Emakumeen Lehen Olinpiadak antolatu zituen 1922an, Parisen, Emakumeen Munduko Jokoak izenpean; izan ere, Nazioarteko Olinpiar Batzordeak olinpiko terminoa erabiltzeko eskubide eskusiboa aldarrikatu zuen (Macias, 1999:39). Guztira, lau aldiz egin ziren Emakumeen Munduko Jokoak: 1922an, Parisen; 1926an, Suedian; 1930ean, Txekiako Errepublikan; eta 1934an, Ingalaterran. Aurrerago, FSFIk Nazioarteko Atletismo Federazioarekin (IAAF) bat egingo zuen –FSFI desagertuz–, eta IAAFK hartuko zuen “emakumezkoen kirola eta parte-hartzea maila guztietan bultzatzeko konpromisoa” (Sainz de Baranda, 2013; Macias, 1999; Labaka, 2016).

Bien bitartean, Parisko 1924ko Olinpiar Jokoetan, emakumeen parte hartzea debekatu zuten. Baina, Emakumeen Munduko Jokoen arrakasta ikusita, eta emakumeen parte hartzearen alde egindako presioaren eraginez, Amsterdameko 1928ko Olinpiar Jokoetako diziplina batzuetan emakumeen parte hartzea onartu zuten: gimnasia, tenis eta igeriketaren kategoria femeni-noak gehitu ziren programa olinpikora, eta atletismoko bost probatan emakumeek lehenengoz parte-hartu zuten (Sainz de Baranda, 2013; Macias, 1999; Labaka, 2016). Hau da, diziplina “femeninoetan” parte hartzen utzi zieten emakume kirolariei; “ez femeninoetan”, ordea, betoa mantendu zieten (Labaka, 2016; Sainz de Baranda, 2013): “Kirol ‘femeninoetan’ ondo ikusia zegoen emakumeen parte hartzea; kirol ‘maskulinoetan’, ordea, ez” (Sainz de Baranda, 2013:90).

Emakumeak ez ziren ongi ikusiak, besteak beste, distantzia luzeko lehiaketetan, indarra nabarmentzen duten kirolak, kontaktu fisikoa behar dutenetan eta “arriskutsuak” izan daitezkeenetan (Macias, 1999:120); pisu jaurtiketa, halterofilia, boxeoa edo borroka, kasu. Trebetasuna, malgutasuna, koordinazioa eta harmonia garatzen duten kirolak hartzen zituzten emakumeentzat egokiak ziren kirol gisa (Macias, 1999; Sainz de Baranda, 2013); igeriketa,

gimnasia, irristaketa artistikoa, eskrima, edo tenisa, esate baterako. Pentsaera horren beste adibideetako bat da Avery Brundage NOBeko kidea (Detroit, AEB, 1887-Alemania, 1975): “Aspertuta nago atletismoko emakume lehiakideei buruz hitz egiten entzuteaz... haien xarma zero baino gutxiagora desagertzen da. Igerilari eta urpekari gisa, neskak ederrak eta trebeak dira, baina atletismoan ez-eraginkorrek eta desatseginak dira (Hargreaves, 1994, Sainz de Baranda, 2013:90ean aipatua).

Nabaria zen emakumeen parte hartzearen kontrako presioa, eta hori elikatzen aritu ziren NOB Nazioarteko Olinpiar Batzordea eta Amsterdameko Jokoen berri eman zuten he-dabideak: emakumei buruz egin zituzten informeetan emaitzak distortsionatu zituzten, eta gertaerak asmatu zituzten kirolarien irudia gutxiesteko asmoz (Macias, 1999:40). Horiek horrela, NOBren 1929ko bilkuran, batzordeak emakumeak programa olinpikotik kanporatzearen alde egin zuen. Erabaki horren kontra agertu zen IAAF, besteak beste, eta eragindako presioaren ondorioz, 1930eko bilkuran, NOBek emakumeak onartzearen alde egin zuen (Macias, 1999:40).

Urteak aurrera joan ahala, Nazioarteko Olinpiar Batzordeak emakumeen parte hartzearen inguruan zuen iritzia aldatzen joan zen, eta hori bultzatzeko eta sustatzeko asmoz, 1996tik hasita, lau urtean behin antolatzen du Emakumea eta Kirolari buruzko Mundu Konferentzia⁸, “egindako aurrerapenak baloratzeko eta hurrengo urteetan garatu beharreko lehentasunezko ekintzak ezartzeko” (Alfaro, Mayoral eta Vazquez, 2019:6; Labaka, 2016).

NOBek hartutako konpromisoaren adierazle da, esaterako, azken hamarkadetan Olinpiar Jokoen programan emakumeen ekitaldi eta diziplina kopurua handitu izana (Sainz de Baranda, 2013:90). Horrela, Olinpiar Jokoen emakumeen parte hartzea debekatuta egotetik, gaur egun –Tokio 2020, COVID-19aren ondorioz 2021ean egin zirenak– partaideen ia erdiak izatera pasa dira, ordezkaritza bakoitzean gutxienez emakume bat egonik. Ibilbide horretan, aipagarriak dira Londresko 2012ko Olinpiar Jokoen emakumeen parte hartzea izendatu zituzten, andreak %44ko parte hartzea izan zutelako; ordura arteko handiena, hain zuzen (Sainz de Baranda, 2013:97). Milliatek zioen bezala, Olinpiar Jokoen kirolaren erakusleho nagusia dira, eta, beraz, garrantzitsua da emakumeak horietan ikusaraztea; hainbat zentzutan, kirol txapelketen isla eta erreferentzia ere izan daitezkeelako.

⁸ NOBk 1996an antolatu zuen lehenengo konferentzia, Lausanan (Suitza). Hala ere, gaiari buruzko lehen nazioarteko konferentzia Brightonen (Ingalaterra) egin zen, 1994an, *British Sport Council*-ek antolatuta.

Edonola ere, eta aurrerapausoak eman badira ere, kirolean ez dago parekotasunik, eta aurretik aipatutako emakume kirolarien mito eta aurreiritzi batzuek bizirik diraute. Are gehiago, sexu-generoarekin lotutako gai eta eztabaidek gero eta presentzia handiagoa dute kirol munduan, eta euren parte hartzea zalantzan jartzeaz gain, maiz, debekatu egiten da. Horren adibide da, esate baterako, Munduko Atletismo Federazioak debekatu egin die emakume transei nazioarteko lehiaketetan parte hartzea, emakumeen lehiaketak “babesteko” helburuarekin (Otaegi, 2023ko martxoak 23).

3.2.4. Gaur egungo egoera: Berdintasunaren aldeko apustua eta borroka

Ezarri diren neurriak eta erakundeetan zein gizartean gertatu diren aldaketak kontuan hartuta ere, gaur egun, oraindik, “kirolean gizonak emakumeen gainetik daudela kontsideratzen da” (Martínez, Lasarte, Gamito eta Vizcarra, 2020:2). Izan ere, kirola historikoki identitate maskulino zehatz batekin lotu izanak eragin du gizonak kirol-subjektu bakar gisa identifikatzea (Alfaro, Bengoechea eta Vazquez, 2010:14). Horren ondorioz, emakume kirolariek –goi mailakoek zein amateurrek– egiturazko eta antolakuntzako arazoak izaten dituzte: laguntza ekonomiko txikiagoak, kualifikazio txikiagoko entrenatzaileak eta instalazio okerragoak, besteak beste (Martínez, Lasarte, Gamito eta Vizcarra, 2020:2).

Argia da paradigma aldaketa: azken hamarkadetan urratsak egin dira kirolean emakumeen parte hartzea bultzatzeko eta haien egoera hobetzeko. Gero eta gehiago dira emakume kirolariak: adin eta maila desberdinetakoak, eta gero eta gehiago dira emakume kirolari erreferenteak. Baina “ez da nahikoa emakumeak kirol-esparrura sartu ahal izatea, beharrezkoa da haien esku-hartzea ikusgarria izatea, eta tratamendu propioa izatea kirolaren alor guztietan”; hau da, emakumeak izatea kirol-subjektuak (Alfaro, Bengoechea eta Vazquez, 2010:15). Horretarako, oraindik, bidea egin behar da.

Orri hauetan zehar azaldu denez, egungo egoerara iristea ez da lan makala izan, eta urte luzeetan zehar, instituzioek, federazioek, taldeek zein norbanakoek, hamaika ekintza, lege, proposamen eta jarduera estrategiko egin dituzte kirola ere sektore parekideagoa bilakatzeko helburuarekin.

Bide horretan, aipagarria da 1994. urtean Emakumeari eta Kirolari buruzko Nazioarteko Lehen Konferentzian egin zutela Brightonen (Ingalaterra), *British Sport Council*-ek antolatuta, Nazioarteko Olinpiar Batzordearen laguntzarekin. Bertan elkartu ziren kirol munduko politiken arduradunak, “kontinente guztiak barne hartzen dituen emakumeen kirolerako nazioarteko

estrategia bat ezarri eta garatzeko” (Sainz de Baranda, 2013:98). Konferentzia horretan bertan garatu zuten *Emakumea eta Kirolaren Brightongo Aitortza*, kirolaren alor guztietan emakumeen parte hartzea ahalbidetu eta baloratuko zuen kirol kultura bat garatzeko xedez (Sainz de Baranda, 2013:98).

Nazioarteko Olinpiar Batzordeak 1996an antolatu zuen lehenengoz Emakumeari eta Kirolari buruzko Lehen Mundu Konferentzia, Lausanan (Suitza). Konferentzia baliatu zuten, besteak beste, emakumeen eta kirolaren arloan egindako aurrerapenak ebaluatzeko, esperientziak partekatuz, eta Olinpiar batzordeetan emakumeen lidergoa sustatzeko politikak definitzeko. Horiek horrela, NOBek helburu gisa jarri zuen 2000. urte amaierarako Batzorde Nazional guztietan eta Nazioarteko Federazio guztietan emakumeek bete beharko zituztela zuzendaritza karguen %10a; 2005erako, aldiz, %20a (Sainz de Baranda, 2013:98).

Emakumeek kirolean duten egoerari erreparatzen dioten dokumentuen artean, aipagarriak dira, alde batetik, 1999ko Helsinkiko (Finlandia) Informea, kirolean eragina duten oinarriak aipatzen dituelako eta erreferentzia zehatza egiten diotelako emakumeek kirol alorrean duten egoerari; eta, bestetik, Nizako (Frantzia) Aitortza, azaltzen duelako kirol jarduera pertsona guztiei iristeko moduan eskaini behar dela, praktika aniztasuna eta pertsona bakoitzaren gaitasunak kontuan hartuz (Labaka, 2016).

Europako Parlamentuak ere erreparatzen dio emakumeek eta kirolak duten harremanari, eta horren inguruan zenbait helburu planteatzen ditu: “eskola kiroleko parte hartzea bultzatzea, lehiaketetan eskubide berdintasuna eta diskriminazio eza bermatzea, emakumeen osasuna babestea eta erabakiak hartzean emakumeen parte-hartzea sustatzea” (Labaka, 2016).

Aipatu bezala, 1996ko Konferentzia izan zen lehenengoa, eta, orduetik, lau urtean behin egiten dira Emakumeari eta Kirolari buruzko Mundu Konferentziak. IV.a 2008an egin zuten, Jordanian: “Ekintza sendoagoko plan batekin amaitu zen konferentzia, eta, bertan, hedabideek genero berdintasunaren sustatzaile gisa duten zeregina gogorarazi zen” (Sainz de Baranda, 2013:99).

Handik urtebetera, 2009an, Espainiako Estatuko Kirol Kontseilu Gorenak Berdintasunaren eta emakumeak kirolean parte hartzearen aldeko adierazpena ondu zuen. Bertan, Brightongo 1994ko Adierazpenaren printzipioekin bat egin zuen (Boronat, 2021:18). Aipatzekoa da 1978ko Espainiako Estatuko Konstituzioak –botere publiko eta herritar guztiek bete behar

dutena—, berdintasunerako eta sexu arrazoiengatik diskriminaziorik ez izateko eskubidea aldarrikatzen duela. Horrez gain, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1979an emakumearen kontrako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko konbentzioa egin zuen. Bertan aldarrikatu zutenez, “emakumeak esfera guztietan ahalik eta parte hartze handiena izatea ezinbestekoa da herrialde baten garapen osorako, munduaren ongizaterako eta bakearen kausarako” (Boronat, 2021:17).

Antolatutako Konferentzietatik haratago, Nazioarteko Olinpiar Batzordeak kirolean genero berdintasunaren aldeko konpromisoa hartu zuen. Horren adibide da, esaterako, 2011n argitaratutako Gutun Olinpikoa. Gutunean jasotzen dira, besteak beste, Olinpismoaren oinarrizko printzipioak eta arauak; horren bidez zuzentzen dira Mugimendu Olinpikoaren antolaketa, ekintza eta funtzionamendua; eta bertan ezartzen dira Joko Olinpikoak egiteko baldintzak (Nazioarteko Olinpiar Batzordea [NOB], 2020).

2011ko uztailaren 8an argitaratutako Gutunak ezartzen du “NOBaren eginkizunetako bat dela kiroleko maila eta egitura guztietan emakumeen parte hartzea bultzatzea eta babestea, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren printzipioa aplikatzeko xedez” (Sainz de Baranda, 2013:99). Horrez gain, Gutunak onartzen du “genero berdintasuna kirol-administrazioaren faktore kritikoa” dela. Izan ere, kirol arloko ardura postuetan ez dago gizon eta emakumeen arteko parekidetasunik. Baina postu horietan ere egon dira bide urratzaileak, gauzak aldatu daitezkeela erakutsi dutenak: Flor Isava Fonseca (Caracas, Venezuela, 1921-2020) izan zen lehenengoa. 1990ean, NOBren historian lehen aldiz, emakume bat aukeratu zuten kargu exekutibo bat betetzeko: Isava, hain zuzen ere. 1997an, Anita DeFrantz (Filadelfia, AEB, 1952) urratu zuen berriro ere bidea: NOBko presidenteorde izendatu zuten (1997-2001), kargu hori hartzen zuen lehenengo emakumea bihurtuz (Sainz de Baranda, 2013:99).

2012an izan zen Emakumeari eta Kirolari buruzko V. Munduko Konferentzia, Los Angelesen (AEB). Bertan egindako aitortzan, hainbat gomendio zehaztu zituzten, batetik, kirol arloan berdintasuna sustatzeko, eta, bestetik, kirola emakumeen bizitzan txertatzeko, horien bizi kalitatea hobetzeko asmoz (Sainz de Baranda, 2013:99). Horretarako, bereziki bi gai nabarmendu zituzten: kudeaketan eta lidergoan emakume gehiago egotearen beharra eta elkarte ezberdinen arteko lankidetzaren areagotzeko premia —NBErekin bereziki—. Betiere, genero berdintasuna sustatzeko xedez (Sainz de Baranda, 2013:99).

Nazioartean eta estatu mailan, beraz, hamaika ekimen, plan estrategiko, lege, batzorde, konferentzia eta jardunaldi ondu dira emakumeek kirolean duten egoera parekideagoa bihurtzeko

asmoz, eta arestian aipatutakoak adibide gutxi batzuk baino ez dira. Eta, aurretik esan den moduan, argi dago, pixkanaka bada ere, guzti hori ari dela bere fruituak ematen: “XX. mendean, emakumeek kirolari izaera lortu dute, eta kontsiderazio hori XXI. mendean gauzatu da emakumeak kirol guztietan parte hartuz” (Sainz de Baranda, 2013:100). Horrela, orainaldira eta etorkizunera begira, XXI. mendeko erronka da emakumeak kirol kudeaketan egotea (Sainz de Baranda, 2013:100).

3.3. Emakumeak, kirola eta prentsa: izana izendatzeaz

Izenik ez duenak izanik ez duela dio esaerak, eta, beraz, izendatzen ez den hori ez da eza-gutzen; gizartearen zati handi batentzat, bederen, ez da existitzen. Hori gertatzen da emakumeekin, eta are gehiago, emakume kirolariek. Esanda dago: hedabideetan duten absentsia horrek “emakumeak subjektu ausente bihurtzen ditu, ikusten ez dena ez delako ezagutzen, ez delako antzematen, ez delako existitzen” (Martinez, Lasarte, Gamito eta Vizcarra, 2020:4).

Horixe bera berresten du Nieves Ucendok (2001), errealitatearen erradiografia hau eginez:

Kirola egiten duten emakumeek ikusezinak dirudite, ez daude hedabideentzat. Ez dira agertzen. Ez dute saltzen. Eta ez baduzu saltzen, ez zara existitzen. Olinpiada garaian bakarrik jarrai daiteke emakumeen kirola komunikabide orokorretan, edo emakume batek maila oso altuko lehiaketa bat irabazten duenean. (Ucendo, 2001, Labaka, 2016:50ean aipatua)

Judit Martinezek, Gema Lasartek, Rakel Gamitok eta Maria Teresa Vizcarrak (2020:3) ere bat egiten dute ideia horrekin, eta azaltzen dute emakumeek hedabideetan duten presentzia urria, irrealia eta desorekatua dela: “Gutxitan agertzen dira emakumeak, eta agertzen direnean, garrantzi txikiagoko sailetan agertzen dira, hala nola kulturaren edo gizartearen, eta ez ekonomia edo politika ataletan”.

Izan ere, aurrerapenak aurrerapen eta urratsak urrats, argi dago gaur egun ere kirol munduak egitura maskulinizatua duela, bere alor guztietan: “Salbuespen batzuk kenduta, agerian gertatzen da emakumeen ikusgaitasun urria klubaren zuzendaritzan eta kudeaketan, baita emakumezko kirolarien ikusgaitasun txikia hedabideetan ere” (Diez, 2006:138).

Emakumeek orokorrean eta emakume kirolariek zehazki, hedabideetan duten presentzia txikia errealitatea da. Gizonak dira kirol prentsaren protagonista “eztabaidaezinak”, Espainiako Estatuan, esaterako, albisteen %91n haiek izaten dira protagonista (Sainz de Baranda,

2013:387; Martínez, Lasarte, Gamito eta Vizcarra, 2020:4). “[Emakume kirolariak] Ikusezin bihurtu dituzte, eta haien lorpenek ez dute bat egin hedabideetan eman zaien espazioarekin, eta ez da nahikoa izan onak izatea eta dominak irabazi izana” (Martínez, Lasarte, Gamito eta Vizcarra, 2020:11).

Orain arte egindako ikerketek, gainera, horixe bera berresten dute, eta hala azaltzen du Sainz de Barandak (2013):

Edukiei buruzko ikerketek, lehen azterlanetatik hasi eta azkenera arte –ikertutako hedabidea eta azterketaren oinarri den gaia edozein izanik ere–, emakumearen ikusezintasuna salatzen dute. Halaber, adierazten dute, agertzen direnean, medioek nabarmentzen dituztela gatazkak, jarduera osagarriak, hutsalak eta jarreraren arteko liskarrak nagusi diren informazioak, emakumeen lorpenak eta ekarpenak minimizatuz. (105 or.)

Izana izendatzea, hedabideetan agertzea, gizarteratzea, garrantzitsua da, egunero kontsumitzen baititugu mota bateko edo besteko medioak, eta horietan ikusi eta entzundakoa normalizatu, barneratu eta erreproduzitzen dugu. Horrez gain, hedabideek herritarren ideia, iritzi, sinesmen, ohitura eta jokabideak aldatu edota sendotzeko gaitasuna dute (Osa, 2018). Horren harira, Sainz de Barandak adierazten du (2013:139) hedabideak gizartean dauden babilioen eta eskemen transmisore bihurtzen direla, baita harremantzeko forma berrien sortzaile ere.

Hedabideek, beren aldetik, errealitatea erreproduzitzen dute, eta hori egitean, medio bakoitzak errealitatearen bere interpretazioa egiten du; orokorrean “gizonezkoen ikuskera batek kontatu ohi dituzte gertakariak, gizonen irudia erdigunean jarriz eta protagonismo berezia emanez” (Osa, 2018). Silvia Federicik *Microfísica sexista del poder. El caso Alcàsser y la construcción del terror sexual* liburuaren hitzaurrean azaltzen duenez (Barjola, 2018:15), hedabideak ez dira ikusle pasiboak, proiektu politiko bateko partaide baizik.

3.3.1. Kirola eta hedabideak: Gizonak nagusi eta barrutik hori nola irauli

Oihartzun handia izaten dute kirol albisteek egunkari jeneralistetan, eta, zer esanik ez kirol egunkarietan. Gaur egun, esaterako, kirol kazetaritza hedabideen industriaren barruan garrantzi handiko eremu bihurtu da⁹ (Pedraza, 2012). Hala, kirol lehiaketetako lehenengo kronikak 1896an egin ziren, Atenasen, Aro Modernoko lehen Olinpiar Jokoetan. Pixkanaka, kirol prentsa indarra hartzen joan zen, eta XXI. mendearen hasieran egindako zenbait ekitaldik lehen kirol egunkariak finkatzea eta berriak sortzea erraztu zuten. Izan ere, orduan jokatu ziren 1908ko eta 1912ko Londresko eta Stockholmgoko Olinpiar Jokoak; lehenengoetan, telegrafoaren bitartez mundu osora zabaldu ziren bertako albisteak, eta, bigarrenetan, lehenengo argazki bidalketak egin ziren (Sainz de Baranda, 2013:21).

Kirolaren eta prentsaren arteko elkarreragina sendotzen joan da: kirol kazetaritzak funtsezko zeregina izan du identitatea(k) sortzeko prozesuan; eta, kirolaren bitartez sortzen dira, hala nola, lurralde identitateak, klase identitateak edota identitate generikoak (Pedraza, 2012:48). Horrela, pixkanaka, “kirola XXI. mendeko diru-industria bilakatu da komunikabideen eraginari esker” (Labaka, 2016:20).

Gaur egun, eta Espainiako Estatuko errealitatea kontuan hartuta, kirol egunkariak egunkari jeneralistak baino gehiago irakurtzen dira, eta, hori gutxi balitz, gero eta irakurle gehiago dituzte (Sainz de Baranda, 2013). Hau da, kirol egunkariak joera orokorraren kontra doaz: “2008. urtean, egunkari jeneralistak irakurleak galtzen hasi ziren, eta joera horrek gaur egun arte iraun du; hala ere, kirol egunkariak audientzia handitzen jarraitzen dute” (Sainz de Baranda, 2013:30). Horren adibide garbia da Espainiako Estatuan *Marca* egunkariak duen presentzia handia: egunkaririk irakurriena da, eta gero eta irakurle gehiago ditu –EGMren neurketaren arabera, milioi bat irakurle inguru zituen 2023ko ekainean, apirilean baino 25.000 gehiago– (AIMC, 2023; Erredakzioa, 2023ko apirilak 20).

⁹ Egunkariekin hasi zen kirol kazetaritza, baina ez zen horretan geratu: 1921ean irratian sartu zen kirola, eta, aurrerago, telebistaren popularizazioarekin batera, telebistan (Universidad Europea, 2022ko azaroaren 24a). Guztietan sortu dira kirolari eskusiboki eskaintako egunkari, kanal, programa edo saioak. Gaur egun, *online* ere kontsumitu daiteke kirola, Interneten edota sare sozialen bidez. Hedabideek eta kirolak elkarrengan dute eragina: batetik, kirolak hedabideen programazioan eta ekonomian du eragina, eta, bestetik, hedabideek, besteak beste, kirol ekitaldien ordutegia eta kokalekua baldintzatzen dute (De Moragas, 1994). Horrela, kirola hedabideentzako albiste-iturri agortezina da, herriarentzako interes handikoa dena. Bestalde, kirol ekitaldiak hedabideei ondoen datorkien ordutegian egiten dira, bereziki telebistak audientzia handien duen ordutegian. Kirol jarduera egingo den lekuak, gainera, teknologia egokia izan behar du hedabideek modu egokian emititu ahal izateko (De Moragas, 1994). Beraz, mota bateko eta besteko hedabideek kirol sektorean eta gizartean garrantzia dute.

Kirol egunkariaren hazia Olinpiar Jokoetan erein bazen ere, kirol programazioa batez ere futbolearen oinarritzen da. Gizonezkoen futbola da nagusi kirol egunkarietan, horren ondoren, beste kirol batzuk agertzen dira, eta azkenik, emakumeek egiten dituzten kirolak azaltzen dira; ordena horretan (Martinez, Lasarte, Gamito eta Vizcarra, 2020). Hau da, gizonak protagonista diren kirolak dira nagusi, eta kirol horietan guztietan futbola gailentzen da (Sainz de Baranda, 2013:170). Gaur egungo kirol programazioa, beraz, ez da antolatzen kirolariek eskuratzen dituzten lorpenen arabera, generoaren eta kirol jakin batzuen arabera baizik (Martinez, Lasarte, Gamito eta Vizcarra, 2020:7).

Ze albiste sartu erabakitzean, beraz, hedabideek generoaren aldagaia hartzen dute kontuan, eta kirolarien irudiaren errepresentazio zehatz bat egiten dute: orokorrean, *supergizon* gisa irudikatzen dituzte. “*Super* nagusitasuna ezaugarri goren gisa hartuta, eta *gizon*, nagusitasun hori genero maskulinoari dagoelako zuzenki lotuta” (Pedraza, 2012:48).

Kirolarien generoa dena dela, eta albisteek lantzen duten kirola dena dela, kirol albisteek tratatzen duten gai nagusia lehia da; hots, lehiaketak edo txapelketak (Martinez, Lasarte, Gamito eta Vizcarra, 2020; Sainz de Baranda, 2013:170).

Horiek horrela, hedabideetako kirol programazioa maskulino eta androzentriko gisa deskribatzen dute Martinezek, Lasartek, Gamitok eta Vizcarrak (2020) haien ikerketan, eta zera nabarmentzen dute:

Kirol programazioan ezartzen diren joko-arauek gizonen kirola ikusarazten laguntzen dute. Beraz, gizonen kirolaren nagusitasuna bultzatzen duen ageriko botere bat dago. Botere hori ezkutuko botere gisa ere agertzen da, eta menpeko ahotsak ikusezin bihurtzen ditu, kirol programaren desinformazioaren edo hautaketaren bidez; izan ere, ia ez dute tokirik izaten, kirol programazioa kirol bakar batean zentralizatuta baitago: futbolearen. (11 or.)

Arestian aipatutakoa gogora ekarriz, kirola maskulinitate hegemonikoa erreproduzitzeko erakunde eta espazioa da (Diez, 2006; Pedraza, 2012). Eta kirola horrela identifikatzeak, erre-presentatzeak eta erreproduzitzeak, kirol programazioa egiterako orduan desberdintasunak eragiten ditu (Pedraza, 2012:48). Argi eta garbi ikusten da kirol espazio gehienak gizonari dardela zuzenduta, eta emakumezkoen kirolari buruzko informazioa, berriz, azpiratu egiten dela: “Denbora eta espazioa soberan badaude, emakumeei buruz hitz egiten da, nahiz eta ahalegin bera egin edota emaitza berberak lortu (edo gainditu)” (Pedraza, 2012:54).

Horiek horrela, emakume bati kirol lehiaketa bat irabazteak –dena delakoa, oso garrantzitsua bada ere– ez dio bermatzen hedabide batean ikusgarritasuna izango duenik lorpen horrengatik. Are, batzuetan, kirolarekin zerikusirik ez duten beste jarduera batzuegatik interes handiagoa erakarriko du (Sainz de Baranda, 2013:344). Horrez gain, gizon kirolarien kasuan, beti aipatzen dira lehenengo beraien lorpenak, eta beranduago, agian, kirolarekin zerikusirik ez duen zerbit. Emakumeen kasuan, ordea, ez da beti gauza bera gertatzen: euren ibilbideari buruzko iruzkin ez oso profesionalak eta oso estereotipatuak egiten dituzte, kirolarekin zerikusia duen horri balioa kentzen diote (Martinez, Lasarte, Gamito eta Vizcarra, 2020:8).

Emakume kirolarien artean ere badaude hierarkiak, eta hor ere ikusten da futbolaren nagusitasuna: “Kirol prentsan emakumeak protagonista direnean, formatu maskulinoa errepikatzen da; gizonezkoen kasuan futbolak denbora gehien hartzen badu, emakumezkoen kasuan ere futbolariak dira minutu gehien dituztenak” (Martinez, Lasarte, Gamito eta Vizcarra, 2020:10).

Hori da, beraz, gaur egungo errealitatea: egunkarietako kirol programazioa androzentrikoa da, eta batez ere futbolekin oinarritzen da. Emakumeek programazio horretan duten presentzia, beraz, ez da oso handia, eta hori ez da izaten ausazko kontua; aldeaz aurretik pentsatutako erabakia izaten da, hedabideek egunero egiten baitute programazioaren antolaketa, eta erabaki egiten dute albiste bakoitza zein ordenatan agertuko den eta zenbat espazio eskainiko zaion. Prentsan ez agertzea hedabide jakin batzuen ezaugarrien eraginez gertatzen da: batetik, hedabide horiek “emakumeen kirola eta euren lorpenak ikusezin bihurtzeko duten asmoaren eraginez”; bestetik, futbolaren presentzia orokortuaren eraginez; eta, azkenik, emakume kirolarien garaipenei baino garrantzia handiagoa ematen dietelako gizonezkoen beste edozein albisteri (Martinez, Lasarte, Gamito eta Vizcarra, 2020:9).

Ilido horretan, kirolean eta kirol kazetaritzan dagoen gizonen eta maskulinitatearen nagusitasun horri erreparatzen dio Claudia Ivette Pedrazak (2012), emakumeen bazterketaren arrazoiak azalerratz:

Kirol kazetaritza zer baldintzatan egiten den aztertzen denean, ez da zaila pentsatzea zergatik eusten dion kirolaren errepresentazioak emakumeen eskusioari: gehien-gehienean gizonak (gizon kazetariak) beste gizon batzuei buruz hitz egiten dute (gizon kirolariak), beste gizon batzuentzat (gizon irakurleentzat). Hau da, logika baztertzaila hori kirol kazetaritzara ere iristen da. (55 or.)

Jasandako bazterkerian eta horren arrazoietan ez ezik, emakumeek kirol kazetaritzan sartzeko eta bertan parte hartzeko zailtasunetan ere aurkitu ditu Pedrazak (2012:47) antzekotasunak kirol munduarekin. Horrela, biek ala biek kendu diete balioa emakumeei, biek ala biek erabili eta indartu dituzte estereotipoak, eta biek ala biek erabili dute emakumeekiko menpekotasuna. “Emakume kazetariari esatari edo aurkezle izatea ukatu zaie, emakume batek kirol munduan ulermen txikiagoa duela pentsatzeagatik” (Pedraza 2012:58).

Hala, kazetaritza –kirola bezalaxe–, generoaren araberrako bazterketa edo eskusio eremu bihurtu da, gizonei espazio publikoa eta horrekin zerikusia duen guzti-guztia esleitu zaielako; hots, hori sortzeko eta okupatzeko aukera eman zaielako (Pedraza 2012:55). Emakumeek kazetaritzaren bitartez espazio horretara sartu nahi dutenean, baina, espazio sinboliko batera ere sartzeko ahalegina egiten dute: kirolera, hain zuzen. Eta horrek, zailtasun bat gehiago jartzen die emakumeei, kirol kazetaritza emakumeentzat bazterketa bikoitzeko gune bihurtuz (Pedraza 2012:57).

Gai horretan gehiago sakontzen du ikerlariak:

Kirol kazetaritzan ematen diren lan arloko desberdintasun baldintzak emakumeen kirolaren errepresentazioa mugatzen duten kausal berberetan sortzen dira: garrantzi txikiagoa ematen zaio haien lanari (hau da, emakume gutxi daude editorial zuzendaritza edo produkzioko postuetan); diziplina jakin batzuekin lotzen dira (kirol “sua-beagoak” esleitzen zaizkie: gimnasia, tenisa, patinajea), eta, normalean, atrakzio objektutzat hartzen dituzte (hau da, kameraren aurrean ateratzen dira baldintza jakin batzuk betetzen badituzte). (Pedraza 2012:57)

“Atrakzio objektu” kontzeptu horri tiraka, Pedrazak azaltzen du (2012:58) kirol kazetaritzak emakumeek esatari lanetara izan duten sarrera baldintzatu duela, lanpostu horiek eskuratu ahal izateko, emakumeek “edertasun idealak” bete behar izaten baitituzte. “Esatariak ideal horiek erreproduzitzera baldintzatzeak kazetari horien jardun profesionala murrizten du, ez baita haien gaitasuna lehenesten, haien edertasuna baizik” (Pedraza, 2012:58).

Kazetaritza munduan, ardura eta erabaki postu gehienak gizonek okupatzen dituzte, eta horrek zaildu egiten du emakume kazetariak mezuak sortzeko prozesuetan eragitea: “Produktzio prozesuetako erabakietan gizonezkoek duten nagusitasun horrek eragiten du kirol edukia genero maskulinoarentzat diseinatutako espazio batean zabaltzea: emakumeen ahotsak baztertuta gelditzen dira” (Pedraza 2012:59).

Egoera horren aurrean, eta emakume kazetarien zein kirolarien presentzia areagotzeko, Martinez, Lasarte, Gamito eta Vizcarra autoreek proposatzen dute, besteak beste, hedabideekin zerikusia duten enpresetan emakumeak erabaki postuetan sar daitezela bultzatzea, hedabideak ikuskatzeko zentroak sortzea, eta genero ikuspegia kazetarien prestakuntzan sartzea (Martinez, Lasarte, Gamito eta Vizcarra, 2020:3).

Zailtasunak zailtasun, eta gutxi badira ere, argi dago egon badaudela emakumeak kirol kazetaritzan, badaude emakume kazetariak, eta euren presentziak praktika diskurtsibo bat eratzten du. Praktika horrekin, emakumeek komunikatzeko eskubidea lortu dezakete, horrela, kirol kazetaritzan nagusitzen den genero hierarkia hausteko eta eraldatzeko (Pedraza 2012:47): “Maskulinitate hegemonikoaren ereduak inposatu duenetik harago, kirolaren beste errepresentazio bat eraikitze aukera dute”.

3.3.1.1. Emakume kirolariak eta prentsa: Presentzia handiagoa, diskurtso beretik

“Ez gara existitzen. Ez hedabideetan, ezta federazioetako lehendakaritzetan ere. Espainian, kirolean dagoen kristalezko sabaia zementuzko armazoi bat da, patriarkatu askoz eta emakumeak baztertuak izan garen eremuz osatua” (Mas, 2019:188, Martinez, Lasarte, Gamito eta Vizcarra, 2020:3n aipatua).

Hedabideen antolaketak eta hierarkizazioak, beraz, badute zerikusia emakume kirolariak prentsan duten espazio eta errepresentazioarekin, eta, era berean, horrek baldintzatzen du audientziak eremu horri buruz duen pertzepzioa (Pedraza 2012:61). Izan ere, hedabideek, eta, zehazki, kirol kazetaritzak, alde batera uzten dituzte emakumeek kirolean duten parte hartzeari buruzko alderdi batzuk, eta horrek eragin zuzena du publikoan; irakurleek emakume kirolariak baloratzeko orduan, hain zuzen (Sainz de Baranda, 2013:107).

Futbolaren eta gizonen nagusitasun orokortu horretatik harago, badaude oasi momentuak kirol prentsan, eta horietan ikusten da egoera pixkanaka aldatzen joan dela azken urteotan, eta, aurrera begira ere, badirudi egoerak hobera egiteko aukerak daudela (Martinez, Lasarte, Gamito eta Vizcarra, 2020:10). Hala, goi mailako emakume kirolariak joan dira apurka-apurka kirol programazioan beren espazioa hartzen, eta, horrekin batera, ikusgarritasuna lortzen, betiere “emakumeek izan duten antolaketari, eta egin duten ahalduntzeari eta borrokari esker” (Martinez, Lasarte, Gamito eta Vizcarra, 2020:2).

Ikusgarritasun horretan, Olinpiar Jokoek ere izan dute nolabaiteko eragina: Martinezen, Lasarteren, Gamitoren eta Vizcarraren (2020:10) ikerketaren arabera, kirol programazioak ekitaldi horretan izaten du bere unerik adierazgarriena; izan ere, Jokoek irauten duten bitartean, normalean baino kirol programazioko ordu gehiago daude, kirolen jarraipen handiagoa eta zehatzagoa egiten da, eta kirol aukera handiagoa dago. Aztertutakoaren arabera, Jokoak “inflexio puntu bat” dira, eta onuragarriak izan daitezke emakume kirolarientzat; izan ere, Olinpiar Jokoetako final batera iritsi eta bertan dominaren bat lortzeko lehiatzeak etorkizunerako kirol horren jarraipena errazten du, eta, kasu batzuetan, protagonistak figura mediatiko bihurtzen ditu.

Horiek horrela, gaur egun, gero eta ohikoagoa da emakumeak aurkitzea –protagonista zein informazio emaille gisa– edozein egunkaritan, telebistako albistegitan edota webgunetan (Pedraza 2012:53). Emakumeen kirolaren ustezko presentzia horrek, ordea, ez du esan nahi emakumeek kirol esparru desberdinetan egiten duten jardunari benetan ematen zaiola jardun horrek duen pisua, aintzatespena eta garrantzia (Pedraza 2012; Martinez, Lasarte, Gamito eta Vizcarra, 2020): “Informazio aukeraketan emakumeei edo emakumeen presentziari buruzko albiste gehiago egoteak ez du esan nahi, nahitaez, presentzia horiek kontatzeko erabiltzen den ikuspegiak edo diskurtsoak kulturalki errotuta dagoen diskurtso androzentrikoa aldatu dutenik, ezta kazetariak emakumeak direnean ere” (Dader, 2000: 24 Pedraza 2012:53n aipatua).

3.3.1.1.1. Emakume kirolarien trataera: Albiste informatiboak, laburrak eta orokorrak

Emakume kirolariak egunkarietan gero eta gehiagotan agertzen dira, bai, baina gizonak baino gutxiago agertzen dira. Espazioa, protagonismoa eta ahotsa ematen zaienean, nola irudikatzen dituzte hedabideek emakume kirolari horiek? Zein da ematen zaien trataera?

Orokorrean, emakume kirolariak patroi jakin batzuk jarraituz agertzen dira hedabideetan. Informazioa¹⁰ da nagusitzen den kazetaritza generoa (Sainz de Baranda, 2013:245), eta, horren

¹⁰ Albiste informatiboek gertakizun bati buruzko oinarrizko informazioa ematen dute.

barruan, gero eta gehiago dira albiste laburrak, iritzi artikulatuak, emaitzen taulak eta errepor-tajeak¹¹ –azken hauek oso gutxi areagotu dira–. Horren kontrara, gutxitu egin dira albiste lu-zeak, kronikak¹² –beherakada handiena izan dutenak–, elkarrizketak, fotonotiziak¹³ eta bes-telakoak (Sainz de Baranda, 2013:247).

Horiek horrela, egunkariak ez dituzte oso luze eta zabal ematen emakume kirolariei buruzko albisteak, modu orokor eta motzean baizik: laburrak dira gehien-gehienetan (Sainz de Ba-randa, 2013:245; Labaka, 2016:37). Labur horietan agertzen dena lehiaketetako emaitzak izaten dira (Pedraza 2012:54).

Horrez gain, maiz, albisteak aurkitzeko zailtasunak egoten dira: “Testuan batzuetan azken lerroetan edo era oso laburrean ageri dira emakume kirolarien albisteak eta beste batzuetan ez da emakumezkoen kirolari buruzko informaziorik ageri” (Labaka, 2016:39). Agertzen de-nean, gainera, gizonezkoen informazioaren ondoren agertu ohi da, eta, sarri, horien informa-zioaren osagarri gisa (Labaka, 2016:41). Deigarria da, gainera, emakumeek praktikatzen du-ten kirolaren ondoren *femenino* hitza agertzen dela, eta gizonen kasuan, ez dela *maskulino* jartzen (Labaka, 2016:48); hau da, futbola hartuz gero, “emakumezkoen futbola” edo “futbol femeninoa” agertu ohi da, eta gizonezkoen kasuan, ez da “futbol maskulinoa” edo “gizonez-koen futbola” zehazten.

Albisteetako gai nagusia lehia izaten da: “Ezin da zalantzan jarri emakumeek ia ez dituztela klubak entrenatzen edo zuzentzen, eta ez direla federazioetako edo batzordeetako kide ere; halaber, ez da ohikoa emakume epaileei buruzko informazioa ematea” (Sainz de Baranda, 2013:345).

Titularrak ere badira elementu deigarri bat emakume kirolarien trataera aztertzerako orduan. Titularrek, berez, hiru funtzio nagusi dituzte: batetik, informatzea; bestetik, irakurlea erakar-tzea; eta, azkenik, emandako informazio hori beste batzuetatik identifikatzea eta bereiztea (Sainz de Baranda, 2013:159).

¹¹ Erreportajeek gaia gaurkotasunetik harago lantzen dute, sakontasun gehiagorekin, gertaeren non-dik-norakoak hobeto ulertzeko. Hala ere, gaia ez dago beti gaurkotasunarekin lotua. Elkarrizketa za-tiak agertu ohi dira, eta idazkera literarioagoa izan daiteke (Berria, d.g.b).

¹² Kroniketan gertaera bati buruzko kontakizuna egiten da, horren lekukotza zuzena eskainiz. Idaz-kerak pertsonala izaten dute, eta gertatutakoa azaldu eta eztertzen da (Berria, d.g.b).

¹³ Fotonotizietan albistea bera argazki bat da, eta hori azaltzeko argazki oina bakarrik erabiltzen da. Hau da, albiste horrek ez du testurik.

Tituluetan ere gizonen ahotsa da nagusi: Espainiako Estatuko egunkari irakurrietan aipuak dituzten titularren %98,1 gizonen aipuak dira; %0,81, emakumeenak; eta %1,09, mistoak, hau da, gizonak eta emakumeak batera agertzen dira (Sainz de Baranda, 2013:159). Hori aipuren bat agertzen den kasuan gertatzen da; bestela, titular informatiboa denean –aipuak baino titulu mota ohikoagoa izaten da hau–, emakumeen kasuan, izen propioa nagusitzen da, abizena aipatu ere egin gabe. Orokorrean, baina, abizenarekin egiten zaie erreferentzia kirolariei, eta, hortaz, emakumeei izenarekin bakarrik erreferentzia egiteak haien profesionaltasuna “gutxietsiko” luke (Sainz de Baranda, 2013:159; Labaka, 2016:43).

Egunkarien barruko orrialdeetan agertzen dira emakumeak, eta titularrak, orokorrean, zutabe bateko luzera izaten dute (Sainz de Baranda, 2013:345): “Emakumeei ez zaie azalean agertzeko bezain besteko garrantzia ematen”.

Emakumeak albistearen protagonista direnean ere, gizonek hartzen dute garrantzi guztia; euren hartzen dute protagonismoa, emakumeen izenak aipatu ere egin gabe: *La hija de Ali debuta en el Ring* –Aliren alabak debuta egin du Ringeant– (Sainz de Baranda, 2013:214); *La admiradora de Nadal que ha destronado a Ledecy en los 400 libras* –400 libreetan Ledecy tronutik kendu duen Nadalen mireslea– (Martinez, 2021ko uztailak 26)...

Emakumeak agertzen direnean, bi profil markatu bereizten dira: gonbidatuak eta kirol arloaren parte direnak, hurrenez hurren. Gonbidatuak kirol arlokoak ez diren emakumeak dira –gero eta gehiagotan agertzen dira–: famatu edo ospetsuak, gobernuko funtzionario eta politikariak, hedabideetako profesionalak, osasun zientzietako profesionalak, senideak... Kirol arlokoak direnak, ordea, kirolariak, taldekoak, lantalde teknikoak, batzordetako eta federazioetako kideak, klubetako zuzendariak eta erretiratutako ospetsuak edota kirolariak izaten dira, eta, orokorrean hauek izaten dira kirol albisteetako protagonistak (Sainz de Baranda, 2013:190-191).

Egunkarietako albisteen kokapenari erreparatuz gero, emakume gonbidatuak kirol arloko emakumeek baino kokapen hobea izaten dute. Kontrazalean agertzen dira alderik nabarmenenak: kirol arlokoak kasuen %36,59ean agertzen dira; gonbidatuak, aldiz, %63,41ean (Sainz de Baranda, 2013:257).

Trataerari dagokionez, kirol arloko protagonistak edo beren ekintzak arrakastarekin lotzen dira kasuen %66,35ean, eta porrotarekin kasuen %11,5ean. Heroi gisa edo ekintza heroikoe-tan albisteen %0,53ean agertu dira, eta etsipenari lotutako berrietan, kasuen %0,25ean (Sainz de Baranda, 2013:203).

Egunkarietako berriek, gehigarriak izaten dituzte sarri, albistek modu grafikoan edota literarioan osatzeko. Emakumeak protagonista direnean, baina, ez da hain ohikoa gehigarriak erabiltzea; hala, gehien erabiltzen den euskarria argazkia da, eta gutxien erabiltzen dena, infografia (Sainz de Baranda, 2013:295). Berriak gero eta bisualagoak egiten saiatzen direla kontuan hartuta, zera nabarmentzen du Sainz de Barandak (2013:297): “Gehigarriak minimizatuz, emakumeen informazioa ere minimizatzen da, batez ere kirol eremukoarekin lotuta dagoena; eta, hala, albistek informazio ohar bihurtzen dira”.

Azkenik, egileari dagokionez, ez dago loturarik kazetariaren generoaren eta albistearen protagonistaren generoen artean; hau da, emakumeek ez dute gizonen baino gehiago idazten emakumeei buruz (Sainz de Baranda, 2013:396).

3.3.1.1.2. Kirolarien irudia, estereotipoz josia

Emakume kirolarien inguruan zer irudi transmititzen den aztertzean ere ezberdintasunak aurkitu daitezke gizonetik: estereotipoen arabera irudikapena egiten dute. Horrela, “hedabideek emakume kirolarien jarduerak minimizatzen dituzte, ez baitiete gizonen atletei ematen dieten enfasi bera ematen” (Pedraza, 2012:54). Horiek horrela, emakumeei eta gizonen buruzko estereotipoak indartzen dituzten albistek horiek zalantzan jartzen edo deuseztatzen dituztenak baino gehiago dira (Sainz de Baranda, 2013:365).

Ez dira adjektibo berdinak erabiltzen gizonen eta emakumeei buruz hitz egiterako orduan. Gizonen kasuan indarrarekin edo kontrolarekin lotutakoak erabiltzen dituzte, eta emakumeen kasuan, horien kontrakoak: beraien gabezia azalera dutenak, emakumeak deskalifikatuz edo gutxietsiz. Horrela, hiru dira emakumeei buruz egiten diren errepresentazio nagusiak: etxeko rola mugatzen direnak, objektu estetiko bihurtzen dituztenak, eta gizonen ezaugarriekin lotzen dituztenak (Pedraza, 2012:54).

Etxeko rolak duen garrantzia handia da: emakumeek ama, emazte eta etxekoandre onak izan behar izan dute, baita kirolari izateko ere. Hau da, kirolean arrakasta eta merezimendua lorzeko, ezin dute beren rol tradizionala alde batera utzi (Pedraza, 2012:54; Sainz de Baranda, 2013:107).

Horrekin lotuta daude emakumeen kasuan gaur egun ere familia egoera edo harremanei buruz egiten diren aipamenak –batez ere ama edo emaztearen rola nabarmentzen da–; izan ere, emakumeak gehiago identifikatzen eta lotzen dira familia harremanekin: gizonak baino lau aldiz gehiago, hain zuzen (Hasan eta Gil, 2014). Errepresentazio horren adibide argia da Maialen Chourraut piraguitaren kasua (Lasarte-Oria, Gipuzkoa, 1983): *Maialen Chourraut, una madre de oro* (Rivera, 2016ko abuztuak 11) –Maialen Chourraut, urrezko ama bat–, edota *Maialen Chourraut, la madre más brava* (Marcos, 2021ko uztailak 27) –Maialen Chourraut, ama ausartena–.

Hizkuntzaren erabilerarekin ez ezik, argazkien bitartez ere sustatzen eta erreproduzitzen dira estereotipoak. Hala ere, nagusitu egiten dira estereotiporik transmititzen ez duten argazkiak, eta estereotipoak indartzen diren horietan, kirol arlokoak baino, gonbidatuak gehiago agertzen dira (Sainz de Baranda, 2013:380). Horrez gain, ohikoagoa da emakumeak kirol lehiaketan edo praktikan baino jarrera pasiboan edo argazkirako posatzen agertzea (Labaka, 2016:42).

Edertasunaren estereotipoa da hedabideetan gehien agertzen dena (Labaka, 2016:24). Hala, kirolariak objektu estetiko bihurtzen dituzte, eta horrela errepresentatzeak eragin du kirolariak euren kirolean arrakasta izateaz gain, karisma, edertasuna eta edertasun kanon guztiak betetzea ere exijitzen zaiela, modelo edota aktore lanak egiteko (Pedraza, 2012:54). Izan ere, hainbat hedabidek emakumeen irudia erabiltzen dute ikusle edota irakurle maskulinoak erakartzeko, eta ez kirolari horien garaipenak edo historia ezagutzera eramateko: “Ekoizleek onartzen dute kirol-audientzia emakumeen kirolari buruz askorik jakin nahi ez duten baina eremu horretan agertzen diren emakumez gozatzen duten gizon heterosexualek soilik osatzen dutela” (Pedraza, 2012:54).

Horrez gain, kirolean nabarmentzen diren emakumeei, askotan, gizonen ezaugarriak esleitzen zaizkie, eta hala, kirolari horiek balioa galtzen dute: “Baten bat nabarmentzen bada, gizonak bezala jokatzeko duelako da, gizonak bezala jotzeko duelako, gizonak bezala korritzeko duelako” (Pedraza, 2012:55).

Orain arte aipatutakoak hedabideetan egiten den trataeraren eta transmititzen den irudiaren zertzelada orokor batzuk badira ere, aipatzekoa da emakume kirolarien trataera desberdina eta aldakorra izan daitekeela hedabide eta egunkariaren arabera (Labaka, 2016:49), bakoitzak markatzen dituelako zeintzuk diren jarraituko dituen irizpideak.

3.3.2. Kazetaritza feminista eta ondo komunikatzearen garrantzia

Aurretik aipatu bezala, kazetaritzaren molde tradizionalak barrutik, erredakzioetatik bertatik, irauli daitezke, besteak beste, parekideagoak izango diren diskurtso, trataera eta irudiak eraiki ahal izateko. Bide horretan, kazetaritza feministak edo genero kazetaritzak funtsezko rola betetzen du: batetik, aldeztu aurretik ezarritako ordena hausten du, eta, bestetik, aldaketa garrantzitsuak eragiten ditu kazetaritzan bertan (Hasan eta Gil, 2014:42).

Zehatzago eta adibide argiagoez azalduta, kazetaritza feministak jada lagundu du, besteak beste, agenda feminista hedabideen agendan finkatzen, eta kazetaritza praktika jakin batzuk garatzen. Praktika horiekin desnaturalizatu egiten dute kazetarien ustezko zeregin neutroa, albisteak genero ikuspuntu batetik sortzen dituzte, eta kritika feminista egiten diete hedabideei ikuspuntu politiko batetik (Hasan eta Gil, 2014:44).

Valeria F. Hasan eta Ana Soledad Gilen arabera (2014:45), genero ikuspegia zuten lehen kazetari-sareak 90. hamarkada hasieran eratu ziren, albiste agentziekin lotuta zeuden elkartemodu gisa. Garai horretan –1995ean, zehazki– egin zen Emakumeen IV. Munduko Konferentzia; Pekinen (Txina). Edizio horretan, “emakumeak eta hedabideak” gaia hartu zuten oinarri gisa, eta, bertan egindako aitortzan nabarmendu zuten zein garrantzitsua den hedabideetan emakumeen irudi orekatu eta ez estereotipatuak zabaltzea (Sainz de Baranda, 2013:9); izan ere, konferentzia horretan, hedabideak genero arteko berdintasuna lortzeko lehentasunezko sektore gisa identifikatu zituzten (Hasan eta Gil, 2014; Sainz de Baranda, 2013).

Une horretatik aurrera, eta bertan esandakoa kontuan hartuta, sortu dira hainbat eta hainbat eztabaida-foro, posta-zerrenda, informazio-atari, zenbait kolektiboren gune... Geroago, eta konferentzian ardaztutako ideia eta helburuei jarraituz, eratu dira albiste agentziak, blogak, aldizkariak, online irratiak, egunkari feministak, kazetari espezializatuen profilak zituzten sare sozialak... (Hasan eta Gil, 2014:45).

Talde, sare eta kolektibo horiek sortzeko arrazoi nagusietako bat izan zen, besteak beste, esperientziak konpartitzeko espazioak edukitzea eta hedabide masiboetan eta agenda publikoetan eragiteko espazio bat eratzea, mugimendu feministaren agenda politikoa txertatuz (Hasan eta Gil, 2014:45).

Horiek horrela, sare horiek tentu handiz aukeratzen dituzte euren gai eta protagonistak: gaiak genero ikuspegitik lantzen dituzte, gaiaren aukeraketatik bertatik hasita; hedabide handietan ez dauden gai eta errealitateei ahotsa ematen diete; emakumeak informazioko eta komunikazioko subjektu gisa aurkezteaz eta nabarmentzeaz arduratzen dira... (Hasan eta Gil, 2014:50). Aldaketa testuinguru honetan, “emakume kirolariak beren narratibaren subjektu bihurtzen dira eta emakumeen kirola ikusarazten dute” (Martinez, Lasarte, Gamito eta Vizcarrá, 2020:6).

Erabilitako hizkuntzari ere ematen dio garrantzia kazetaritza feministak. Izan ere, bereziki emakumeekin lotuta dauden gaiak desberdintasunetik eta sexismotik lantzeak ondorio larriak ekar ditzake (Hasan eta Gil, 2014:46), hedabideek gure egunerokoan daukaten eraginaren ondorioz.

Hizkuntzak lagundu dezake gizartearen egitura hierarkiko eta desorekatuak bere horretan iraun dezan, baina kontrako lana ere egin dezake: errealitatea aldatzen lagundu dezake. Bide horretan, hedabideen betebeharra da hizkuntza ez sexista erabiltzea. Espainiako Estatuko Berdintasunerako Lege Organikoan eta EAeko Berdintasun Legean, esaterako, jasotzen da instituzio publikoek hizkuntza ez sexista erabili behar dutela (Osa, 2018).

Hedabideetan orokorrean landu eta kontuan hartu behar den aspektua dira hizkuntza eta hizkera, baina bereziki aipagarria da kirol kazetaritzan, emakume kirolariei erreferentzia egite-rako orduan duten garrantzia: “Kirol hizkerak ez du emakumeak duen papera errespetatzen kirolean, eta, oro har, gizartean. Gainera, estereotipo maskulino eta femeninoen presentzia amaiezina da, zeinetan lengoai sexista etengabea den” (Labaka, 2016:25).

Kazetaritza feministaren bitartez, eta, beraz, gaiak, protagonistak edota erabiliko den hizkuntza modu kontzientean hautatzearen bitartez, argi dago badaudela gaur egungo kazetaritza programazio hegemonikoari aurre egiteko alternatibak; badagoela hasita kazetaritza parekideago bat egiteko bidea. Funtsean, pixkanaka bada ere, badago aldaketarako aukera.

4. Emakume arraunlarien presentziaren eta trataeraren diagnostikoa *Berría* eta *El Diario Vasco* egunkarietan

Berría eta *El Diario Vasco* egunkariak 2018tik 2022ra bitartean emakumeen traineru estropadei ematen dieten espazioa eta trataera zein izan den aztertu da, edukien analisiaren bitartez. Atal honetan, analisisian lortutako emaitzak aztertuko dira, hiru zatitan banaturik: alde batetik, presentziari lotutako emaitzak, bestetik, trataerari lotutako emaitzak, eta, azkenik, gizonen eta emakumeen trataeraren konparaketaren emaitzak.

Atal bakoitzean, lehenengo *Berría* egunkariaren azterketatik ateratako emaitzak aztertuko dira; ondoren, *El Diario Vasco* egunkaritik ateratakoak, eta, amaitzeko, bi egunkarien alde-raketa egingo da.

4.1. Presentziari lotutako emaitzak

Traineru estropadetan aritzen diren emakumeek egunkarietan duten presentzia nolakoa den aztertzeko, lehenengo, egunkarietan duten presentziari erreparatuko zaio. Horretarako, agertzen diren albiste kopurua kontuan hartuko da, eta emakumeak ageri diren albisteen ezaugarriak azalerratu dira. Ondoren, espazioaren banaketari dagozkion datuak aztertuko dira: emakume arraunlariak zenbat espazio okupatzen duten, zutabe kopuruari erreparatuta. Horren ondoren, albistek nork idazten dituen ikusiko da, eta, azkenik, agertzen diren argazkiei erreparatuko zaie.

4.1.1. Emakume kirolarien presentzia: la erdia, nagusiak eta informatiboak

Emakume arraunlariak idatzizko prentsan duten presentziari erreparatzean, ikus daiteke, orokorrean, datuek beheranzko joera dutela. *Berría* egunkarian, zehazki, 2018tik 2022ra dagoen beherakada nabarmena da, 7. taulan azaltzen den bezala. Datuak urtetik urtera aztertuta, 2018tik 2020ra bitartean, gutxitu egiten dira traineru estropadei buruzko albistek –gizonenak eta emakumeenak, orokorrean–, beherakada hori oso esanguratsua ez den arren: aztertutako lehenengo urtean 114 ziren, 2020an 89 eta 2022an 81 (6. taulan). 2018. urtetik 2020. urtera bitartean datuak aldatu egiten diren arren, aldaera horiek ez dira bereziki esanguratsuak, al-daketa txikiak direlako.

Traineru estropadei buruzko albiste kopurua jaistearren arrazoia izan daiteke, besteak beste, 2018tik 2022ra bitartean *Berría* egunkariak gero eta gutxiagotan argitaratzen dituela ETE ligari

buruzko albisteak. Arestian aipatu bezala (ikusi 3.2.1.1 *Emakumeak eta traineru estropadak: Mugarriak* atala), ETE liga 2018. urtean sortzen da, aurretik zeuden ligetako antolaketan aldatetako ezarritik, eta izan daiteke berrikuntza horren eraginez bigarren mailako liga 2020 eta 2022 urteetan baino gehiago landu izana. Gizonezkoen bigarren mailako liga –KAE 1 eta KAE 2– ere gutxiagotan landu zen 2022. urtean, KAE eta ETE ligak artikulua labur eta aipamenetara mugatuz.

2020. urtean traineru estropadei buruzko albisteei behera egiten duten arren, gora egiten dute kirol horretan emakumeak protagonista diren albisteak, eta 2018an zein 2020an, arraunari buruzko albisteen erdietan baino gehiago agertzen dira emakumeak protagonista¹⁴ modura, 2020an gorakada txiki bat izanik. 2018an, esaterako, arraunari buruzko albisteen %53,5ean –hau da, 114tik 61 albistetan– emakumeak dira protagonista, eta 2020an, albisteen %61,79an –89 albistetik 55etan–.

Goranzko joera hori, ordea, ez da urteetan zehar mantentzen (ikusi 7. taula), eta 2022. urtean datuek beherakada esanguratsu bat jasaten dute: emakumeen presentziak nabarmen egiten du behera. Guzti horrela, 2022an, %39ra ere ez dira iristen emakumeak protagonista dituzten albisteak. Zehazki, traineru estropadei buruzko albisteen %38,27an dira emakumeak protagonista –81 albisteetatik 31 albistetan–.

Emakumeak protagonista indibidual eta konpartitu diren albisteei dagokienez, 1. taulan ikus daiteke aztertutako hiru urteetan emakumeenak bakarrik diren albisteak nahiko antzeko mantentzen direla: 2018an %33,33 –114 albistetik 38tan–; 2020an %39,32 –89 albistetik 35etan– eta 2022an %35,8 –81etik 29tan–. Nabarmen aldatzen da, ordea, albiste mistoen presentzia: 2018 eta 2020 urteetan nahiko antzeko mantentzen dira, baina 2022an jaitsi egiten dira. Horrela, 2018an albiste guztien %20,17 (23 albiste) ziren mistoak, 2020an %22,47 (20 albiste), eta 2022an %2,47 (2 albiste).


Beraz, traineru estropaden albiste kopurua eta emakumeak protagonista diren albisteei behera egiten dute, eta, era berean, mantendu egiten dira emakumeak bakarrik agertzen diren albisteak, eta nabarmen jaitsi gizonak eta emakumeak protagonista konpartitu diren be-

¹⁴ Aztertutako kasuetan, emakume arraunlariak protagonista indibidual edo konpartitu izan daitezke; hau da, albistea emakumeena bakarrik izan daiteke, edo mistoa, gizonekin protagonismoa konpartituz.

riak. Albiste mistoen beherakada horrek, hortaz, eragina izan dezake emakumeak protagonista diren albisteen beherakadarekin: emakumeak protagonista indibidual diren berriak konstante mantentzen direlako.

1. taula:

Berria: Emakumeak protagonista diren albisteen osaera



Iturria: sorkuntza propioa

Emakumeak protagonista dituzten albistek hartzen duten espazioari erreparatuta, esan daiteke aztertutako albiste gehienak nagusiak izan direla: %42,95, hain zuzen. Albiste nagusietan, nahikoa presentzia ematen zaio egunkarien orrietan, eta albiste landuak dira, oro har. Beraz, orokorrean, esan daiteke *Berria* egunkarian albiste nagusietan emakume arraunlariak agertzen direla. Hala ere, hiru urteak kontuan hartuta, emakumeak protagonista dituzten albisteen erdia izatera ere ez dira iristen.

Albiste nagusien bilakaerari erreparatuta, hiru urteetan hori da gehien erabiltzen den albiste tamaina, baina, hala ere, urtetik urtera ez da konstante mantentzen (ikusi 8 taula): 2018an emakume arraunlariei buruzko albisteen erdiak dira nagusiak, baina 2020an behera egiten dute datuek, eta %34,54 izatera pasatzen dira. 2022an berriro ere gora egiten du albiste nagusien kopuruak %40,62ra iritsi arte.

Albisteen tamainarekin jarraituz, bigarren postuan orri osoko albisteak daude (%16,77), eta, ondoren, albiste laburrak (%14,76). Neurri txikiagoan agertzen dira orri bat baino gehiago duten baino bi orri baino gutxiago okupatzen duten albisteak (%11,40), gizonen albisteen barruan agertzen den emakumeei buruzko informazioa (%8,05), eta, azkenik, dobleak, hau da, bi orriko berriak (%3,35), eta bigarren mailako albisteak, hots, laburrak baino handiagoak baina nagusiak baino txikiagoak direnak (%3,35).

Datuak urtetik urtera aztertuz gero, ikertutako hiru urteetan nagusitzen dira albiste nagusiak, baina gainerakoetan aldaketak nabari dira erabilera kopuruan. Izan ere, 2018an bigarren albiste tamaina erabiliena albiste laburrak ziren (%17,7), baina 2020an laburrak hirugarren postura pasa ziren (%16,4). 2022an, aldiz, laugarren postuan egotera igaro ziren albiste laburrak (%6,3). Horrela, 2020an albiste nagusien ondoren gehien erabiltzen ziren albiste tamainak orri osokoak izatera pasa ziren (%18,2), eta neurri berean agertzen ziren albiste laburrak eta orri bat eta bi orriren arteko albisteak (%16,4). 2022. urteari dagokionez, bigarren tamaina erabiliena beste albiste baten barruan zeuden albisteak izan ziren (%21,9), horren ondoren orri osoko albisteak (%15,6), eta, laugarren postuan, laburrak (%15,54).

Ikusi bezala, urtetik urtera albiste nagusiak dira gehien erabilitako tamaina, emakumeak agertzen direnean presentzia nahiko garrantzitsua emanez. Hala ere, 2020. urtean, beherakada bat dute albiste nagusi kopuruek. Beherakada hori izan daiteke, bestek beste, orri bat baino gehiago baina bi orri baino gutxiago okupatzen duten albisteek gora egiten dutelako –2018an emakumeak agertzen ziren albisteen %8,06 izatetik 2020an %16,36 izatera pasa ziren–. Bigarren postuan gehien erabiltzen diren albiste tamainak, ordea, ez du bilakaera zehatzik; ez du patroiz zehatzik jarraitzen: bigarren postuan dauden albiste tamainak ez dira konstante mantentzen, eta ez dira gorantz edo beherantz joaten, joera bat jarraituz. Lehenengo gora egiten dute, orri osoa okupatuz, eta, gero, behera, eman dakioken espaziorik txikiena emanez; betiere albiste nagusiak lehenengo postuan mantenduz.

Aurrekoaren harira, esanguratsua da 2022. urtean hazi egiten dela beste albiste baten barruan kokatzen den emakumeei buruzko informazioa, eta horrek lotura zuzena du albiste mistoen beherakadarekin. Izan ere, albiste mistoak ia desagertu egiten dira 2022an, baina gehiagotan agertzen da emakumeei buruzko informazioa gizonen albisteen barruan. Hori bi modu-

tara eman da gehienbat: batetik, gizonen albistearen bukaeran agertzen dira emakumeei buruzkoak, oso labur, eta, gehienetan, ladillo edo tarteki¹⁵ baten ondoren, gehienetan emakumei buruzko informazioa azken paragrafoa mugatuz (1 irudia). Eta, bestetik, gizonen albistearen barruan dauden despiezeen¹⁶ bitartez (2 irudia). Hau da, albistea gizoni buruzkoa da, baina emakumeen informazioa txertatzeko, gehigarri bat jartzen diote albisteari: berri horren barruan kokatzen den albiste labur eta txiki bat.

Albiste mistoak jaisteak eta emakumeak beste albiste barruan agertzen diren albiste kopurua igotzeak lotura du emakumeak protagonista dituzten albisteen beherakadarekin. Izan ere, horrek guztiak nabarmentzen du 2022an gizoni buruzkoak bakarrik ziren albisteek gora egin zutela. Era berean, esan daiteke 2020. urtean izan zutela emakumeek protagonismo handien: gora egin zuten emakume arraunlariak protagonista ziren albisteeak, eta albiste tamaina erabilienak nagusiak eta orri osokoak izan ziren.

¹⁵ Ladillo edo tartekiak paragrafoen artean idazten diren titulu txikiak dira, gainontzeko testutik nabarmentzen direnak. Testuei airea emateko eta datorrenari buruzko informazioa emateko balio dute.

¹⁶ Despiezeak albiste baten barruan agertzen diren albiste txikiak dira. Albiste nagusiarekin zerikusia duen informazioa jartzen da, horren osagarri moduan, eta informatiboak izaten dira.

1. irudia:

BERRIA
Asteartea, 2020ko uztailaren 14a

Arrauna

Kirola

21




BM Supermerkatuak, EUSKO LABEL LIGAKO babesle ofiziala.






Urdaibai Bihoko bandera ospatzen. ARGITZOLA/VOXI

SAILKAPENAK

EUSKO LABELLIGA

1. Urdaibai	77 puntu
2. Santurtzi	76 pt.
3. Donostiana	74 pt.
4. Orio	73 pt.
5. Hondarribia	66 pt.
6. Zierbena	59 pt.
7. Cabo	49 pt.
8. Isuntza	37 pt.
9. Ares	32 pt.
10. Ondarrea	32 pt.
11. Zarauz	28 pt.
12. Kaku	21 pt.

SAILKAPENA

1. Orio	30 puntu
2. Donostiana	24 pt.
3. Arraun	15 pt.
4. Hondarribia	14 pt.



ARRANPLATIK
Niko Iurrumendi

Donostiana bihoko arraunlaria

Nola aldatzen diren gauzak

H amasei urte arraunen ez diragutxi. Aldaketa handi bat nabaritu dut nire arraun gutxiatzen: lehen, gutxiago nituen erreleko estropadak, orain, aldiz, itsasokoak. Urteek zerbait ematen badate, arraunen egiteko segurtasuna ematen dute. Arrauneko urteetan, nire treinarua maila apuragokoa izanik, erreleko egiten zirean estropadetan nahikoa egonkor artzen zen. Baina itsasoaren datuak eta zailtasunak ageritu bezain pronto, ontziko mugimendua ere handituz joaten zen. Poldaren botan itsasoa jo, eta arraun gaitiki sartuz gero, hamengo polada ere ez zen aurrekoa baino hobea izaten, eta besolan hasten nintzen ziaratsunik esan agerian gelditzen zen.

Besolana deitzen diogun horiek erabat kondentatzen du arraunlaria. Hasken indarra eta gorputzaren pisua erabili beharrez, besoen indarra erabiltzen da. Besoen indarra amaitzen, ordea, erabat kontrolatzen bilakatzeko den erreminta bat izaten da arrauna. Horegatik, nahigogor nire erreleko estropadak.

Baina azken urteotako emaitzarik onenak itsasoen lortu ditut; eta, noski, emaitzek laguntzen dutenean, nobera ere gutxiago izaten da. Itsasoen bilibeten, talde erabiltzen dudan hitza jolastu da. Orain datuak, gero gutxiago sartu, orain arraunlariak sartu, gero gehiago sartu... eta larritasuna zera orain biltzeri? Bada, ni ere banako arraunlaria naiz.

Berritro ere gutxi hartzen duten erreleko estropadetan, hori besolan gaitiki dabilteza duen batek batzuetako memoria.

Eromenean, lider

H iru lagunak dago Eusko Label Liga aurtien lehen lau ontzien artean lau punturen alde dago. Larunbateko eta igandeko estropadetan, pentasetzako zen sailkapen orokorrean aldatzeko egongo zirela; Urdaibaik asteberria lehen postuan amaitzea, ordea, inoek gutxi espero zezakeen. Alain Kolunga Bou Bizkaitu ontziko arraunlaria pozik da bertutako sariarekin: «Ez gure neskeren lider izatea. Gure aldetik ere ez guren hain errendimendua ona espero, eta gutxiago lidergoa. Ez da hain onak hainbat punturen aldeari buelta ematea asteberri batean». Bihoko eta Lekeitioko estropadak jokatu baino lehenago, lagunen postuan zen Urdaibaik, Santurtzitik 11 puntura. 23 eskuatu, eta sailkapenaren buruan jaratea lortu zuten.

Ezin hobeto ekin zioten asteberriari. Bihoko urtean beste treinaruek baino lehenago gelditu zuten kronometroa. Erlojuaren aurkako proba irabazita, konfiantzar gauezka zesaden: «Larunbateko banderak poz handia eman zigun. Errekan egin ziren denbora onak ikusita, guk hori hobetu genuela ikusteak oso pozik jarri ginen».

Igandean iritsi zen triskantza. Hondarribiak lortu zuen Lekeitioko bandera, bigarren txandatik aterata. Ezustekorik handiena, baina, Santurtzi azken aurrean eta Orio zortzigarren geratzea izan zen. Bermeoko arraunlariak ez zuten espero horrelakorik geratzea: «Igandeko anekdotikoa izan zen. Ez da ohiakoa. Halere, hiru, lau, bost puntu gaitzea erraza da aurtengo. Ez ditzakete bost puntu seguro gutxiengatik».

Liga «inoiz baino irekiago ikusten da. Lehen lau sailkapen elkarrengandik puntu gutxi egon arren, Zierbena eta Hondarribia ere sasoi onen sumatzen dituzte. Aurtengo Eusko Label Liga irabazteko garaia konstante izatea da Bou Bizkaituko arraunlariarentzat: «Liga irabazteko

Arraun Lagunak, uretara

Eusko Label Ligan, berriz, Arraun Lagunak taldeko kide-guztiek negoziatzen eman dute Osakidetzak agindutako PCR probetan. Atzo arratsaldean, uretara bueltatu ziren, bi asteberri lehenago pasatu eta gero. Ostralean, Euskadiko Txapelketan parte hartzeko aukera izango dute.
















Oharra: irudi honetan, emakumeei buruzko informazioa gizonen albistearen barruan agertzen da, ladilloa eta gero, azkeneko paragrafoan.

2. irudia

Kirola

«Arrauna droga bezalakoa da»

Benigno Lojo • Cabo da Cruzeko arraunlaria

Bizitzia erdia baino gehiago darama arraunean: «Ez dagonean, haren falta sumutzen da», esan du. Asteburuan etxean arriko da, eta handik aritu da hangoaz eta hemengoaz, honetaz eta arikaz.

lehen jardunaldia jokatu da gaur

Oporren ostean, lanera

Reallean arituko da Bernabeu eta Alavesen Pintxo

Ribakina eta Jaburu Wimbledonko finalan, gaur

braskun Garciaik eta Kutzabank Araskin jarraituko

Oharra: irudi honetan, emakumeei buruzko albisteak despiezean agertzen da, bigarren orrian goitik jaisten den albiste horretan.


Pieza motari dagokionez, aztertutako hiru urtetan informatiboa nagusitu da, hau da, orokorrean, aztertutako piezen %40an, estropadei edo ligaren nondik norakoei buruzko informazioa izan da argitaratu dutena. Horren ondoren, gehien erabili duten kazetaritza generoa erreportajea izan da, eta kasuen %25,6an erabili da. Hurrengo analisia izan da, berrien %12,90ean erabili dena. Aipatzekoa da *Berria* egunkarian argitaratutako analisiak kirolariek idazten dituztela, ez kazetariak; horrela, emakumeek emakumeen ligari buruzko analisiak idazten dituzte, eta gizonek gizonen ligari buruzkoak. Analisisen ondoren, prebia da gehien erabiltzen dena (%12,25), hots, estropada jokatu aurretik argitaratzen dena, estropada horri begira. Prebiari elkarrizketak jarraitzen dio: %7,74ean erabili da; eta, azkenik, kronikak daude, kasuen %1,90ean erabili direnak (ikusi 2. taula).

Urtetik urtera datu horiek nahiko konstante mantendu dira, gehien erabilitako piezen ordena ezer gutxi aldatuz: 2018. urtean lehenengo hiru postuetan informatiboak, erreportajeak eta prebiak zeuden; eta 2020an eta 2022an informatiboak, erreportajeak eta analisiak. Beraz,

aldaketa hirugarren postu horretan nabari da, eta prebiak analisiengatik aldatzen dira, analisiek laugarren postua hartuz. Aztertutako hiru urteetan, gutxien erabiltzen dena kronika da. Gehien-gehienean, beraz, gertakariei buruzko informazioa ematen da, eta horrek, zerikusia du albisteen tamainarekin: albiste nagusiak eta hortik beherakoak –bigarren mailakoak, laburrak edo beste albisteen barruan agertzen direnak–, gehienetan, informatiboak izaten dira –edo prebiak–, eta, aipatu bezala, horiek dira gehien erabiltzen direnak: aztertutako hiru urteetan nagusiak dira erabilienak, eta, horren ondoren, 2018an laburrak, eta 2022an beste albisteen barruan agertzen direnak.

2. taula:

Berria: gehien erabili diren pieza motak



Iturria: sorkuntza propioa

El Diario Vasco egunkariari dagokionez, 2018 eta 2022 urte bitartean traineru estropadei buruz argitaratu diren albisteez aldaketa batzuk jasan dituzten arren, ez dira esanguratsuak izan, eta, beraz, datuak antzeko eta konstante mantendu dira aztertutako hiru urteetan. Horiek horrela, 2018tik gorakada txiki bat jasan dute albisteez, 232 izatetik 251 izatera pasata. 2022an, aldiz, behera egiten dute traineru estropadei buruzko berriez, 185 izanik (ikus 5. taula).

Aztertutako albiste horietan emakumeek duten presentziari erreparatuta, aldaketa txiki batzuk antzeman daitezke. Halere, ez dira esanguratsuak, eta esan daiteke datuak konstante mantentzen direla urtetik urtera. Horiek horrela, 2018an traineru estropadei buruzko albisteen

%43,97an emakumeak protagonista ziren –232 albistetatik 102tan–, 2020an albisteen %47,41ean –251tik 119tan– eta 2022an %43,78an –185etik 81etan–. Beraz, traineru estropadei buruzko albisteetan emakumeek urteetan zehar izan duten protagonismoa behin ere ez da iritsi erdia izatera, datuak beti hor inguruan egon arren, eta urtetik urtera presentzia kopuru hori konstante mantendu den arren. Presentziaren banaketa hori parekide izatetik gertuen 2020. urtean egon zen.


Emakumeak protagonista diren kasu guztietan gehiago dira emakumeak protagonista bakar diren berriak albiste mistoak baino, eta datu horiek mantendu egiten dira denboran zehar, 3. taulan ikus daitekeen bezala. Izan ere, 2018. urtean traineru estropadei buruzko albisteen %28,45ean emakumeak protagonista bakarrak ziren –232 albistetik 66etan–, 2020ean, aldiz, %27,49an –251etik 69tan–, eta 2022an, %26,49an –185etik 49tan–.

Albiste mistoei dagokienez, aldaketa txiki bat nabari da, nahiz eta ez izan oso esanguratsua: mistoek gora egiten dute 2020ean eta beherakada txiki bat jasaten dute 2022an. Hala ere, konstante mantentzen direla ikus daiteke: 2018an traineru estropadei buruzko albisteen %15,52 mistoak ziren –232tik 36–; 2020an, %19,92 –251etik 50–; eta 2022an %17,30 –185etik 32–.

El Diario Vasco egunkariak, beraz, orain arte aztertutako hiru aldagaiak konstante mantentzen ditu 2018tik 2022ra bitartean: batetik, antzeko mantentzen dira traineru estropadei buruzko albisteak; bestetik, konstante mantentzen dira traineru estropaden barruan emakumeak protagonista diren albisteak –%40tik gora aztertutako urte bakoitzean–; eta, azkenik, antzeko mantentzen dira emakumeak protagonista bakar eta protagonista konpartitu diren albisteak.

3. taula:

DV: Emakumeak protagonista diren albisten osaera



Iturria: sorkuntza propioa

Urteetan zehar mantentzen den joera konstante hori emakumeei ematen zaizkien albiste nagusi kopuruetan ere erreproduzitzen da. Hala, aztertutako hiru urteetan, emakumeei buruzkoak diren albisteetatik %30 inguru dira nagusiak (ikusi 7. taula). Hau da, traineru estropadei buruzko albisten erdia baino gutxiagotan agertzen ziren emakumeak protagonista moduan, eta agertzen ziren kasuen erdian baino gutxiagotan ematen zitzaaien presentzia nahikoa –ez da hain ohikoa *El Diario Vasco* egunkariak nagusiak baino handiagoak diren albiste tamainak erabiltzea–. Gauzak horrela, hiru urteak kontuan hartuta, albiste nagusiak dira gehien erabiltzen direnak: emakumeak protagonista diren albisten %30,80 nagusiak dira.

Orokorrean gehien erabilitako tamaina nagusia den arren, joera hori ez da aztertutako urte guztietan antzematen: 2018an gehien erabili zen albiste tamaina laburra izan zen; hau da, emakumeak protagonista zirenean, orokorrean, albiste motzetan agertzen ziren. Horrela, berrien %32,7a informazio laburraren bitartez argitaratu zen. Ondorengo bi urteetan, baina, bilakaera positiboa izan zuen horrek, eta 2020an eta 2022an gehien erabilitako tamaina nagusia izan zen.

Oro har, nagusien ondoren gehien erabiltzen den tamaina laburra da -27% ; albiste nagusi kopuruaren antzekoa ($30,80\%$), eta, gero, bigarren mailakoak ($23,53\%$). Urtetik urtera, baina, aldatu egiten da hurrenkera hori. Esate baterako, 2018. urtean, nagusia izan zen laburraren atzetik gehien erabili zen tamaina ($29,6\%$), eta, horren ondoren, bigarren mailako albistea ($24,5\%$). 2020an, ordea, albiste nagusia izan zen gehien erabili zena ($31,53\%$), gero bigarren mailako albistek ($25,22\%$), eta, horren ondoren, albiste laburrak ($24,32\%$). 2022. urtean ere nagusia izan zen gehien erabili zena ($31,64\%$), gero albiste laburrak ($24,05\%$), eta, ondoren, bigarren mailako albistek ($20,25\%$).

Horrez gain, aipatzekoa da aztertutako urte bakoitzean gutxien erabili dena izan dela beste albiste baten barruan agertzen diren albistek. Horrek esan nahi du *El Diario Vasco* egunkarian emakumeen traineru estropadei buruz hitz egitean, orokorrean, albiste propioak izan dituztela.

Bilakaera horrekin ikusi daiteke *El Diario Vasco*-k gero eta presentzia handiagoa ematen diela emakumeak protagonista dituen traineru estropadetako albisteei: aztertutako lehenengo urtean albiste laburrak ziren gehien erabiltzen zirenak, eta ondorengo bi urteetan, nagusiak. Nagusien ondoren gehien erabiltzen direnak, baina, beti dira txikiagoak: laburrak edo bigarren mailakoak.

Albiste motari erreparatuta, hiru urteetan gehien erabili dena informatiboa¹⁷ izan da (4 taula); beraz, batez ere estropadei eta ligari buruz informatu du egunkariak; zehazki, hiru urteetan argitaratutako berrien $68,9\%$ izan dira mota horretakoak. Informatiboaren ondoren gehien erabili dena prebia izan da ($16,1\%$), estropada bat jokatu aurretik horri buruzko informazioa emateko, eta, gero, erreportajeak izan dira gehien erabili direnak, kasuen 8% an. Erreportajeak eta gero, kronikak erabili dira gehien ($4,9\%$), ondoren, analisiak ($1,9\%$), eta azkenik, elkarrizketak: argitaratutako piezen 1% era ere ez dira iristen.


Aztertutako hiru urteetan datuak konstante mantendu dira eta ia ez dute aldaketarik izan. Lehenengo lau postuetan emaitzak konstante mantendu dira, eta 2022. urtean nabari dira aldaketa gehien; izan ere, ez da emakumeen traineru estropadei buruzko analisi edota elkarrizketa bat bera ere argitaratu.

¹⁷ Albiste informatiboek, orokorrean, gertakari bati buruzko informazioa ematen dute, modu objektibo batean.

Erabilitako generoak lotura du albisteari ematen zaion tamainarekin: *El Diario Vasco* egunkariak emakumeen traineru estropaden berri emateko albiste nagusiak eta hortik beherakoak erabiltzen ditu gehienbat. Espazio hori mugatua izaten da, eta ohikoa da horietan gertaerei buruzko informazioa bakarrik ematea. Erreportaje edo elkarrizketetarako, berriz, ohikoa da nagusiak baino handiagoak diren tamainak erabiltzea: orri bat edo hortik gorakoak.

4. taula:

DV: Gehien erabili diren pieza motak




Iturria: sorkuntza propioa

Aztertutako bi egunkarietan, 2022an 2018an baino traineru estropadei buruzko albiste gutxiago daude, aztertutako lehenengo urtetik azkeneko urtera gertatutako beherakada nahiko antzekoa izanik. Hala ere, tartean izan duten prozesua ez da berdina izan (ikusi 5. taula): *Berria*-ren joera izan da traineru estropadei buruzko albiste gutxiago ateratzea 2018tik 2022ra bitartean; *El Diario Vasco*-k, aldiz, 2018an eta 2022an albiste kopuru antzekoa mantendu bazuen ere, 2022an beheranzko joera nabaritu zen.

Argi dago traineru estropadei buruzko albiste gutxiago daudela *Berria*-n, baina kontuan hartu behar da, batetik, bi egunkariak orri kopuru desberdinak dituztela –*Berria*-k egunero orri gutxiago argitaratzen ditu–, eta, bestetik, *El Diario Vasco*-k egunero argitaratzen duela egunkaria –*Berria*-k astelehenetan ez du egunkaririk argitaratzen–.

5. taula:

Berria eta DV: Traineru estropaden albisteen bilakaera



Iturria: sorkuntza propioa


Emakumeak protagonista diren albisteei erreparatuz gero, eta bi egunkariak hartuta, guztira, albisteen %47,16an dira emakumeak protagonista; traineru estropaden inguruan argitaratzen diren albisteen ia erdietan. Oro har, ez da desberdintasun handiegirik nabaritzen *El Diario Vasco* eta *Berria* egunkarien artean, datuak nahiko antzekoak baitira aztertutako hiru urteetan. Bi egunkariak dute gorakada txiki bat 2018tik 2020ra, eta berriro ere behera egiten dute 2022an. Azken beherakada hori, ordea, askoz nabarmenagoa da *Berria*-n: %39 izatera ere ez da iristen. *El Diario Vasco* egunkarian, ordea, ez da inoiz iristen albisteen erdia izatera, nahiz eta gertu ibili, eta datu horiek konstante mantentzen dira urteetan zehar (ikusi 6. taula).

Horiek horrela, esan daiteke bi egunkariak protagonismo antzekoa ematen dietela emakumeei aztertutako hiru urteetan zehar, eta bietan, gutxi gorabehera, albisteen erdietan agertzen direla: *Berria*-n, zehazki, aztertutako albisteen %51,76an eta *El Diario Vasco*-n %45,21ean.

Hala ere, zehaztasunetara joanez gero, eta 6. taulari erreparatuta, esan daiteke 2018 eta 2020 urteetan *Berria*-k protagonismo eta presentzia handiagoa ematen diela emakumeei *El Diario Vasco* egunkariak baino. Dena dela, 2022. urtean egoera hori aldatu egiten da eta *El Diario Vasco*-k *Berria*-k baino protagonismo pixka bat handiagoa ematen die emakume arraunlariei. Hortaz, *Berria* egunkarian beherakada bat jasaten du emakume arraunlarien presentziak, eta *El Diario Vasco*-k bere horretan jarraitzen du, 2022. urtean *Berria*-k baino emakumeei buruzko albiste gehiago argitaratuz.

6. taula:

Berria eta DV: Emakumeak protagonista diren albisteen bilakaera



Iturria: sorkuntza propioa

Emakumeak protagonista diren albistekin jarraituz, *Berria*-k eta *El Diario Vasco*-k nahiko antzekoak dituzte emakumeak protagonista indibidual eta protagonista konpartitu diren albistek; eta emakumeak bakarrik agertzen diren berriak nahiko konstante mantentzen dira aztertutako hiru urteetan, bi egunkarietan. Bien arteko desberdintasun nabariena 2020. urtean


antzematen da, *Berria*-k gorakada bat duelako –albisteen %33,33tik %39,32ra– eta *El Diario Vasco*-k beherakada txiki bat jasaten duelako –%28,45etik %27,49ra–. 2022. urterako, bi egunkarietan apaldu egiten dira datuok (ikusi 1 eta 3 taulak).

Protagonismoa konpartitua den kasuetan, aztertutako lehenengo bi urteetan, 2018an eta 2020an, datu antzekoak daude bi egunkarietan; hau da, albiste misto kopuru antzekoa argitaratu zen (ikusi 1 eta 3 taulak). Datu horiek, baina, aldatu egiten dira 2022. urtean. Izan ere, urte horretan *Berria*-ren albiste mistoek beherakada nabarmena jasan zuten –albiste guztien %2,47 bihurtu ziren–. Horiek horrela, 2022an *Berria*-k *El Diario Vasco*-k baino albiste gehiago zituen emakumeak protagonista bakar zirenak, eta askoz albiste misto gutxiago. Horregatik, hain zuzen, izan daiteke *El Diario Vasco*-k 2022an *Berria*-k baino albiste gehiago izatea emakume protagonistekin, 6. taulan ikusi denez: *Berria*-k 2022an ia ez zituelako albiste mistoak argitaratu.

7. taulan ikus daiteke bi egunkarietako emakumeak protagonista diren albiste nagusiekin izan duten bilakaera. Aurrez aipatu bezala, bi egunkarietako hiru urteak kontuan hartuta, nagusia da tamainarik erabiliena, eta 7. taulari erreparatuta, antzeman daiteke *Berria*-k *El Diario Vasco*-k baino albiste nagusi gehiago argitaratu dituela urtero, betiere emakumeen traineru estropadei dagokienean. Hala ere, 2022an *Berria*-k beherakada nabarmen bat jasaten du, eta *Diario Vasco*-k gorakada txiki bat. Horren eraginez, desberdintasun hori ia guztiz ezabatzen da, eta bi egunkarietako antzeko espazioa ematen diete emakumeak protagonista diren albisteei –*Berria*-k %34,54 eta *El Diario Vasco*-k %31,53, hurrenez hurren–.

7. taula:

Berria eta DV: Albiste nagusien bilakaera



Iturria: sorkuntza propioa

Ikertutako urteetan, beraz, *Berria* eta *El Diario Vasco* egunkarietan albiste nagusiak dira gehien erabili direnak. Horretan bakarrik egiten dute bat bi egunkariek; izan ere, *Berria*-n orri osoko albisteak dira nagusien ondoren gehienetan erabiltzen direnak, eta *El Diario Vasco*-n albiste laburrak. Hirugarren postuan *Berria*-n albiste laburrak daude, eta *El Diario Vasco*-n bigarren mailako albisteak. Horiek horrela, antzeman daiteke, oro har, *Berria*-k *El Diario Vasco*-k baino tamaina handiagoko albisteak eskaintzen dizkiola emakumeen traineru estropadei, lehenengo bi postuetan albiste nagusiak eta orri osoko albisteak dituelako.

Albiste motari dagokionez (ikusi 2 eta 4 taulak), biek ala biek dituzte lehenengo hiru postuetan albiste informatiboak eta erreportajeak, eta bietan dira informatiboak gehien erabiltzen direnak. Beraz, orokorrean, bi egunkariek ematen dute ligaren edo estropaden nondik norakoen informazioa albiste nagusien bitartez. *Berria* egunkariak *El Diario Vasco*-k baino analisi eta elkarrizketa gehiago publikatzen ditu, eta hori bereziki nabaritzen da elkarrizketa kopuruan: *Berria*-n, orotara, albisteen %7,74 izan dira elkarrizketak, eta *El Diario Vasco*-n, %0,7.

Esan daiteke, beraz, emakumeen traineru estropadei buruz ari direnean, albiste nagusi eta informatiboak erabiltzen dituztela bi egunkariak.

4.1.2. Espazioaren banaketa: gizonen nagusitasuna eta azaleko albisten gorakada

Albisten tamaina alde batera utzita, eta egunkari osoa kontuan hartuta, nabaria da *Berria* egunkarian gizonen emakumeei baino espazio gehiago ematen zaiela, betiere espazio gisa zutabe kopurua hartzen bada. Emandako espazioa zutabetan banatuz gero, eta aztertutako hiru urteak kontuan harturik, gizonen 5 zutabe ematen zaizkie, eta, emakumeei 3,84. Egunkarietako orriak neurgailu gisa hartuta, horrek esan nahi du gizonen orri oso bat¹⁸ eskaintzen zaiela eta emakumeei orri bat baino gutxiago. Hala ere, urtetik urtera datuek aldatetako jasan dituzte (3. irudian islatzen da hori).

3. irudia:

The image shows a newspaper page with several articles. Three red boxes highlight specific content:

- Top Left:** A photo of a man in a green shirt with the text: «Zenbat aldiz galdu behar izan dugun Zarautzen gero irabazi ahal izateko» Joseba Amunarriz • Hondarribiko patroia. Below it, a small article about a triathlete: «Kontzarako hiru ikasle gizonen lako bigarren eguneko zerealean...».
- Top Right:** An article titled 'San Juanek birbildu egin du liga Zarautzen ere garapena lortuta' with a photo of a boat race.
- Bottom Left:** A small article titled 'ARRANPLATH Niko Arramendik' with a photo of a man.
- Bottom Center:** A large article titled 'Gorabeherak' with a photo of a man.


Oharra: lehenengo orri osoa –5 zutabe– gizonen dago zuzenduta. Bigarren orriko albiste nagusia –argazkia duena– emakumeei buruzkoa da –3 zutabe–. Horren azpian dagoena gizonen buruzko analisia, eta eskubikoak albiste laburrak.

¹⁸ Egunkarietako albistek zutabeka idazten dira, eta orri bakoitzak bost zutabe ditu.

8. taulan ikus daitekeenez, 2018an ia ez dago desberdintasunik emakumeei eta gizonei ematen zaien zutabe kopuruan: lehenengoei, batez beste 4,75 zutabe eskaini zitzaizkien, eta bigarrenei, 4,25. Espazioaren banaketa, beraz, parekidea izan zen 2018an. Urteek aurrera egin ahala, ordea, handitu egiten da batzuei eta besteei ematen zaien espazioaren desberdintasuna. 2020an, esaterako, emakumeei eman zitzaizkien zutabe kopuruak behera egin zuen, gizonena antzeko mantendu zen bitartean. Horrela, zutabe eta erdiko aldea nabari da batzuen eta besteen artean –gizonei 4,87 zutabe eta emakumeei 3,37–. 2022an gizonei eta emakumeei ematen zaien espazioa handitu bazen ere, 2020ko desberdintasun hori –zutabe eta erdiko aldea– mantendu egin zen: gizonei 5,39 zutabe eskaini zitzaizkien eta emakumeei 3,9.

8. taula:

Berria: Espazioaren banaketa generoaren arabera



Iturria: sorkuntza propioa

Agerpen ordenari dagokionean, emakumeak beti bigarren postuan agertzen direla esan daiteke; hau da, gizonak agertzen dira lehenengo, eta, horien ondoren agertzen dira emakumeak. Izan ere, aztertutako hiru urteetan, kasuen %7,69an baino ez dira agertzen emakumeak gizonak baino lehen; hau da, 57 albistetatik 4tan baino ez. Urtetik urtera, gainera, ez dago aldaketa nabarmenik, eta datuak nahiko antzeko mantentzen dira (ikusi 14 taula).

Zehaztasunetara joanda, 2018. urtetik 2022. urtera, datuek beherakada bat jasaten dute: 2018an albisteen %12,5ean agertzen ziren emakumeak lehenengo –16 albistetik 2tan–, eta 2020an albisteen %6,25ean –6 albistetik bakarrean, hain zuzen–. Azken datu hori nahiko konstante mantentzen da 2022. urtean, nahiz eta beherakada txiki bat ematen den: albisteen %5ean agertzen dira emakumeak gizonak baino lehen; hots, 20 albistetatik bakarrean. Horiek horrela, esan daiteke aztertutako urteetan ez dela bilakaerarik egon emakumeen eta gizonen agerpen ordenari dagokionean, eta egon bada, esan behar da emakumeen agerpen ordenak behera egin duela.

Berria egunkarian traineru estropaden albisteei emandako ordena eta espazioa ez da izan lorpenen araberakoa. Izan ere, aztertutako albiste guztietan, gizonek eta emakumeek jokatu-tako azken estropada irabazi dute, eta emakumeei, oro har, espazio gutxiago eman zaie eta bigarren postuan agertu dira. Ligako jardunaldietan taldeek lortutako garaipenen batez beste emaitzak hartuta ere; hau da, jokatu dituzten jardunaldietatik zenbat irabazi dituzten kalkulatuta, ikus daiteke jardunaldietako lorpena ez dela faktore erabakigarria espazioa eta ordena erabakitzerako orduan. Hain zuzen ere, hiru urteetan zehar gizonek 15,69 garaipen izan dituzte, eta emakumeek 20,89¹⁹. Horren adibide da 4. irudia: gizonek jokatu-tako 10 jardunaldietatik 2 irabazi dituzte, eta emakumeek 9tik 9. Hala ere, gizonei emakumei baino espazio gehiago ematen zaie –5 eta 3 zutabe, hurrenez hurren–, eta egunkarian lehenengo agertzen dira.


Horiek horrela, *Berria* egunkarian traineru estropaden albisteei emandako espazioa eta ordena generoaren araberakoa da, eta ez lorpenen araberakoa.

¹⁹ Datu hauek atera dira irabazi diren estropaden eta jokatu diren jardunaldien arteko zatiketa eginda.

bikoitietan agertzea, emakumeen albisteen aurretik agertzen direlako; mistoetan gizonak ere agertzen direnez, ez da arraroa orri bikoitietan agertzea.

9. taula:

Berria: Emakumeak agertzen diren orrien banaketa



Iturria: sorkuntza propioa

Emakume arraunlariei egunkariko azalean ematen zaien presentziari dagokionez, orokorrean, hazi egin da: 2018an emakumeen traineru estropaden albisteen %8,06 agertzen ziren azalean, 2020an %20, eta 2022an %18,82 (15 taula). Azalean agertzeko hainbat modu daude²¹, ordea, eta horietan ere nabaritu dira aldaketak. 10. taulan ikusten den bezala, 2018tik 2022ra bitartean, azaleko albisteek, hau da, azaleko espazio nahiko handia hartu dutenek (5. irudia), gora egin dute. Horrela, 2018. urtean %4,80 ziren azaleko albisteak, 2020an %7,27, eta 2022an %7,89, azkeneko bi urte horietan datu konstanteak mantenduz.

²¹ Azalean agertzen direnean, albisteak azaleko albiste izan daitezke, edo, besterik gabe, azalean agertu daitezke, aipamen bezala. Azaleko albiste direnean, oro har, argazki handi bat eskaintzen zaie, gainontzeko albisteei baino garrantzi gehiago emanez. Besterik gabe azalean agertzen direnean, titulu bat eta informazio laburra ematen da.

5. irudia:

OSTEGUNA, 2020KO IRAILAREN 3A • XVII. URTEA • 5.342. ZENBAKIA • BERRIA.EUS PREZIOA: 1,50 EURO

berria

Historia, kultura eta ondarea, gela ibidetatik kalea ateratako ihes jokoen oinarrian
UDAGIRO • 33-39

Langabeak 185.000 dira Hegoaldean, iazko abuztuan baino 35.000 gehiago

Uztailaren amaieran baino bi mila lagun gehiago erregistratu dira enplegu bulegoetan • Krisiagatik enplegu gutxiago sortu denez, langabeziaren igoera ohi baino txikiagoa izan da aurtengo abuztuan

HARIAN • 2-3



EZ DA EZUSTERIK IZAN

Orio izan da lehena. San Juan Ondarroaren aurretik sartzea izan da eguneko sorpresa txikia. Lehen aldiz emakumeek bakarrik jokatu dute Kontxako sailkapena.

LEHEN HANDEKO TXANDAK

EMAKUMEZKOAK	BIGARREN TXANDA
LEHEN TXANDA	Zumaia
Artaun	Donostiarra
Tolosalde	Orio
San Juan	Hibaka
Hondambia	

Gizonezkoetan, 21 ontzi urretuko dira gaur

KIROLA • 22-23

Urrian aurrez aurre hasteko prest dira euskaltegietan; ireki dute matrikulazioa
EUSKALHERRIA • 7

LAURA HERNANDEZ
BERA BERANDI JOKALARIA

«Amore ematen ez duen taldea da Elx. Adi egon beharko dugu»
KIROLA • 25



«Sea Watch»
«Salbu» dira Palermoko portuan
EUSKALHERRIA • 10

Ipar Euskal Herrian, bazarako eskubidea izango dute bakartzen dituzten haurren gurasoek
Hegoaldean, oraindik argitu gabe dago hala izango den
EUSKALHERRIA • 4

Hasi da 'Charlie Hebdo'-ren aurkako atentatuaren epaiketa, Parisen
MUNDUA • 34

Azalean aipamen agertzen direnean, baina, ez da beti azaleko albisteak bezain agerikoa izaten, eta albistea bilatu egin behar izaten da (6. irudia). Hemendik aurrera, albiste horiei *aipamenak* bezala egingo diegu erreferentzia. Albiste horien kasuan ere, 2018tik 2022ra gora egin dute datuek, nahiz eta tartean behera egin duten. Izan ere 10. taulan ikus daiteke 2018an albisteen %3,63 agertzen zirela, eta 2020an, aldiz, %17,72. Aztertutako hurrengo urtean

(2022), baina, datuek beherakada bat jasaten dute –%10,50era jaisten dira–; hala ere, datuek 2018an baino altuagoak izaten jarraitzen dute.

6. irudia:

ASTEARTEA, 2018KO ABUZTUAREN 14A • XVI URTEA • 4.702. ZENBAKIA • BERRIA.EUS PREZIOA: 1,45 EURO

berria



KOMIKIAK ZER ESAN DEZAKEEN

Unai Iturriagak Ainara Azpiazu Axpj elkarizketatu du; Axpik, Pabxi Gallego; Gallegok, Pabxi Huarte Zaldieroa; Zaldieroak, Paula Estevez; Estevezek, Eider Eibar; eta Eibarrek, Iturriaga. Komiki bihurtu dituzte solasaldiak, BERRIArentzat.

SERIEA • KOMIKIZKETAK (I)
 UDAGIRO • 22-23

PIRATEN FLOTA EZ DA HONDORATU

laz baino parte hartzaile gutxiago zenbatu dituzte, baina, hala ere, azkeneko hamasei urteetako grina bera eduki dute Donostiako piratek, eta 200 bat ontzitan 'abordatu' dute Kontxako hondartza.

UDAGIRO • 29-32

Abordatzea. Altsasuko Gurasoek suziria bota eta berehala uretaratu ziren piratak, Donostiako kalia. JUAN CARLOS RUIZ / FORU



Talibanen eraso batek ehunka hildako eragin ditu Ghazni hirian, Afganistanen

Lau egunez hiririari eraso egin diote talibanek. AEBek ere esku hartu dute, airetik bombardaketak eginez. Kabulek dio kontrolpean duela egoera.

MUNDUA • 10

Sutea. Kiskali egin d
Aldanondo gaztandegi

EKONOMIA



JAVIER FONTANED


Ospakizunak gerorako utzita, 'Batelek' lanean jarraitzen dute

San Juaneko arraunlariek bosgarren aldiz segidan irabazi dute Euskotren liga, baina arreta guztiarekin lanean jarraitu dute garaipenaren hurrengo egunean, kontzentrazioa galdu gabe.

KIROLA • 14-15

10. taula:

BERRIA: Azaleko albisteen banaketa



Iturria: sorkuntza propioa

El Diario Vasco egunkariaren espazioaren banaketari dagokionez, argia da gizonek emakumeek baino espazio gehiago hartzen dutela. Aztertutako hiru urteetan, gizonek batez beste 7,53 zutabe okupatzen dituzte, eta emakumeek 4,58. Hau da, egunkariko orriei erreparatuta, gizonek orri bat baino gehiago okupatzen dute (orri eta erdi, gutxi gorabehera), eta emakumeek orri bat baino gutxiago. Ikusi 7. irudia.

7. irudia:

LIGA EUSKOTREN

Santurtzi se come al fin el pastel

LIGA EUSKOTREN

La Sotera se enfrenta al vencedor con claridad en Hondarribia y alcanza a Urdabai en la general ligera, con Ori y Donostiarra a seis puntos

ORRI MANTIENE EL 'STATU QUO' EN EL REGreso DE LA COMPETICIÓN

La Txiki ha dado en el primer largo y remata con un gran crono en Hondarribia su sexta bandera al ganar por seis segundos a Donostiarra

ARRAUN LAGUNAK, NUEVO TRAINERA Y CRÓNICO NEGRO POR ANDER PAISAR

Donostia Arraun Lagunak revalida su título de campeón de Euzkadi en el tercer largo de la Liga Euskotren tras perderse tres regatas por un error de navegación, y se hizo con una Legadoña nueva, recién salida de los astilleros de Anaitzila y que sucede a la hija de la trinidad del club decaído en las últimas 25 años. Las primeras banderas son cronico negro en memoria de Ander Paisar.

ZANAZKI A KALKA

En la primera tanda, se impuso Ondarra tras casi tres largos de gran peso con Zorita. La Txiki la cedió en el último largo por la mala navegación de Zorita. La Txiki la cedió en el último largo por la mala navegación de Zorita. La Txiki la cedió en el último largo por la mala navegación de Zorita.

RESUMEN LIGA EUSKOTREN


Equipo	Bandera	Puntos
1. Txiki	1	10
2. Ondarra	2	4
3. Donostia	3	0
4. Sagardoa	4	0
5. Urdabai	5	0
6. Sotera	6	0
7. Sagardoa	7	0
8. Sagardoa	8	0
9. Sagardoa	9	0
10. Sagardoa	10	0

11. taulari erreparatuz, antzeman daiteke urtero daudela desberdintasunak gizonei eta emakumei ematen zaizkien zutabeen artean. Hala ere, desberdintasun hori pixka bat txikitzen da 2022. urtean. Horiek horrela, 2018an gizonei batez beste 8 zutabe eskaini zitzaizkien —orri eta erdi baino gehiago—, eta emakumei 4,29 zutabe. Datuak antzeko mantentzen dira 2020. urtean: gizonei 7,59 zutabe ematen zaizkie eta emakumei 4,5. Gizonei eta emakumei ematen zaien espazioa antzekoan bihurtzen da 2022. urtean: gizonei ematen zaien zutabe kopurua pixka bat jaitsi egiten da, eta emakumei ematen zaiena pixka bat igo. Horrela, aztertutako azken urtean gizonei 6,83 zutabe ematen zaizkie eta emakumei 5,08; hau da, gizonei orri bat eta zutabe bat eta emakumei orri bat.

Espazioaren banaketan *El Diario Vasco*-k duen bilakaera, beraz, positiboa da, gizonei eta emakumei ematen zaien espazioaren arteko desberdintasuna pixkanaka txikitzen joan delako.

11. taula:

DV: Espazioaren banaketa generoaren arabera



Iturria: sorkuntza propioa

Agerpen ordenari dagokionez, *El Diario Vasco* egunkarian beti agertzen dira emakumeak gizonen ondoren. Aztertutako hiru urteetan, kasuen %5,81ean baino ez dira agertu emakumeak gizonak baino lehen; hau da, lagin hau ikertzeko aztertutako 86 albisteetatik 5 albistetan baino ez. Datuak urtetik urtera aztertuta, bilakaera bat nabari da 2018. urtetik 2022. urtera: gerok eta gehiago dira gizonen albisteen aurretik agertzen diren emakumeei buruzko albisteak. 14 taulan ikusten den bezala, 2018. urtean, behin ere ez ziren agertu emakumeen albisteak gizonen albisteen aurretik. 2020an, baina, datu hori aldatu egiten da, eta kasuen %10,71n agertu ziren; hau da, aztertutako 28 berrietatik 3tan. Datu horrek beherantz egiten du 2022. urtean, eta emakumeak lehenengo postuan kasuen %58,24ean agertzera pasatzen dira: 24 albistetik 2tan, hain zuzen.

Hortaz, agerpen ordenak eta emandako espazioak ez du zerikusirik estropadetan lortutako postuarekin: gizonak eta emakumeak lortzen dute lehenengo postua, baina gizonak emakumeak baino lehenago agertzen dira egunkarian eta haiei baino espazio gehiago ematen zaie. Ligan zehar lortutako garaipen kopuruarekin ere ez du zerikusirik espazioak eta ordenak: agertzen diren emakumeek agertzen diren gizonak baino garaipen gehiago baitituzte pilotuta


–emakumeek 35,69 eta gizonek 24,5–. Horiek horrela, albisteen ordena eta ematen zaien espazio kopurua generoaren arabera da, eta ez lorpenen arabera.

Orrien banaketari dagokionez, aztertutako urteetan, oro har, ez da desberdintasun handiegirik nabaritu orri bakoitien eta bikoitien artean: aztertutako berrien %52,59an emakumeak orri bakoitietan agertzen dira, eta %47,40ean orri bikoitietan. Urteak banaka begiratuta, gorabeherak dauden arren, datuak nahiko antzeko mantentzen dira. 12. taulan ikus daitekeen bezala, 2020. urtean aldaketa txiki bat dago: emakumeak gehiago agertzen dira orri bakoitietan bakoitietan baino –bakoitietan aztertutako berrien %46,81ean agertzen dira eta bikoitietan %53,25ean–. 2022. urtean, ordea, datuak aldatu eta 2018koen antzekoak izatera bueltatzen dira: 2018an bakoitietan kasuen %56,56ean agertzen dira, eta bikoitietan %43,43an; 2020an, aldiz, bakoitietan %55,69an eta bikoitietan %45,57an.

Orrien banaketak, lotura du espazioaren banaketarekin: gizonei orri bat baino gehiago ematen zaie –bikoitia, gehienetan–, eta horren ondoren, emakumeak agertzen dira orri bat baino gutxiagoko espazioarekin –orri bakoitietan–.

12. taula:

DV: Emakumeak agertzen diren orrien banaketa



Iturria: sorkuntza propioa

Egunkari barruko espazioa alde batera utzita, emakumeen traineru estropadei buruzko albisteen %14,53a baino ez da ageri *El Diario Vasco*-ko azalean; hau da, hiru urteetan argitaratu dituzten 289 albisteetatik, 42 agertu dira egunkariko azalean. Emakume arraunlariek azalean duten presentziari erreparatuta, nabaria da urtetik urtera presentzia handitzen doala (ikus 15 taula); izan ere, 2018an emakumeen traineru estropadei buruz argitaratu ziren albisteen %10,10 agertu zen azalean –99 albistetik 10–; baina 2020an emakume arraunlariek presentzia pixka bat handiagoa izan zuten: %14,41 –111 albistetik 16–; eta 2022an, datuek goranzko joera horrekin jarraitu zuten: %20,25 izan ziren azalean agertu zirena, 79 albistetik 16.

2022ko gorakada horrek COVID-19aren izurriarekin izan dezake zerikusia. Izan ere, *El Diario Vasco* egunkariak landu egin zituen koronabirusaren eta arraunaren arteko gorabeherak: jardunaldietan hartutako neurriak, jarraitzaileei eta taldeei nola eragin zien, talde bakoitzaren gorabeherak... Horiek horrela, azalean ere islatu zen agerraldi hori, eta, maiz, albiste mistoei erreferentzia egiten zieten berriak agertzen ziren azalean. Horren adibide da, esaterako, 8 irudia; zera dio tituluan: *‘Las regatas de La Concha sin público, pero con emoción en el agua’* –Kontxako estropadak ikuslerik gabe, baina emozioarekin uretan–.

8. irudia:

EL DIARIO VASCO

SAN SEBASTIÁN

 Sábado 29.08.20

 Nº 28.202-190 euros

DECANO DE LA PRENSA GUIPUZCOANA www.diariavasco.com

Patrick Alfaya Director de la Quincena Musical

«NO ESPERABA LLENOS EN LOS CONCIERTOS»



Afirma en una entrevista concedida a DV que no ve «el Kursaal a pleno aforo el año que viene, ni aunque nos vacunen a todos» p64

SALINAS DE CABO DE GATA, EL PUEBLO QUE NO PUDO SER EN ALMERÍA p24

El inicio del curso en Euskadi será gradual desde el día 7 y con mascarillas obligatorias

Mil nuevos profesores reforzarán los centros con mayor presencia de alumnos por cada aula

Osakidetza confía en las restricciones adoptadas para contener al virus

Sanidad autoriza un ensayo clínico en humanos para una vacuna en España

El curso escolar comenzará el 7 de septiembre en Euskadi de forma escalonada. Ese día entrarán los alumnos de Infantil, Prima-

ria, 1º y 2º de la ESO. Una semana después, el 15, lo harán los estudiantes de 3º y 4º de la ESO y Bachillerato. **TERESA FLAÑO P2**

Larga espera antes del reencuentro

Pareja La periodista donostiarra Danae Zazuolo y el ex jugador del GB, Mike Carlson, no pueden estar juntos desde el 3 de junio

La periodista donostiarra, Danae Zazuolo, y el ex jugador del Gipuzkoa Basket, Mike Carlson, son pareja y no pueden estar juntos desde el pasado 3 de junio después de cuatro años de no-

viazgo. El deportista se encuentra en EE UU y las limitaciones impuestas en este país imposibilitan el reencuentro entre ambos por no estar legalmente casados. **PATRICIA RODRÍGUEZ P12**



Presupuestos

Podemos avisa al PSOE que no cuente con ellos si decide pactarlos con Ciudadanos p36

Ajuste salarial

No concita consenso como fórmula alternativa para evitar despidos p38

Seguridad Social

Pierde más de 27.500 pensionistas en lo que va de año por Covid-19 p39

Espectin	26
Tu Amalida	43
Carriera	72
Agenda	73
Diario	84
El tiempo	87

MUJER HOY

El PNV espera una dura oposición de EH Bildu al Gobierno Vasco

Urkuilu e Irarte confrontarán en el pleno de investidura del próximo jueves

El candidato a lehendakari por el PNV, Iñigo Urkuilu, saldrá elegido en el pleno de investidura del próximo jueves para un nuevo mandato de cuatro años. **A. GONZÁLEZ EGARA P12**



Roglic y un compañero de equipo, ayer en Niza. **CHRISTOPHE PETIT**

UN TOUR DISTINTO

La carrera francesa estrena hoy en Niza una edición cargada de incógnitas por el coronavirus con pronóstico abierto y una nutrida presencia de corredores vascos p48

FÚTBOL La Real juega un amistoso en Huesca y el Eibar gana 0-1 al Rayo p54


BIENO Las regatas de La Concha, sin público pero con emoción en el agua p61

13. taulan ikusten denez, azalean aipamen bezala agertzen diren albistek gora egiten dute, gero eta gehiagotan agertzen direlako egunkariko azalean. Horrela, 2018an %8,08 izatetik – 99 albistetik 8–, 2020an %13,51 izatera –111tik 15–, eta 2022an %17,72 izatera –79tik 14– pasa ziren.

Azaleko albistek, ordea, nahiko konstante mantendu dira urteetan zehar, eta urte batean ere ez dira iritsi %3a izatera. 2018an, esaterako, %2,02 izan ziren azaleko albiste –99tik 2–; 2020an datuek behera egin zuten eta berrien %0,90 izan ziren azaleko albiste –111 albistetik 1, hain zuzen–. 2022. urtean, datuek gora egiten dute berriro, eta aztertutako berrien %2,50 dira azaleko albiste: 79 berritik 2.

12. taula:

DV: Azaleko albisteen banaketa



Iturria: sorkuntza propioa

Aipagarria da, azalean gehiagotan agertu arren, emakumeak ez direla izan gehiagotan azaleko albiste. Izan ere, azalean gizonak ere agertzen direnean, emakumeei orokorrean bigarren mailako posizio bat ematen zaie, eta gizonen albistea baino tamaina txikiagoan agertzen dira (9. irudia), edo haien albistearen barruan. Erabaki hori ere ez da lorpenen arabera izaten, eta horren adibide da, esaterako, 10. irudia. 2020ko Kontxako Banderaren biharamunean, *El Diario Vasco*-k bi garaileak atera zituen azalean: gizonei azaleko albistea eman zien, eta emakumeei espazio txikiagoa. Joera orokortua den arren, aipatzekoa da 2022ko Kontxako Banderan, *El Diario Vasco*-k kontrakoa egin zuela, eta gizonak emakumeen albistearen barruan sartu zituela; hala ere, eta aztertutako albisteen arabera, hori salbuespena litzateke (11. irudia)

9. irudia:

EL DIARIO VASCO

DECANO DE LA PRENSA GUIPUZCOANA www.diariovasco.com

SAN SEBASTIÁN

 Lunes 14.09.20

 Nº 28.228 • 1,60 euros

LA REAL NO CARBURA EN ATAQUE Y DA POR BUENO EL EMPATE



Los realistas, con muchas bajas, mantienen el estilo de la pasada temporada que le hace ser un equipo poderoso, pero en Valladolid se vieron carencias **P46**



HONDARRIBIA, TRES DE TRES

La bahía de La Concha fue verde por tercer año consecutivo. La trainera guipuzcoana estuvo maestra y nunca vio peligrar su triunfo **P38**

Bandera al viento, remos en alto y gesto de alegría de patrón y remeros. Hondarribia culminó una regata imperial. **JM LÓPEZ**

BANDERA FEMENINA

Exhibición de un Orio muy superior

Las oriotarras ponen el colofón a su gran temporada y repiten



TOUR

 El dúo esloveno Pogacar-Roglic deja K.O. a Bernal en Colombier **P68**

FÓRMULA 1

 Hamilton vuelve a ganar en el caos de Mugello **P63**

AEK, IRAKASLE BATEK BIK BESTE BALJO DU.

UNIA PROFESORJA DE AEK VALE POR DOS.



EUSKARA - IKASTAROAK

CURSOS DE EUSKERA

Eman izena • **Matriculate**

 673 200 100 • 946 464 000 • www.aek.eus

Gipuzkoa estabiliza los contagios a la espera del efecto vuelta a las aulas **P2**

Urkullu reclama un sistema de garantías frente a «tentaciones centralizadoras» **P20**

Expertes	18
Tas Anuncios	29
Cartelera	72
Agenda	73
Pautatempas	80
El tiempo	83

GUIA INMOBILIARIA

10. irudia:



11. irudia:



Hautatutako bi egunkarien espazioa batera aztertuz gero, emakumeei batez beste 4,3 zutabe ematen zaizkie, eta gizonei 6,58; hau da, gizonei orri bat baino gehiago eta emakumeei orri bat baino gutxiago. Datu horiek, gainera, konstante mantentzen dira urtetik urtera, eta, beraz, espazioaren banaketan ez omen dago hobekuntzarik parekidetasunari dagokionez.


Egunkariak banaka hartuta, aurretik ikusi bezala (8. eta 11. taulak), *El Diario Vasco*-k eta *Berria*-k, biek ematen diete espazio gehiago gizonei emakumeei baino; hala ere, zutabe kopuruaren desberdintasuna txikiagoa da *Berria* egunkarian.

Agerpen ordenari dagokionez, bi egunkarietan gizonak agertzen dira emakumeak baino lehenago, kasu guztietan. Egunkariak alderatuta, bereziki adierazgarria da *El Diario Vasco*-ren bilakaera. Izan ere, 2018an emakumeei buruzko albiste bat bera ere ez zuen argitaratu gizonen aurretik, baina 2020 eta 2022 urteetan, *Berria* egunkarian baino gehiagotan agertu ziren emakumeak gizonen aurretik.

Horiek horrela, esan daiteke bi egunkarietan ez dagoela loturarik irabazitako estropaden eta albisteei emandako espazioaren eta ordenaren artean, baina bai generoaren eta espazioaren eta ordenaren artean: nahiz eta gizonak eta emakumeak estropada irabazi, nahiz eta ligan emakumeak gizonak baino estropada gehiago irabazi, emakumeei espazio gutxiago ematen zaie eta gizonen ondoren agertzen dira bi egunkarietan.

14. taula:

Berria eta DV: Zenbatetan agertu diren emakumeak lehenengo



Iturria: sorkuntza propioa

Orrien banaketari dagokionez, aztertutako hiru urteak hartuta, ez da desberdintasun handiegirik nabari bi egunkarien artean: bietan nahiko antzekoa da emakumeak agertzen diren orri bakoiti eta bikoiti kopurua. *El Diario Vasco*-n ikusi daiteke datuok urtetik urtera konstante mantentzen direla, baina *Berria* egunkarian aldaketa bat dago: 2022an, bikoiti baino bakoiti gehiagotan agertzen dira emakumeak (9. eta 12. taulak).

Egunkariak emakume arraunlariei azalean ematen dieten presentziari erreparatuta, 15. taulan ikus daiteke orokorrean bi egunkariak presentzia antzekoa ematen dietela, eta bietan dagoela hazkuntza prozesu bat. Horrela, desberdintasuna txikia izan arren, *El Diario Vasco*-k *Berria*-k baino presentzia handiagoa eman zien emakume arraunlariei 2018an bere egunkariko azalean: *El Diario Vasco*-k %10,10 eta *Berria*-k %8,06.


Datu horiek aldatu egiten dira 2020. urtean, eta *Berria*-k *El Diario Vasco*-k baino presentzia handiagoa ematen die emakumeei: %20 eta %14,41, hurrenez hurren. 2022. urtean, aldiz,

datuak berriz aldatzen dira, eta berriro ere *El Diario Vasco*-n *Berria*-n baino gehiagotan agertzen dira azalean: %20,25 eta %18,42. Azaleko albiste motari erreparatuta, baina, *Berria*-n *El Diario Vasco*-n baino gehiagotan agertzen dira emakumeak azaleko albiste nagusi gisa.

Laburbilduz, aztertutako hiru urteak hartuta, *Berria* eta *El Diario Vasco* egunkariak presentzia bera ematen diete traineru estropadetan aritzen diren emakumeei azalean: %14,83 eta %14,53, hurrenez hurren. Biek, gainera, urtetik urtera gehiagotan argitaratzen dituzte emakume arraunlariei buruzko berriak azalean. Desberdintasun nabariena azaleko albiste motan antzeman daiteke (10. eta 13. taulak): *Berria*-n gora egiten dute azaleko albisteek eta aipamenek; *El Diario Vasco*-n, aldiz, azaleko albisteak konstante mantentzen dira, eta igotzen direnak azaleko berri txikiak dira.

15. taula:

Berria eta Diario Vasco: Emakume arraunlariek azalean duten presentzia



Iturria: sorkuntza propioa

4.1.3. Sinadura: Gizonek idatzitako albisteak

Albisteak nork idazten dituen begiratuta, *Berría* egunkarian ikusi daiteke argitaratutako pieza gehienak gizonek idazten dituztela: %80,64. Emakumeek idatzi dituzte aztertutako albisten %13,55; hau da aztertutako 155 piezatatik, 21. Aipatzekoa da 21 horietatik 20 analisiak direla, eta, beraz, ez dituztela *Berría* egunkariko kazetariak idatzi; traineru estropadetan aritu diren kirolariak baizik. Hau da, traineru estropaden albisteetako sinaduretan emakumeak agertzen direnean, ez dira kazetariak, kirolariak baizik; hala, emakumeek idazten dutenean, emakumei buruz idazten dute.


Nolanahi ere, 2018, 2020 eta 2022 urteetan bi salbuespen daude: bi emakume kazetariren izenak agertzen dira, biak 2020. urtean; hots, emakume kazetariak aztertutako piezen %1,29 sinatzen dute; 155etik 2. Batek berak bakarrik sinatzen du, eta emakumei buruz mintzo da. Bestea gizon batekin ageri da sinaduran –aztertutako sinadura misto bakarra–, eta hori ere emakumei buruz ari da (ikusi 18 taula).

Era berean, traineru estropadei buruzko albisten %5,16 sinadurarik gabe ageri dira. Izenik gabe agertzen diren albisteak, orokorrean, laburrak izaten dira: espazio gutxi ematen zaie eta trataerari dagokionez, ez dira oso landuak izaten.

16. taulan urtetik urtera erreparatzen zaie datuei, eta ikus daiteke datuak nahiko konstante mantentzen direla, batez ere gizonek idatzitako albiste kopuruari dagokionean. Aipagarriena da 2018tik 2022ra jaitsi egiten direla sinadurarik gabeko albiste kopuruak –%9,70 izatetik %2,60 izatera–, eta, horrekin batera, pixkanaka igo egiten dela emakumeek idatzitako albiste kopurua –%9,70etik %18.40ra–. Horrez gain, 2020. urtean sinadura misto bat agertzen da. Sinadurarik ez duten albisten beherakada albiste laburren beherakadarekin egon daiteke lotuta, eta emakumeen sinaduraren gorakada, analisisien gorakadarekin.

16. taula:

Berria: Albisteen sinadura




Iturria: sorkuntza propioa

El Diario Vasco egunkariari dagokionez, traineru estropadei buruzko albiste gehienak gizonek idazten dituzte, hain zuzen ere, aztertutako berrien %78,2 (ikusi 18. taula). Emakumeek albisteen %13,49 idatzi dituzte, eta sinadurarik gabe %8,30 argitaratu dira. Emakume kazetariak *El Diario Vasco*-n duten agerpena, oro har, Kontxako Banderan izaten da; Kontxako Banderaren lehen asteburuan argitaratzen duten gehigarrian, hain zuzen. Orrialde horietan, emakumeek batez ere emakumei buruz idazten dute: lehiaketan parte hartuko duten taldeen fitxak egiten dituzte, talde bakoitzaren aurkezpen testu baten antzekoa dena. Aztertutako urteetan, behin ere ez da agertu gizonek eta emakumeek batera sinatutako albiste bat.

Sinadurari urtetik urtera erreparatuz gero, 17. taulan, gizonek idatzitako albisteetan eta sinadurarik gabe argitaratu diren berrietan aldaketa gutxi nabari dira; nahiko konstante mantendu dira urteetan zehar. Emakumeek idatzitako albisteek, baina, jasan dituzte gorabeherak: 2020. urtean behera egiten dute emakumeek idatzitako albisteek, eta 2022an berriro ere gora. Izan ere, 2018. urtean albisteen %6,10 argitaratu ziren emakumeen sinadurarekin –6 albiste–, 2020an %0,90; hots, albiste bakarra, eta 2022an %10,10; hau da, 8 albiste. Emakumeek sinatutako albisteek, beraz, goranzko bilakaera dute 2018tik 2022ra bitartean

17. taula:

DV: Albisteen sinadura



Iturria: sorkuntza propioa


Bi egunkariak traineru estropadetan izaten dituzten sinadurei begiratuta, esan daiteke bietan gizonak idazten dutela herri kirol horiei buruz. 18. taulan ikusi daitekeenez, gainera, datuak, orokorrean antzekoak dira aspektu guztietan: gizonak albisteen %80 inguru idazten dituzte, emakumeek %13, sinadurarik gabe gutxienez albisteen %5 agertzen da, eta ez daude gizonak eta emakumeek batera idatzitako albisterik. Desberdintasunik handiena sinadurarik gabeko albisteetan nabari daiteke: *Berria*-n piezen %5 agertzen dira sinadurarik gabe, eta *El Diario Vasco*-n, %8.

Emakumeek idatzitako albisteei dagokienez, aztertutako bi egunkarietan, egunerokoan, emakumeek ez dute traineru estropadei buruz idazten. Zehazki, *Berria* egunkarian, emakume kazetariak ez dute arraunari buruz idazten, eta *El Diario Vasco*-n idazten dutenean, ez da ohiko egunkarian izaten; baizik eta urteko momentu jakin batean ohiko egunkariari gehituta argitaratzen den aldizkari batean. Hala ere, emakumeen sinadura duten albisteak gero eta gehiagotan agertzen dira aztertutako bi egunkarietan.

Emakumeen sinadura agertzen denean, gainera, aipatzekoa da ez dituztela erreportajeak, kronikak, prebiak... idazten; ez dute informatiboa ez den zerbait ontzen. *Berria* egunkarian emakumeek analisiak idazten dituzte, orokorrean, kirolariet barrutik estropada nola bizi izan duten azaltzen da; euren esperientzia partekatzen dute. *El Diario Vasco* egunkarian, aldiz, taldeei buruzko nolabaiteko fitxa informatiboak egiten dituzte, talde horien berri emateko. Horrekin lotuta, aipatzekoa da emakumeek idazten dituzten piezak, orokorrean, ez direla nagusi izatera ere iristen, aipatutako analisi eta fitxak laburrak edo bigarren mailako albisteak izaten direlako.

18. taula:

Berria eta DV: Sinadurak



Iturria: sorkuntza propioa

4.1.4. Argazkia: Kirol eremuan kokatutako argazki pasiboak

Berria egunkarian emakumeen traineru estropadei buruzko albisteei erreparatzean, ikus daiteke, orokorrean, albiste guztiak argazkiarekin argitaratzen direla, gehienetan argazki bakarrarekin; eta argazkirik gabeko piezak azaltzen badira, albiste laburrak edo analisiak direlako izan ohi da –batzuetan bigarren mailako albisteak ere argazki gabe agertzen dira–. Hau da, argazki gabe agertzen diren piezei, gehien-gehienean, ez zaie espazio handiegirik ematen.

Argazkia zutabe kopuruka neurtuta, orokorrean, hiru zutabetako argazkiak publikatzen dira *Berria*-n (%46,22), eta bigarren postuan gehien erabiltzen direnak 4 zutabeko irudiak dira (%18,86). Argazkiari ematen zaion tamainak lotura izaten du albisteari berari ematen zaion espazioarekin; izan ere, geroz eta espazio gutxiago eman albiste bati, orduan eta espazio txikiagoa du argazkia jartzeko. Horiek horrela, *Berria* egunkarian argazkiei ematen zaien espazioa bat dator albisteei ematen zaien espazioarekin; nagusia baita emakumeen traineru estropadei buruz informatzeko erabiltzen den tamainarik ohikoena.

Argazkiaren tamaina alde batera utzita eta argazkian bertan zentratuta, aztertutako hiru urteetan kirolarien jarrera pasiboa nagusitzen da jarrera aktiboaren gainetik. Urtetik urtera, gainera, badira aldaketa batzuk: 2018an antzekoa zen jarrera aktiboa eta jarrera pasiboa zuten argazki kopurua, eta hurrengo urteetan, jarrera pasiboa nagusitu zitzaion jarrera aktiboari.

Argazkiaren kokalekuari dagokionez, hiru urteetan nagusitzen da kirol eremua. Hau da, ia beti agertzen dira protagonistak kirol eremuan –itsasoan edo ibaian; estropada jokutzen den lekuan–. Horiek horrela, emakumeak jarrera pasiboarekin agertzen direnean argazkietan, orokorrean, talde argazki bat da eta kirolariak garaipen bat ospatzen ageri dira. Elkarrizketak direnean eta pertsona bakarraren –edo gutxi batzuen– argazkia ageri denean, ordea, protagonista kamerari begira agertzen da, geldituta.

Albistea mistoa denean, eta, beraz, gizonei eta emakumeei buruz ari denean, aztertutako urteetan, orokorrean, gizonak bakarrik ageri dira argazkian: kasuen %61,11n, hain zuzen. Gizonak bakarrik ageri ez direnean, emakumeak eta gizonak agertzen dira (%38,88), eta gutxiagotan gertatzen da albistea mistoa izan eta argazkian emakumeak bakarrik agertzea (%16,60).


19. taulan ikus daitekeenez, baina, datuok aldatu egiten dira urtetik urtera: 2018an argazkia zuten albiste mistoen %88,90ean gizonak bakarrik ageri ziren argazkian, emakumeak bakarrik %33,33an, eta gizonak eta emakumeak %11n. 2020an aldatu egiten dira datuok: nahiko

antzeko agertzen dira argazki mistoak ²²eta gizonak bakarrik agertzen diren argazkiak –mistotoak albisteen %57an eta gizonak bakarrik kasuen %42,86n–; emakumeak bakarrik, ordea, ez dira behin ere ageri. 2022an berriro ere aldatzen dira datuok, eta argazkia duten albiste misto guztietan argazki mistoa argitaratu zuten.

Beraz, bilakaera egon da urtetik urtera, argazkia duten albiste misto guztietan gizonak eta emakumeak agertu arte. Bilakaera horrek lotura izan dezake albiste mistoen beherakadarekin; izan ere, 2022. urtean 2 albiste misto baino ez ziren argitaratu, eta, beraz, ez dago konparaketa handiegirik egiteko marjinarik.

19. taula:

Berria: Albiste mistoen irudien banaketa



Iturria: sorkuntza propioa

²² Argazki mistoetan gizonak eta emakumeak agertzen dira argazki berean. Horretarako bi aukera daude; batetik, argazkia ateratakoan biak batera egotea, esate baterako, elkarriketa bat egiteko gizon bat eta emakume bat batu eta biei batera argazkia atera, eta, bestetik, gizonezkoen argazki bat eta emakumezkoen argazki bat elkartu eta argazki bakarra izango balitz bezala jarri, collage baten modura.

El Diario Vasco egunkariaren argazkiei erreparatuta, albisteak, orokorrean, argazkiekin argitaratzen direla ikusi daiteke, gehien-gehienean argazki bakarrarekin. Aztertutako hiru urteetan, antzekoa da bi zutabeko eta hiru zutabeko irudiak agertu diren aldi kopurua. Hiru zutabeko albisteak argazkia duten piezen %31,09an agertzen dira, eta bi zutabekoak, %30,38an. Horrek lotura du *El Diario Vasco*-k emakumeen traineru estropadei buruzko albisteei ematen dien tamainarekin; izan ere, gehienbat albiste nagusiak erabiltzen ditu, baina, bigarren eta hirugarren postuetan, albiste laburrak eta bigarren mailako albisteak. Albiste laburrek, askotan, ez dute argazkirik izaten, baina bigarren mailakoek bai. Bi mota horietako albisteek argazkiak izaten dituztenean, maiz, bi zutabekoak izaten dira, espazioak ez duelako gehiagorako ematen.

Argazkian ageri diren protagonisten jarrerari erreparatuta, 2018an, 2020an eta 2022an, hiru urteetan, orokorrean, protagonistek jarrera pasiboa erakutsi dute, eta urtetik urtera ez da bilakaerarik egon. Bilakaerarik izan ez duen beste aspektu bat argazkiaren kokalekua izan da: orokorrean, kirol eremuan agertzen dira protagonistak. Hortaz, gehienean, arraunlariak garai-penak ospatzen agertzen dira.

Argazkia duten albiste mistoei erreparatuta, eta aztertutako hiru urteak kontuan hartuta, gehienean gizonak bakarrik agertzen dira irudian; kasuen %56,52an, hain zuzen. Gizonak bakarrik agertzen ez direnean, gizonak eta emakumeak agertzen dira, argazkia duten albiste mistoen %34,78an, hain zuzen. Emakumeak bakarrik kasuen gutxiengoan agertu dira: %6,70ean, zehazki.

Albiste mistoen argazkiekin jarraituz, 20. taulan ikusi daiteke urtetik urtera datuek aldaketak jasaten dituztela: horietatik nabariena da gizonak bakarrik agertzen diren argazkien gorakada eta emakumeak bakarrik agertzen diren irudien beherakada. 2018. urteari dagokionez, kopuru berean agertu ziren gizonak bakarrik agertzen ziren argazkiak eta argazki mistoak: biak kasuen %40an. Emakumeak bakarrik kasuen %20an agertu ziren.


2020an igo egiten da gizonak bakarrik agertzen diren argazki kopurua, %63ra iritsi arte, eta, era berean, jaitsi egiten da emakumeak bakarrik agertzen diren irudi kopurua: urte horretan argitaratutako albiste mistoetan behin ere ez ziren emakumeak bakarrik agertu. Argazki mistoek, ordea, konstante jarraitu zuten (%38).

2020tik 2022ra ez da aldaketa handiegirik egon: gizonak bakarrik agertzen diren argazkiak %60an mantentzen dira, eta argazki mistoek beherakada txiki bat jasaten dute (%30). Emakumeak bakarrik agertzen diren irudiak berriro ere agertzen dira, albiste mistoen argazkien %10 hartuz: argazki bakarra.

Horiek horrela, ikus daiteke gizonak bakarrik agertzen diren argazkiek gora egiten dutela, eta emakumeak bakarrik agertzen direnek behera. Era berean, irudi mistoek berdin jarraitzen dute. Baina aurretik ikusi bezala, albiste mistoak konstante mantentzen dira urteetan zehar, aldaketa txiki batzuekin. Beraz, albiste misto kopuru berdina egon arren, urteetan zehar gora egiten du albiste horietan gizonak bakarrik agertzen diren irudi kopuruak.

20. taula:

DV: Albiste mistoen irudien banaketa



Iturria: sorkuntza propioa

Bi egunkarietan, beraz, ohikoena da emakumeen traineru estropadei buruzko albisteak argazki batekin publikatzea, hori baita albisteen euskarri nagusia, eta bietan hiru zutabeko lutzerarekin argitaratu ohi dira –nahiz eta *El Diario Vasco*-k 2 zutabekoak hirukoak bezain beste erabili—. Protagonistek argazkian duten jarrera pasiboa da, oro har, eta kirol eremuan egoten

da kokatuta. Horiek horrela, bi egunkariek orokorrean zera argitaratzen dute euren irudietan: estropadako irabazlea garaipena ospatzen.

Ohikoena hori den arren, badaude salbuespenak. Horrelako irudiak ez direnean, kirolariak kamerari begira agertzen dira, eserita edo zutik, eta emakumeak direnean argazkian agertzen direnak, gehienetan irribarrez. Horiek elkarrizketa edo erreportajeetan erabiltzen direnak izaten dira. Desberdintasun nagusia, baina, *El Diario Vasco* egunkarian antzeman daiteke: tarteka agertzen dira beste mota bateko irudiak. Bi arraunlari muxu ematen (harreman heterosexuala), edo talde bereko bi arraunlari besarkada bat ematen, negarrez.


Argazkiak, gainera, badu zerikusia pieza motarekin: bi egunkarietako albiste gehienak informatiboak dira, eta bietan gehien ageri den irudia da talde irabazlea garaipena ospatzen. Elkarrizketa edo erreportajea denean, ordea, protagonista kamerari begira atera ohi da, geldi, emakumea bada, gehienetan, irribarrez, eta kamerari begira.

Argazkia duten albiste mistoei dagokienez, bi egunkarietan antzekoa ikus daiteke (21. taula): orokorrean, gizonak bakarrik agertzen dira irudian, bestela argazkia mistoa izaten da, eta kasuen gutxiengoan, emakumeak bakarrik ageri dira. Urtetik urterako bilakaera, ordea, desberdina izan da *Berria*-n eta *El Diario Vasco*-n; alderantzizkoa, hain zuzen. Izan ere, *Berria*-n gero eta gutxiago dira gizonak bakarrik agertzen diren irudiak, eta gero eta gehiago dira argitaratzen diren argazki mistoak. Era berean, gutxiago dira emakumeak bakarrik agertzen diren albiste mistoen argazkiak.

El Diario Vasco-n, aldiz, gero eta gehiago dira gizonak bakarrik agertzen diren irudiak, konstante mantentzen dira argazki mistoak, eta beherakada bat jasaten dute emakumeak bakarrik agertzen diren argazkiak.

21. taula:

Berria eta DV: Albiste mistoen argazkien banaketa



Iturria: sorkuntza propioa

4.2. Trataerari lotutako emaitzak

Behin traineru estropadetan aritzen diren emakumeek duten presentzia ikusi eta gero, berri horiek nolako trataera duten aztertuko da. Horrela, lehenengo, ze gai lantzen diren ikertuko da, eta, ondoren, analizatuko da ea albisteetan zehaztu egiten duten emakumeei buruz ari direla. Jarraian, hitza nori ematen zaion ikusiko da, eta, azkenik, protagonistei nola egiten zaien erreferentzia aztertuko da.

4.2.1. Gaia: Lehiaketari buruzko berriak nagusi

Aztertutako hiru urteetan, baita aztertutako urte bakoitzean ere, *Berria* egunkarian nagusitasunez gailentzen den gaia lehiaketa da. Hau da, emakumeen traineru estropadei buruzko albisteak daudenean, gehien-gehienean ligari buruz ari dira.

Berrien gaiak urteka aztertuz gero, 2020. urtea da gaiei dagokionez aniztasun gehien duen urtea; izan ere, lehiaketa edo txapelketez gain –%79,2an jorratzen da gai hori–, modu askoz

apalago batean, entrenamenduak (%2,1), kirolariak (%4,2), kirolari ohiak (%2,1), jarraitzaileak (%2,1), politika edo arauak (%2,1), osasuna edo lesioak (%6,3), eta taldeak edo klubak ere lantzen dituzte (%2,1). Horietatik gehien lantzen dena osasuna edo lesioak da, 2020an, bereziki, hedatutako koronabirusaren pandemiaren eraginez. Izan ere, urte horretan, zenbait talde estropada batzuk jokatu gabe gelditu ziren, taldekideetako batek positibo eman zuelako, eta horrek eragindako gorabeherak plazaratu zituzten.

2018. urteari erreparatuta, lehiaketaz gain (%89,7), beste lau gai jorratu ziren: kirolariak (%3,4), politika edo arauak (%3,4), berdintasuna (%1,7), taldeak edo klubak (%1,7). Gehien landu zirenak, beraz, kirolariak eta politika edo arauak dira; hau da, kirolariei egindako elkarriketak, eta ligari buruzko politika edo arauak. Azken hori lotuta dago ETE Ligaren sorrerarekin; izan ere, 2018an jokatu zen lehenengoz, eta aldaketak eragin zituen ordura arteko lehiaketan. 2022an, ordea, ez zen aparteko beste gai batzuei buruz hitz egin. Gai nagusia lehiaketa izan zen, %93,5ean landu zen, eta horren ondoren landutako gaia kirolariak izan ziren (%6,5). Horiek horrela, beste gai batzuk landu zirenean, oso kantitate txikian landu ziren, lehiaketarekin zerikusirik ez zuten beste gaietan.

El Diario Vasco egunkariari dagokionez, lehiaketa da urtetik urtera gehien landutako gaia. Horrez gain, zenbait gai landu izan dira urtero, batez ere 2020an. Urte horretan, lehiaketari buruzko albisteak %63,6 izan ziren, eta horrez gain gehien landu ziren gaiak hurrengoak izan ziren: politika edo arauari buruzkoak (%10,3), osasuna edo lesioak (%7,9), eta jarraitzaileak (%7,5). Aurretik aipatu den moduan, gai horiek guztiek zerikusia dute koronabirusarekin; izan ere, *El Diario Vasco*-k asko landu zuen COVID-19aren eragina traineru estropadetan, 2020an. Horrela, landu zituzten, besteak beste, estropadetan eta jarraitzaileei eragiten dieten neurriak: publikorik gabe jokatu direla estropadak, kirolariek eta jarraitzaileek hartu behar dituzten neurriak, arraunlariren batek positibo ematen bazuen, horren jarraipena...


2018. urtean txapelketaz gain –%81,6an landu zela–, gehien landutako gaiak instalazioak edo kirol materiala (%6,1), eta jarraitzaileak (%3,1) izan ziren. Instalazioei edo kirol materialei buruzko albisteek, oro har, eguraldiaren iragarpenari egiten diote erreferentzia, eta horrek it-sasoan, eta, beraz, estropadetan izango duen eraginari. 2022an ere mantendu ziren gai horiek, baina kantitate apalagoan: instalazioak edo kirol materiala kasuen %2,6an, eta jarraitzaileak ere %2,6an.

Aztertutako bi egunkarietan, 22. taulan ikusi daitekeenez, nagusitasunez gailentzen den gaia lehiaketa da, bai urtetik urterako batez bestekoan, baita urte bakoitzean ere. Orokorrean, *El Diario Vasco*-n *Berria*-n baino gehiago lantzen dira lehiaketaz kanpoko gaiak, elkarren arteko desberdintasuna oso handia ez den arren.

Bietan, gainera, nabari da koronabirusak eragin zuela gaietan, bereziki 2020. urtean. Izan ere, *El Diario Vasco*-n gorakada izan zuten osasunari eta araei buruzko albisteek, eta horiek zuzenki lotuta zeuden COVID-19arekin. *Berria*-n ere, koronabirusa zela eta, 2020an gora egin zuten osasunari lotutako albisteek. Gainera, bi egunkarietan osasuna gaia 2020an bakarrik ageri da, eta, beraz, agerian gelditzen da koronabirusaren eragina.

22. taula:

Berria eta DV: Gehien landutako gaiak



Iturria: sorkuntza propioa

4.2.2. Zehaztasuna: Emakumei buruz ari direla zehazteko beharrik ez

Emakumeen traineru estropadei buruz aritzean, orokorrean, *Berria* egunkariak ez du zehazten emakumei buruz ari dela. Hiru urteetan aztertutako albisteetan, emakumei buruz ari dela zehaztu du berrien %25,58an.

Datu horiei urtetik urtera erreparatuz gero, 2018an eta 2020an zehazten zuten albiste kopurua konstante mantendu zen; 2022. urtean, aldiz, beherakada nabarmena izan zuten datuek, eta, hala, 2020an berrien %35,71 emakumeena zela zehaztetik, 2022an %4,50a zehaztera pasa ziren.

Albisteak mistoak direnean, orokorrean, ez du zehazten ea emakumeei edo gizonari buruz ari den –aztertutako kasuen %48an–, eta, zehazten badu, gizonak eta emakumeak zehazten ditu (%38). Hala ere, batzuetan emakumeak bakarrik zehazten ditu (%12), eta oso gutxitan zehazten ditu gizonak bakarrik (%2). Urtetik urtera begiratzean, joera horiek errepikatzen dira, baina desberdintasunak 2022. urtean nabari dira: behin ere ez ditu emakumeak edo gizonak bakarrik zehazten –beti biak edo bat bera ere ez–. Ez zehazte hori izan daiteke albiste mistoen beherakadaren eraginez.

Gehienetan, albiste mistoetan nori buruz ari den zehazten badu, sarreran adierazten du –kasuen %52,17an–, eta, bestela, amaieran (%39,95). Urte bakoitzean ere horrela mantentzen da.

El Diario Vasco egunkariak emakumeen traineru estropadei buruzko albisteak argitaratzen dituenean, orokorrean ez du zehazten emakumeei buruz ari dela –aztertutako albisteen %14,12an zehazten du–. Datu horiei aztertutako urte bakoitzean begiratu gero, konstante mantentzen dira: albisteen %80tik gorako kasuetan ez du zehazten emakumeei buruz ari dela.

Gizonak eta emakumeak agertzen diren albisteei erreparatuz gero ere, ohikoagoa da ez zehaztea zeini buruz ari den. Hain zuzen ere, *El Diario Vasco*-n aztertutako kasu mistoen %53an ez du zehazten ea gizonari edo emakumeei buruz ari den, eta, zehazten badu, gizonak eta emakumeak zehazten ditu (%30). Bietako bat zehazterako orduan, ohikoagoa da emakumeak bakarrik zehaztea (%14) gizonak bakarrik zehaztea baino (%2).

Urtetik urterako datuek ere aurreko hori berresten dute, eta urteen joan-etorriarekin ez da ia aldaketarik nabari. Hala ere, aipatzekoa da 2022. urtean emakumeak bakarrik zehazten diren albiste misto kopuruak behera egiten duela –%6,9ra jaisten da–, eta, horrekin batera, pixka bat igotzen da ezer ere zehazten ez duten albisteak.


Gehienetan, nori buruz ari den zehazten badu, sarreran zehazten du (%39,72), bestela, erdialdean zehazten du (%27,40), eta, erdialdean ez bada, amaieran (%21,90). Horiek dira zehazteko kokaleku ohikoenak; hala ere, badira gutxiagotan erabiltzen direnak: titulua edo azpitulua –bakoitza kasuen %4,10ean–; edo zintilloan (%2,74an). Zintilloan zehazten duenean esan nahi du albistea hasi baino lehen zeri buruzko albistea den jartzen duela; kasu honetan, *remo femenino* agertu ohi da –emakumeen arrauna–.

Berria eta *El Diario Vasco* egunkariak hartuta, esan daiteke, orokorrean, bietako inork ez duela zehazten emakumeen traineru estropadei buruz ari direla, ez emakumeak bakarrik agertzen direnean estropadetan ezta albiste mistoetan ere. 23. taulan ikus daitekeenez, gainera, zehazten bada, bietan zehazten dute gizonen eta emakumeen buruz ari direla. Beraz, emakumeen buruz ari direla zehazterako orduan, ez dago desberdintasunik aztertutako bi egunkarien artean.

Ez zehazte horrek badu zerikusia ligaren izenarekin; izan ere, Euskotren liga da emakumeen lehenengo mailako liga, Eusko Label liga gizonen lehenengo mailakoa, ETE emakumeen bigarren mailakoa eta KAE gizonen bigarren mailakoa. Beraz, ligaren izena esatearekin bakarrik, ez dago gizonena ala emakumeena den zehaztu beharrik. Hala ere, aipatu bezala, bi egunkarietan ohikoagoa da emakumeak bakarrik zehaztea gizonak bakarrik zehaztea baino –kasuen %2an bakarrik zehazten dira gizonak bakarrik–, eta horrek zerikusia du gizonen ematen zaien –eta kirolean duten– nagusitasunarekin. Hau da, kirolari buruz aritzean, badirudi automatikoki gizonen buruz ari direla, eta, beraz, ez du behar zehaztasunik; emakumeen buruz aritzean, baina, beharrezkoa da zehaztea emakumeen buruzkoa dela.

23. taula:

Berria eta DV: Nori buruz ari den zehazten du?



Iturria: sorkuntza propioa

4.2.3. Kazetariena da hitza, baina kirolariei ematen zaie

Traineru estropadei buruzko albisteetan, *Berria* egunkarian, orokorrean, kazetariak hitz egiten du –aztertutako kasuen %49,25ean–, gertatutakoaren kontakizuna eginez. Kazetaria ez den norbaiti ematen bazaio hitza, orokorrean, kirolariari ematen zaio (%35,07), eta, bestela entrenatzaileari (%9,7). Neurri txikiagoan ematen zaie ahotsa klubetako presidente edota jarraitzaileei. Kazetaria ez den beste norbaiti hitza ematean, albistean pertsona horren adierazpen zuzenak sartzan dira, eta, orokorrean, beste horrek sortzen du kontakizuna.

Emakumeen traineru estropaden albisteetan kazetaria ez den norbaiti hitza ematen zaionean, kirolariei ematen zaie –emakumeei, alegia–, eta neurri txikiago batean entrenatzaileei; hau da, gizonei. Izan ere, aztertutako urteetan emakume entrenatzaile bakarra egon da emakumeen traineruetan: Maialen Arrazola, 2020an, Donostiarra taldean.

El Diario Vasco egunkariari dagokionez, kazetaria da gehien-gehienean hitz egiten duena (%83,72). Kirolariei eta entrenatzaileei nahiko antzeko espazioa ematen zaie: %8,15 eta


%7,36, hurrenez hurren. Jarraitzaileak eta klubetako presidentek ere ageri dira, baina oso gutxitan. Horrela, beraz, emakumeen traineru estropadei buruz aritzean, gizonak eta emakumeek neurri antzekoan hartzen dute hitza, kirolariak emakumeak direlako, eta gizonak, orokorrean, entrenatzaileak.

Azaldu bezala bi egunkarietan, orokorrean, kazetariena da hitza, gertatutakoaren kontakizun bat egiteko. Horrek lotura zuzena du albistearen generoarekin, hau da, aztertutako bi egunkarietan gehien argitaratzen diren albistek informatiboak dira; horietan gertaeren kontakizuna egiten da, informazioa emanez, eta informazio hori kazetariak ematen du. Hala ere, 24. taulan ikusi daitekeenez, *El Diario Vasco*-n *Berría*-n baino gehiagotan hartzen du hitza kazetariak, eta *Berría*-n *El Diario Vasco*-n baino gehiagotan ematen zaie hitza kirolariei. Izan ere, *El Diario Vasco*-n kazetaria ez den norbaiten aipuak agertzen direnean, aipu solteak izaten dira sarri, hau da, kazetariaren kontakizuna osatzeko kirolarien edo entrenatzaileen adierazpen zuzenak txertatzen dira. *Berría*-n, ordea, orokorrean, aipu horiei espazio gehiago ematen zaie. Entrenatzaileei ematen zaien espazioari dagokionez, bi egunkarietan espazio antzekoa ematen zaie.

Horiek horrela, bi egunkariek kazetaria ez den norbaiti ematen diotenean hitza, emakumeei ematen diete, *Berría*-k *El Diario Vasco*-k baino neurri handiagoan.

24. taula:

Berria eta DV: Hitza nork hartzen duen



Iturria: sorkuntza propioa

4.2.2. Protagonistari erreferentzia: Guztiaren gainetik, taldearen izena

Orokorrean, *Berria* egunkarian protagonistari erreferentzia egiteko taldearen izena erabiltzen da; baita ontziaren izena edo pertsona bakar bati erreferentzia egiten zaionean haren izen-abizenak ere –behin aipatu ondoren, abizenez deitzen zaio–. Herriaren izenarekin ere egiten zaio erreferentzia, traineruak herriekin daudelako lotuta. Aztertutako albiste guztietatik bakarrean (%0,75) egiten zaio erreferentzia kirolariari izenez bakarrik, baina hori salbuespena da; izan ere, elkarrizketa misto batean gertatzen da hori, anai-arrebak dira protagonistak, eta abizenez deituta, ezin da jakin nori dagoen zuzenduta galdera. *Berria* egunkarian hiru urtetan aztertutako albisteetan aurkitutako beste salbuespen bat da *neskak* erabili izana. Talde bateko zuzendaritzaren esanetan agertzen da aipu hori.

Aztertutako kasuen %87,6an kirolariei buruz ari da, eta gehienetan, kirolariak ez dira ezerekin lotzen; hau da, besterik gabe, estropadaren nondik norakoak azaltzen dituzte, baloraziotan

sartu gabe. Zerbaitekin lotzen badira, ohikoa da arrakastarekin edo anbizioarekin lotzea: estropada asko irabazten ari direlako, edota gehiago irabazi nahi dituztelako. Horrek, gainera, zerikusia du gehien erabiltzen diren albiste motak informatiboak izatearekin.

Orokorrean, ez dira estereotipoak agertzen emakumeen traineru estropadei buruzko albistetan, eta ez da ohikoena senideei edota kirolaz kanpoko jardueri erreferentzia egitea. Hala ere, urtero daude salbuespenak. Estereotipoak agertzen direnean –aztertutako albisteen %2,89an–, kirolariak emozioekin lotzen dituzte.

Horrez gain, senideei edo kirolaz kanpoko jardueri erreferentzia egiten diote aztertutako kasuen %7,09an. Urtetik urtera begiratuta, gai horrek gorakada bat du 2020an, izan ere, albisteen %3,4an lantzetik, berrien %12,72an lantzera pasatzen da. 2022an berriz apaldu egiten dira datuok, eta %5,26ra jaisten dira. Gai horiek jorratzen direnean, orokorrean, kirolaz kanpo duten lanbideari egiten diote erreferentzia, kirolarien bizitzako aspektu pertsonalen bati, edo senideei –gurasoei edo bikotekideei–.

El Diario Vasco egunkarian, oro har, protagonistei erreferentzia egiteko taldearen izena, ontziaren izena, taldearen ezizena, herriaren izena edo kirolarien izen-abizenak erabiltzen dira. Horrez gain, ia albiste guztietan erabiltzen den formula da *las de* (entrenatzailearen izena) eta horren aldaerak: *las chicas de*, *las entrenadas por*, *las dirigidas por*... Aztertutako albistetatik bostetan (%2an) egiten zaie erreferentzia kirolariei euren izenez bakarrik. Era berean, salbuespena dira *féminas* (kasuen %1,2an) eta *chavalas* (%1,6) terminoak erabiltzea. Lehenengoa, kazetariaren hitzetan joan ohi da, bigarrena, aldiz, entrenatzailearenetan.

Hiru urteetan aztertutako kasuen %82,29an kirolariei buruz ari da, eta, gehienetan ez dira ezerekin lortzen (%48,51), eta zerbaitekin lotzen direnean, arrakastarekin edo anbizioarekin lotzen dira, biak ia neurri berean. Urtetik urtera, gainera, datuak antzeko eta konstante mantentzen dira, hiru aldaera horiek nagusituz.

Orokorrean, *El Diario Vasco* egunkariak ez du kirolarien irudi estereotipatua zabaltzen, nahiz eta aztertutako albisteen %1,4ean nolabaiteko estereotipoak ageri diren. Salbuespen horietan, batez ere, emakumeen zaintzaile roleri edota amatasunari egin diote erreferentzia. Berrietan, gutxitan egiten zaie erreferentzia senideei edo kirolaz kanpoko jardueri (%6,92); hala ere, aipatzen direnean, kirolariari buruzko gauza pertsonalak kontatzeko izan ohi da, askotan,

aparteko informaziorik ematen ez duena: zein den bikotekidea, zein anaia, entrenatzaile ohia ama izan dela, gidabaimena duten ala ez, ikasketak, lanpostua... 2020. urtea izan zen senideei edo kirolaz kanpoko jardueri buruzko informazio gehien eman zen urtea.

Bi egunkariak hartuta, ikusi daiteke bietan nagusitzen dela taldearen izena protagonistei erreferentzia egiteko metodo gisa, eta bietan kirolariak direla albisteen protagonista nagusiak, eta, gehienetan, ez dira ezerekin lotzen: estropadaren nondik norakoak azaltzen dituzte, postuak eta denborak aipatuz. Horrek lotura dauka albiste informatiboen erabilerarekin.

Berria-k eta *El Diario Vasco*-k, orokorrean, ez dituzte estereotipoak zabaltzen euren albistetan, eta nahiz eta aldea minimoa den, aztertutako hiru urteetan, *Berria*-k estereotipoekin lotutako albiste gehiago argitaratu ditu $-2,68\%$ eta *El Diario Vasco*-k $1,4\%$; horietan, emakumeak emozionalitatearekin lotzen dira. Bi egunkarietan egiten zaie antzeko erreferentzia senideei edo kirolaz kanpoko jardueri, eta apenas dago bien arteko alderik. Orokorrean, *Berria*-n erreferentzia egiten zaionean, jarduera profesionali lotutakoak aipatzeko izaten da; hau da, arraunetik kanpo zer egiten duten: zein den kirolariaren lanbidea edo zer ikasten duen. *El Diario Vasco*-n, ordea, gai horiek ere agertzen diren arren, arlo pertsonalean gehiago sakondu ohi dute: bikoteak, amatasuna...

4.3. Emakumeen eta gizonen trataeraren alderaketa

Egunkarietan gizonen eta emakumeen berriak independenteki lantzen dituztenean, hau da, bakoitzari albiste propioak eskaintzen dizkietenean, orokorrean, ez da desberdintasunik nabari: ondo daude landuta, sakon; emandako espazioak uzten duen neurrian. Albisteak mistoak direnean, baina, albiste independenteekin alderatuta, trataera desberdina izaten dute.


Berria egunkarian aztertutako hiru urteetan ikertutako albiste mistoak kontuan hartuta, ez da desberdintasun handiegirik antzeman protagonisten agerpenaren ordenean; hau da, berri kopuru antzekoetan agertzen dira emakumeak lehenengo eta gizonak lehenengo. Gizonei eta emakumei buruz ari denean, aztertutako kasuen $52,83\%$ an agertu dira gizonak emakumeak baino lehenago, eta kasuen $47,16\%$ an, alderantziz.

Datuei urteka erreparatuz gero, 25. taulak erakusten du agerpen ordenean aldaketak egon direla; izan ere, 2018. urtean gizonak emakumeak baino lehen agertzen ziren albiste mistoen

%73,91n. Hurrengo urteetan, aldiz, ordena aldatzen da, eta emakumeak gizonak baino lehen agertzen dira: 2020an, aztertutako berri mistoen %61,90ean agertu ziren emakumeak gizonen aurretik, eta 2022an %66,66an.

25. taula:

Berria: Albiste mistoetako agerpen ordena



Iturria: sorkuntza propioa

Albiste mistoetan gizonen eta emakumeen erreparatuta, ikusi daiteke, oro har, albisten erdian espazioa antzeko banatzen dela –erdia gizonentzat eta beste erdia emakumeentzat–, eta beste erdian gizonen espazio gehiago ematen zaiela. Horrela, aztertutako hiru urteetako albiste mistoen %47,17an espazioa nahiko antzeko banatu zen gizonen eta emakumeen artean; %49,05ean espazio gehiago eman zitzaion gizonen, eta %3,77an espazio gehiago emakumeen.


Datu horiek bilakaera bat izan dute urtetik urtera, 26. taulan ikus daitekeen bezala: 2018an espazio gehiago ematen zitzaion gizonen –albisten ia %70ean–, eta %4,34an bakarrik eman zitzaion emakumeen espazio gehiago. 2020an, baina, espazioa modu antzekoan konpartitzen zuten albiste mistoek gora egiten zuten, %57,14ra iritsi arte, eta gizonen espazio gehiago emakumeen.

ten zioten albiste kopuruak behera egiten zuen, %38,09ra arte. Konstante mantendu zen emakumeei espazio gehiago ematen zion albiste kopurua: %4,76. 2022an, berriro ere gora egin zuen espazio berdinen banaketak (%77,77), eta beste behin, beheranzko joera erakutsi zuten gizonei espazio gehiago ematen zioten albisteei (%22,22). 2022an ez zegoen emakumei espazio gehiago ematen zion albiste mistorik.

Urteek aurrera egin ahala, beraz, jaitsi egiten da gizonei espazio gehiago ematen dioten albiste kopurua, eta igo egiten da espazioa modu parekidean partekatzen duen berri kopurua.

26. taula:

Berria: Albiste mistoen espazio banaketa



Iturria: sorkuntza propioa

Horiek horrela, esan daiteke *Berria* egunkarian emandako agerpen ordenak ez duela eragiten emandako espazio kopuruan. Izan ere, gizonak lehenengo agertzen direnean, espazio gehiago ematen zaie –kasuen %75ean–, baina emakumeak lehenengo agertzen direnean ez; emakumeak lehenengo agertzen direnean, orokorrean (%76), espazioaren banaketa parekidea egiten da.

Horren adibide da, esaterako, 2018. urtean gizonak emakumeak baino lehen agertzen zirela, eta urte horretan, gizonei espazio gehiago eman zitzaizela albiste mistoetan. Datozen bi urteetan, emakumeak gehiago agertu ziren lehenengo postuan, eta espazioa erdibana banatu zen gizonen eta emakumeen artean.

Agerpen ordenak, beraz, ez du loturarik emandako espazio kopuruarekin; izan ere, oso gutxi dira emakumeak lehenengo agertu eta haiei espazio gehiago ematen zaien kasuak (%8). Hau da, ohikoa da gizonak lehenengo agertzea eta haiei espazio gehiago ematea, baina emakumeak lehenengo agertzen badira ere, oro har, ez zaie gizonei baino espazio gehiago emango, gizonei ematen zaien espazio bera baizik. Espazioaren banaketa hori, orduan, ez litzateke agerpen kontua izango; genero kontua baizik.


Albiste mistoetan gizonei eta emakumeei ematen zaien espazioa alde batera utzita eta trataeran zentratuta, ikusi daiteke albisteen erdietan ez dagoela trataerari lotutako desberdintasunik; hau da, gizonak eta emakumeak berdin tratatzen direla. Hala ere, aztertutako albisteen %38,77an, gizonak emakumeak baino sakonago tratatu dira, eta %6,12an emakumeak gizonak baino sakonago.

Datuak urtetik urtera hartuta, bilakaera bat nabari da 2018tik 2022ra: gero eta gehiago dira trataeran desberdintasunik ez duten albiste mistoak. 2018an, gehiago ziren gizonak sakonago lantzen zituzten albiste mistoak (%56,52), baina urteak aurrera joan ahala, beheranzko joera izan dute horrela banatuta dauden albisteez: 2020an %33,33 ziren, eta 2022an %22,22 izatera jaitsi ziren. Gizonak eta emakumeak berdin lantzen dituzten albisteez, ordea, kontrako bilakaera izan dute, eta gorantz egin dute: 2018an %36,84 ziren, 2020an %61,90, eta 2022an %77,77. Emakumeak sakonago lantzen dituzten albisteez ere beheranzko bilakaera izan dute: aztertutako lehenengo urtean %10,52 ziren, eta azkeneko urtean emakumeak sakonago tratatzen zituen albiste bat bera ere ez zen argitaratu (27.taula).

Bilakaera, beraz, positiboa izan da, gero eta gehiago direlako berdin lantzen diren albiste mistoak, eta gutxiago gizonak sakonago lantzen dituztenak. Halere, aipagarria da igoera hori albiste mistoen jaitsierarekin lotuta dagoela: 2022an oso albiste misto gutxi argitaratu ziren, eta, beraz, ez daude sobera albiste aurreko urteetan bezalako lagin zabalago bat hartzeko.

27. taula:

Berria: Albiste mistoen trataera



Iturria: sorkuntza propioa

Aztertutako urteetan *Berria*-k albiste mistoetan egindako espazioaren banaketak eragina izan du albisteen trataeran; izan ere, geroz eta espazio gehiago eman, orduan eta sakonago lantzen dira. Trataera emandako espazioarekin zuzenki lotuta dagoenez, generoarekin ere badu lotura, espazioa generoaren arabera banatzen delako.

Horren adibide da, esaterako, 2018. urtean gizonak emakumeak baino lehenago agertzen zirela, eta urte horretan, gizonak sakonago lantzen zirela albiste mistoetan. 2020an eta 2022an, ordea, emakumeak gehiagotan agertu ziren gizonak baino lehen, eta urte horietan gehiago izan ziren trataerari dagokionez desberdintasunik izan ez zituzten albisteak.

Horrela, beraz, gizonak lehenengo agertzen direnean, gizonak sakonago tratatzen dira –kasuen %67,5ean–, eta behin ere ez dira emakumeak sakonago lantzen. Emakumeak lehenengo agertzen direnean, gizonei eta emakumeei trataera berdina ematen zaie –kasuen %76an–. Hala ere, oso gutxitan eman zaie emakumeei gizonei baino trataera sakonagoa, eta hori ere genero kontua da. Hau da, gizonak lehenengo agertzen direnean, sakonago lantzen

dira haiei buruzkoak, baina emakumeak lehenengo agertzen badira ere, oro har, ez zaie gizonen baina trataera sakonagoa ematen, gizonen baina emakumeen baina trataera bera baizik.

Albiste mistoetan gizonen emakumeen baina espazio gehiago ematen zaienean, eta emakumeak baina sakonago lantzen direnean, orokorrean, emakumeen lotutakoak azaletik lantzen dira: gizonen estropadaren nondik norakoak kontatzen dira, taldeen gorabeherak, estropadaren teknikotasuna, ordura arteko ibilbidea, denborak, aurreikuspenak... Emakumeen kasuan, aldiz, eskaintzen zaien espazioak ez du hainbesteko ematen eta estropadaren emaitzen azaleko kontakizun bat egiten da: nor gelditu den zenbagarren postuan, denborak eta aurreikuspenak (12. irudia). Espazioa berdin banatzen denean, oro har, gizonen eta emakumeen buruzko aspektu igualak lantzen dituzte, modu bertsuan.

12. irudia:

Estropadaren berezitasunak alboan dakartza beste bi bereizgarri ere: oso teknikoa da lana, ziarboga kopuruak eraginda, eta indarrak ere aparteko garrantzia hartuko du, traineruari berriz ere abiada eman beharko baitzaio buelta bakoitza eman eta gero. Kontuz, baina. Horrek ez du esan nahi talde indartsuenek bakarrik dutenik aukera bandera irabazteko. Ikusi besterik ez dago zer garaipen lortu dituen Hondarribiak estropada honetan aurreko urteetan, eta Mikel Orbañanosen taldea baina indartsuagoak egon dira, indarra neurtzen hasita.

Iraganeko emaitza horiek ikusita, faboritoen zerrendan goian jarri beharko da gaur ere Hondarribia, eta haren alboan ohorezko txandako beste hirurak: Urdaibai liderra, zazpi jardunaldietatik seitan garaile izanda, Zierbena eta Orio. Ez baztertu, ordea, bigarren txandako Santurtzi, adibidez, gaurko baldintzetan ondo aritzeko taldea da eta.

Txikiagoa da emakumezkoen lehia ageri den faborito zerrenda. San Juan dabil nagusi, orain arteko sei estropadak irabazita, eta gaur ere hautagai nagusi da. Baina kontuz Oriorekin, ur bareetan erakusten ari baita gai dela pasaitarrendandik gertu ibiltzeko. Hori horrela izanda, aukera badu gaur ligako lehen bandera irabazteko. Hirugarren lekua lortzeko, berriz, berdinduta daude Arraun eta Hondarribia, eta gaur ere lehia polita eskaintzeko aukera guztiak dituzte bi taldeetako arraunlariek.


Oharra: Albiste misto baten zati bat da hau, trataeran desberdintasunak dituena. Lehenengo bi paragrafoetan gizonen buruz ari da, eta, azkenekoan, emakumeen buruz.

El Diario Vasco-ko albiste mistoei dagokienez, nabaria da gizonak emakumeak baino gehiagotan agertzen direla berrietako lehen protagonista gisa: gizonak %57,30ean eta emakumeak %38,55ean. 24. taulan urtetik urterako bilakaera ikus daiteke, eta, horrek erakusten du albiste mistoetan urtero agertu direla gehiagotan gizonak emakumeen aurretik.

Datuek, gainera, bilakaera bat erakusten dute: tartean aldaketak egon arren, aztertutako azken urtean handiagoa da gizonak lehenengo agertzen ziren albiste kopuruaren aldea. Horrela, 2018an kasuen %60,87an agertu ziren gizonak lehenengo, eta emakumeak %39,13an. 2020an, aldiz, berdintzen hasten da kopuru hori –gizonak lehenengo kasuen %54,54an eta emakumeak lehenengo %45,45an–, baina berdintzeko joera hori gelditu eta 2022an handitu egiten da bien arteko arrakala: gizonak lehenengo agertu ziren kasuen %70,37an, eta emakumeak, %29,62an.

28. taula:

DV: Albiste mistoetako agerpen ordena




Iturria: sorkuntza propioa

Albiste mistoen barruan emakumeei eta gizonei ematen zaien espazioari erreparatuta, gehienetan, *El Diario Vasco*-k espazioa modu antzekoan banatzen du gizonen eta emakumeen artean; izan ere, aztertutako albiste mistoen %64,15ean espazioaren banaketa parekidea egiten da. Hala ere, berrien beste %33,96an gizonei emakumeei baino espazio gehiago ematen zaie, eta %1,88an baino ez zaie ematen emakumeei espazio gehiago.

Datuei urtetik urtera begiratuta, bilakaera bat nabari da: 2018 eta 2020 urteetan, albiste gehienetan ez dago desberdintasunik emakumeei eta gizonei ematen zaien espazioaren artean (29. taula). Zehazki, 2018an berrien %66,66 zeuden antzeko banatuta –%33,33an gizonei espazio gehiago eman zitzaien–, eta 2020an %79,54 zeuden erdibana banatuta –kasuen %18,18an gizonei espazio gehiago eman zitzaien–. 2020an, beraz, hazi egin zen modu parekidean banatuta zegoen albiste misto kopurua. 2022. urtean, ordea, joera horrek behera egin zuen –%37,93ra jaisten dira espazioa berdin banatzen duten albiste mistoak–, gizonei espazio gehiago ematen dieten albisteak gailenduz (%58,63).

29. taula:

DV: Albiste mistoen espazio banaketa



Iturria: sorkuntza propioa

Horiek horrela, esan daiteke gizonak emakumeen aurretik agertzen direla albiste mistoetan, baina horrek ez duela eraginik emandako espazioaren banaketan, modu parekidean egiten delako. *El Diario Vasco*-n agertzen diren albisteen ia %60a formatu laburrean argitaratzen dira; hau da, nagusi bati baino espazio txikiagoa ematen zaie. Espazio hori kontuan hartuta, normala da espazioa erdibana banatzea gizonen eta emakumeen artean, ez baitago gehiagorako tokirik. Nagusia baino handiagoa diren albisteetan, eta, beraz, gehiago garatu daitezkeen albisteetan, ordea, gizonen emakumeei baino espazio gehiago ematen zaie; kasuen %80,64an, hain zuzen.


Era berean, aipatzekoa da kasuen %1,88an baino ez zaiela emakumeei eman gizonen baino espazio gehiago, eta horrek ere generoarekin du lotura. Izan ere, ordena dena dela, espazioa berdin banatuko da, eta horrela egiten ez denean, gizonen emakumeei baino espazio gehiago emango zaie. Emakumeei, ordea, oro har ez zaie gizonen baino espazio gehiago emango.

Albistearen trataerari dagokionez, aztertutako hiru urteetan, orokorrean gizonen eta emakumeen atalen artean ez da desberdintasunik egon (%62,96an). Horrek lotura du espazioaren banaketarekin, izan ere, joera izaten da berriak ematen zaien espazioaren arabera lantzea. Albiste mistoak berdin landu ez direnean, gizonak sakontasun handiagoarekin landu dira – albisteen %35,18an–, eta kasuen %1,85ean baino ez dira emakumeak gizonak baino sakonago landu.

Datuei urteka erreparatuz gero, 30. taulan bilakaera bat nabari da 2018tik 2022 urtera: geroz eta gehiago dira gizonak sakonago lantzen dituzten albisteak. Horrela, 2018an eta 2020an nagusitu egiten ziren trataeran desberdintasunik ez zuten albisteak, kasuen %68,57 eta %75, hurrenez hurren. Bi urte horietan, gainera, trataera bera ematen ez zenean, gizonak sakonago lantzen ziren –2018an kasuen %31,40an eta 2020an kasuen %22,70ean–. Emakumeei ez zitzaizkien ematen gizonen baino trataera sakonagoa –2020an %2,27–. 2022. urtean, baina, beherantz egiten dute gizonak eta emakumeak modu berean lantzen dituzten albiste mistoak, %37,93ra jaitsi arte, eta, beherakada horrekin batera, hazi egiten da gizonak sakonago lantzen dituen albiste misto kopurua, %58,62ra iritsi arte. Guzti horrek erakusten du albiste mistoetan gizonen eta emakumeen ematen zaien trataera albistean bertan emandako espazioaren arabera dela.

30. taula:

DV: Albiste mistoen trataera



Iturria: sorkuntza propioa

Trataeran desberdintasunak daudenean, orokorrean, gizonekin lotutako gaiak sakontasun handiagoarekin tratatzen direlako izaten da, eta, hala, emakumeenak bukaeran eta azaletik kontatu ohi dira. Hori gertatzen denean, orokorrean, gizonezkoen estropada nolakoa izango den azaltzen dute, eta jardunaldi bakoitzaren nondik norakoak azaldu: ordua, ze proba mota egingo duten, zeinek hartuko duten parte, nor den faborittoa, zer aurreikusten den... Emakumeak lantzean, ordea, kazetariak datu segida bat egiten dute informazioa emateko: noiz, non eta nor ariko diren lehia, eta liderra nor den.


El Diario Vasco eta *Berría* egunkarietan, beraz, albiste mistoak daudenean, lehenengo gizonei buruz hitz egiten da. 31. taulan ikusi daitekeenez, ordenaren banaketa hori nabariagoa da *El Diario Vasco*-n –albisteen %57an hasten da gizonei buruz hitz egiten, eta %38,55ean emakumeak aipatzen ditu lehenengo–; *Berría*-n, ordea, parekatuagoa da agerpenaren ordena: %52,83an agertzen dira lehenengo gizonak eta %47,16an emakumeak.

Urtetik urtera, gainera, bi egunkariak alderantzizko bilakaera izan dute: *Berría*-k emakumeak gero eta gehiagotan lehenengo aipatu dituen bitartean (25. taula), *El Diario Vasco*-k gero eta

gehiagotan jarri ditu gizonak lehenengo (28. taula). Horrela, 2020an eta 2022an *Berria* egunkarian gehiagotan agertu dira emakumeak gizonen aurretik, eta *El Diario Vasco*-n, orokorrean, hori ez da gertatu.

31. taula:

Berria eta *DV*: Albiste mistoetako agerpen ordena



Iturria: sorkuntza propioa

Albiste mistoen espazioaren banaketari dagokionez, puntu komun bakarra dute bi egunkariak: bietako inork ez diela emakumei gizonei baino espazio gehiago ematen (32. taula). *El Diario Vasco* egunkariak, orokorrean (kasuen %64,15ean) ez du desberdintasunik egiten albiste mistoen espazioaren banaketan, eta *Berria* egunkarian antzekoak dira gizonei espazio gehiago ematen zaien albiste kopurua (%49,05) eta espazioan desberdintasunik ez duten berriena (%47,17). Hala ere, gehiagotan ematen diete gizonei espazio gehiago. Parekidetasunaren aldetik begiratuta, beraz, datuak hobeak dira *El Diario Vasco*-n.


Bien bilakaerak, ordea, bat egiten du agerpen ordenaren bilakaerarekin; hots, alderantzizkoak dira. Horrela, *Berria* egunkarian gero eta gehiago dira espazioaren banaketaren aldetik desberdintasunik ez duten albisteak, eta, horrekin batera, gero eta gutxiagotan ematen zaie gi-

zonei espazio gehiago (25. taula). *El Diario Vasco*-n, aldiz, urteak pasatu ahala, gero eta gutxiagotan banatzen da espazioa modu parekide batean, eta gero eta gehiagotan ematen zaie espazio gehiago gizoni (28. taula).

Horiek horrela, bi egunkarietan ikus daiteke agerpen ordenak ez duela zerikusirik emandako espazio kopuruarekin: emakumeak lehenago agertu arren ez zaielako gizoni baino espazio gehiago ematen, beti espazio berdina edo gutxiago. Gizonak lehenago agertzen direnean, ordea, edo espazio gehiago ematen zaie edo emakumeen espazio kopuru bera esleitzen zaie. Espazioaren banaketan, beraz, bi egunkarietan generoak du eragina.

32. taula:

Berria eta DV: Albiste mistoen espazio banaketa



Iturria: sorkuntza propioa


Bi egunkariak hartzean, orokorrean, ez dago desberdintasunik albiste mistoetan gizoni eta emakumeei ematen zaien trataerari dagokionez, nahiz eta *El Diario Vasco*-k *Berria*-k baino desberdintasunik gabeko albiste gehiago argitaratu (33. taula). Aspektu honetan ere, biek dute alderantzizko bilakaera urteetan zehar. Alde batetik, urteek aurrera egin ahala, *Berria* egunkariak gero eta albiste misto gehiago argitaratzen ditu gizonen eta emakumeen trataera antzekoarekin (26. taula). *El Diario Vasco* egunkariak, ordea, gero eta gutxiago, eta egunkari

horretan aztertutako azken urtean gehiago dira gizonei trataera landuagoa eman dioten albisteak (29.taula).

Agerpen ordenaren eta trataeraren datuak antzekoak dira bi egunkarietan: gutxigatik bada ere, bietan nagusitzen da gizonak lehenengo azaltzen direla eta trataeran desberdintasunik ez duten albisteak. Espazioan, baina, *El Diario Vasco*-n gehiago nagusitzen dira desberdintasunik ez duten albisteak, eta *Berria*-n antzeko banatzen dira desberdintasunik ez dutenak eta gizonei espazio gehiago ematen dietenak. Orokorrean, beraz, espazioa eta trataera modu parekide batean banatzeaz hitz egitean, *El Diario Vasco* egunkariak *Berria* egunkariak baino datu hobekak ditu. Edonola ere, eta urtetik urterako bilakaerari erreparatuta, aipagarria da *Berria*-k berdintasunaren aldeko ibilbidea hautatu duela 2018tik 2022ra bitartean; *El Diario Vasco*-k, aldiz, kontrakoa.

33. taula:

Berria eta DV: albiste mistoetako trataera



Iturria: sorkuntza propioa

Trataeran desberdintasunak daudenean, bietan sakonago lantzen dira gizonezkoen berriak, emakumeenak azken –bat edo bi– paragrafoetara mugatuz. Horrela, gizonetan estropadaren nondik norakoak kontatzen dituzte: denborak, sailkapenak, teknikotasunak, gorabeherak...

eta, gainera, aurreko jardunaldiei ere erreferentzia egiten diete. Emakumeen jardunarekin lotutako berriak, aldiz, azaletik kontaktzen dira, sailkapen eta denboretara mugatuz. Prebiak direnean ere antzekoa da gaien banaketa: gizonek non eta noiz jokatuko duten, zer egin behar duten, zeintzuk diren aurreikuspenak, aurreko jardunaldiei erreferentzia... Emakumeetan, ordea, non eta noiz egingo den estropada eta nor den faborittoa.

Laburbilduz, bi egunkarietan esan daiteke albisteei ematen zaien trataera espazioaren araberakoa dela, eta, era berean, espazioaren banaketa generoaren araberakoa dela. Horrela, oro har, espazioaren banaketa parekidea egiten da, baina horrela ez denean, beti gizoni emakumeei baino espazio gehiago ematen zaie, eta ez alderantziz. Ematen zaien espazio horrek, gainera, ez du zerikusirik albistean duten agerpen ordenarekin.

5. Ondorioak

Egunkarietako albisteen analisisa egin ondoren, hainbat dira atera daitezkeen ondorioak, eta jarraian azalduko ditut, hasieran aipatutako helburuei erantzuna emateko. Horretarako, analisisan garatutako ideien laburpen zehatza egitea da asmoa, aurretik egin diren gaiari buruzko ikerketekin alderatuz.

Oro har, ikusi da egunkari jeneralistetan, hedabide bakoitzak bere irizpideak hartzen dituen arren, badaudela emakume kirolariekin zerikusia duten eta egunkari guztietan erreproduzitzen diren zenbait joera. Eta, horiek, oro har, espazioaren banaketarekin lotura dutela.

Traineru estropadetan diharduten emakumeen **presentziari** dagokionez, egunkariak antzeko presentzia ematen diete emakumeei eta gizoni; erdia, gutxi gorabehera. Hau da, traineru estropadei buruz agertzen diren albiste guztietatik, erdietan dira emakumeak protagonista.

Emakume arraunlariek egunkarietan duten presentziaren bilakaerari dagokionez, aipatzekoa da *Berria* egunkarian 2022. urtean jaitsi egiten direla emakumeen traineru estropadei buruzko albisteak. Horren arrazoia izan daiteke ETE ligari buruzko albisteek behera egiten dutelako urtetik urtera, eta 2022an ia ez dira ageri. *El Diario Vasco*-n, aldiz, emakume arraunlariek duten presentzia hori mantendu egiten da urteetan zehar.

Ikusgarritasunarekin eta presentziarekin lotuta dago albisteei ematen zaien tamaina; izan ere, albistea gero eta handiagoa izan, orduan eta gehiago ikusten da, eta orduan eta garrantzi handiagoa ematen zaio. Orokorrean, *Berría* egunkariak *El Diario Vasco* egunkariak baino tamaina handiagoa ematen die emakumeei buruz ari diren albisteei. Izan ere, bietan gailentzen dira albiste nagusiak, baina horiek eta gero, *Berría*-k batez ere orri osoko albisteak erabiltzen ditu, eta *El Diario Vasco*-k berri laburrak. Albiste nagusien protagonismoak kontra egiten dio Sainz de Barandak (2013:245) eta Labakak (2016:37) diotenari: haien arabera, emakume kirolariei buruz aritzean, gehien-gehienetan albiste laburrak erabiltzen dira.

Hala ere, Sainz de Barandak (2013:247) arrazoi du esaten duenean albiste laburrak gero eta gehiago erabiltzen direla. Hori konfirmatu ahal izan da *Berría* eta *El Diario Vasco*-ren kasuan: *Berría*-n beste albiste baten barruan agertzen diren albisteek gorakada izan dute, eta *El Diario Vasco*-n ia maila berean erabiltzen dira albiste nagusiak eta laburrak; bigarren mailako albisteak ere badira gehien erabiltzen dituenetakoak.

Gehien erabiltzen den albiste mota informatiboa da, eta, ondoren, *Berría*-n erreportajea –nagusiak eta gero orri osokoak erabiltzen direlako– eta *El Diario Vasco*-n prebia. Emaitza hori bat dator Sainz de Barandak (2013:245) adierazitakoarekin: informatiboa dela nagusitzen den kazetaritza generoa. Horrez gain, *Berría*-ren eta *El Diario Vasco*-ren azterketek berresten dute Pedrazak dioena: informazio horietan lehiaketako emaitzak agertzen direla, hain zuzen.

Espazioari dagokionean, biek ala biek ematen diete gizoni emakumeei baino espazio gehiago. Gizoni gutxienez orri oso bat ematen zaie, eta emakumeei hori baino gutxiago. Bi egunkarien artean, ordea, desberdintasunak nabari dira: *Berría*-n *El Diario Vasco*-n baino desberdintasun txikiagoa antzematen da gizoni eta emakumeei ematen zaien espazioaren artean.

Bi egunkarietan, gainera, oro har, gizonen albisteak emakumeen albisteen aurretik ageri dira. Datuen bilakaerari dagokionean, *El Diario Vasco* egunkariak izan du bilakaerarik nabariena: *Berría*-n datuak konstante mantendu diren bitartean, *El Diario Vasco*-n gero eta gehiagotan agertu dira emakumeak gizonen aurretik –2018an behin ere ez ziren gizonen aurretik agertu, eta, hala, 2020 eta 2022an *Berría*-n baino gehiagotan agertu ziren emakumeak lehenengo.

Esan daiteke orokorrean ez dagoela loturarik lorpenen, espazioaren eta agerpen ordenaren artean, baina bai generoaren eta emandako ordenaren eta espazioaren artean. Hau da, kirolariari ematen zaien espazioa eta agerpen ordena ez da eskuratu dituzten emaitzen arabera. Horrela, nahiz eta gizonak eta emakumeak lehenengo postuan geratu –eta estropada gehiago irabazi–, gizonak emakumeak baino lehenago agertuko dira egunkarietan, eta espazio gehiago emango zaie –egunkariaren arabera, orri bat edo orri eta erdi–.

Horrek berretsi egiten du Martinezek, Lasartek, Gamitok eta Vizcarrak adierazitakoa (2020:7): “[Emakume kirolariak] Ikusezin bihurtu dituzte, eta haien lorpenek ez dute bat egin hedabideetan eman zaien espazioarekin, eta ez da nahikoa izan onak izatea eta dominak irabazi izana”. Hau da, gaur egungo kirol programazioa ez dela antolatzen kirolariak eskuratzen dituzten lorpenen arabera, generoaren eta kirol jakin batzuen arabera baizik (2020:7). Horrez gain, bildutako datuak oinarri hartuta, bat egingo Labakak dioenarekin (2016:41): emakumeak agertzen direnean, gizonezkoen informazioaren ondoren agertu ohi direla.

Bi egunkarietan ematen zaie azalean antzeko presentzia emakumei eta gizonari, eta bietan emakumeek azalean duten presentzia handitzen doa. Hala ere, nabariagoa da *El Diario Vasco*-k bigarren mailako posizio bat ematen diela emakumei egunkariako azalean: gizonak agertzen direnean euren albistearen barruan agertzen dira, eta inoiz ez alderantziz.

Oro har, gizonek idazten dituzte traineru estropadei buruzko albisteak, eta oso momentu puntualetan agertzen da emakumeen sinadura: *Berría*-n analisisietan eta *El Diario Vasco*-n Kontxako Banderako gehigarrian. *Berría* egunkarian idazten dutenak, gainera, ez dira kazetariak, kirolariak baizik. *El Diario Vasco*-n idazten dutenak kazetariak izan arren, euren jardueraren taldeen fitxak idaztera mugatzen da. Esan daiteke beraz, traineru estropadei buruz ari garenean, behintzat, emakumeek ez dutela informazioa sortzen; aztertutako urteetan zehar, oso momentu puntualetan agertu direlako horri buruz ari diren emakume kazetariak²³.

Emakumeen traineru estropadei buruzko albisteak, oro har, hiru zutabeko argazki batekin argitaratzen dira, jarrera pasiboan eta kirol eremuan murgildurik. Arraunlariak, beraz, garaipen bat ospatzen agertu ohi dira argazkietan. *El Diario Vasco*-n albiste kopuru antzekoan agertzen dira 3 eta 2 zutabeko argazkiak eta horrek zerikusia du egunkari horrek albisteei ematen dien

²³ Traineru estropadei buruzko albisteei buruz ari bagara ere, ondorio hori gainontzeko kirolek es-
trapolatu daiteke. Izan ere, kirol sailetan gizonezko kazetariak dira nagusi.

tamainarekin: nagusiak eta laburrak. *Berria*-n, aldiz, nagusiak eta hortik gorakoak izaten dira ohikoenak, eta argazkien tamainak ere horrekin bat egiten du 3 edo 4 zutabekoak izaten dira.

Hala, Sainz de Barandak (2013:380) arrazoi du aipatzen nagusitu egin direla estereotiporik transmititzen ez dituzten argazkiak, aztertutako albiste guztietan ia ez baitira agertu horrelakoak. Lan honekin lortutako emaitzak, gainera, bat datoz Labakak (2016:42) azaldukoarekin: ohikoagoa dela emakumeak kirol lehiaketan edo praktikan baino jarrera pasiboan edo argazkirako posatzen agertzea.

Albiste mistoetako argazkietan, ohikoagoa da gizonak bakarrik agertzea argazkietan. Hala ez denean, gizonak eta emakumeak agertzen dira, baina gizonen eta emakumeen buruz ari den albiste batean oso gutxitan azaltzen dira emakumeak bakarrik. Gai horretan, egunkarietarako alderantzizko bilakaera izan dute: *Berria*-k gizonak bakarrik agertzen diren gero eta irudi gutxiago argitaratzen dituen bitartean, *El Diario Vasco*-k orduan eta gehiago argitaratzen ditu. Hala, *Berria*-k irudi mistoetan goranzko joera du, eta *El Diario Vasco*-k beheranzkoa.

Trataerari dagokionez, gehien nagusitzen den gaia lehiaketa edo txapelketa da, eta, beraz, emakumeen traineru txapelketei buruzko albisteetan, ligaren edota txapelketen nondik norakoez ari dira. Horrek ere indartu egiten du aurretik esandakoa: albisteetako gai nagusia lehia izaten dela (Sainz de Baranda, 2013:345).

Orokorrean, kazetarietarako ez dute zehazten emakumeen buruz ari direla, ezta albiste mistoetan ere; eta zehaztuz gero, ohikoena da gizonak eta emakumeak zehaztea. Izan ere, ez dago horretarako beharrik, liga bakoitzaren izenarekin identifikatzen delako gizonen edo emakumeen buruz ari den. Emakumeen traineru estropadetan *El Diario Vasco* eta *Berria* egunkarietan jazotzen den joera horrek, kontra egiten dio Labakak adierazitakoari (2016:48): emakumeek praktikatu duten kirolaren ondoren *femenino* hitza agertzen dela, eta gizonen kasuan, ez dela *maskulino* jartzen, hain zuzen.

Orokorrean, kazetariak hartzen du hitza, eta berak ematen du estropadari buruzko informazioa. Hala ere, badaude desberdintasunak aztertutako bi egunkarietarako; izan ere, *Berria*-k gehiagotan ematen die hitza kirolarietarako, eta, beraz, emakumeek hartzen dute hitza, jakiteko euren ahotik nola joan den lehia eta aurrera begirako aurreikuspenak kirolarien azaletik egiteko.

Orokorrean, protagonistei (taldeei) taldearen izenez egiten zaie erreferentzia, eta, horrekin batera, ontziaren izena edo herriaren izena ere erabili ohi da. Kirolariak gehienetan ez dira ezerekin lotzen, estropadaren informazioa ematen delako orokorrean, talde bakoitza aipatuz. Baina zerbaitekin lotzekotan, arrakastarekin edo anbizioarekin lotzen dira kirolariak, estropada asko irabazi dituztelako edota hurrengo txapelketaren bila doazelako. *El Diario Vasco* egunkarian ere ohikoa da taldeei erreferentzia egiteko beste formula batzuk erabiltzea: *las de, las chicas de...* Entrenatzaileari erreferentzia eginez; oso gutxitan ageri da “*el equipo entrenado por*” –...k entrenatutako taldea– edo “*el equipo de*” –entrenatzailearen taldea–. Formula hori gutxiagotan agertzen da *Berria*-n, baina agertzen denean “entrenatzailearen taldea” bezala agertzen da. Badaude salbuespenak eta bietan ala bietan, *chavalas* edo *neskak* erabiltzen denean, orokorrean, entrenatzailearen hitzetan erabiltzen da.

Estereotipoak ere ez dira agertzen gehienetan, baina agertzekotan, kirolariak emozioekin edo emozionalitatearekin lotzen dira, edo amatasunarekin –*El Diario Vasco*-n, bereziki–. Argiago ikusten da hori albiste mistoetan; izan ere, gizonen aipuak estropadaren eta teknikotasunaren ingurukoak diren bitartean, emakumeenak emozioekin –edo amatasunarekin– lotutakoak izaten dira. Gutxitan egiten zaie erreferentzia kirolarien senideei edo kirolaz kanpoko jardueri, eta ematen zaienean, bi egunkarietan antzeko proportzioan eman ohi zaie: %7 inguruan, eta arlo profesionalari, senideei –bikotekideei edo gurasoei– eta amatasunari buruzkoak izaten dira.

Aurreko hori lotuta dago Pedrazak (2012:54) azaltzen duenarekin: besteak beste, emakumeak etxeko rolaekin lotzen direla. Era berean, etxeko rol horrekin dago lotuta familia egoera edo harremanei buruz egindako aipamenak, eta, horietan, batez ere ama edo emaztearen rola nabarmentzen da; izan ere, emakumeak gizonak baino lau aldiz gehiago identifikatzen eta lotzen dira familia harremanekin (Hasan eta Gil, 2014).

Emakumeak eta gizonak albiste berean agertzen direnean, lehenengo ematen den informazioa gizonari buruzkoa izaten da. Hala ere, desberdintasunak nabari dira ikertutako bi egunkarien artean: *Berria*-n parekatuagoa da emakumeak eta gizonak lehenengo agertzen diren aldi kopurua; *El Diario Vasco*-n, ordea, handiagoa da desberdintasuna. Egunkari bakoitzaren joera ere kontrakoa da: *Berria*-n gero eta gehiagotan ateratzen dira emakumeak lehenengo; *El Diario Vasco*-n, gero eta gutxiagotan.

Albiste misto horien barruan egiten den espazio banaketa ere desberdina da bi egunkarietan, baina biek partekatzen duten puntua da bietako inork ez diela espazio gehiago ematen emakumeei; oro har, bietan gizonak emakumeek baino espazio gehiago hartzen dute. Horrela, *El Diario Vasco*-k, albiste gehienetan espazioa erdibana banatzen du gizonen eta emakumeen artean, eta *Berria*-n ia albiste kopuru berdinean ematen zaie gizonari espazio gehiago eta gizonari eta emakumeei espazio berdina. Datua, beraz, parekideagoa da lehenengo kasuan. Hala ere, espazio banaketan parekidetasuna lortzeko, biek ala biek dute oraindik bidea egiteko.

Horrez gain, agerpen ordenak eta bakoitzari ematen zaion espazioak ez du zerikusirik: gizonak lehenengo agertzen direnean edo haiei ematen zaie espazio gehiago edo espazioa berdin banatzen da. Emakumeak lehenengo agertzen direnean, baina, espazioa berdin banatzen da; emakumeak ez dira sakonago lantzen. Emandako espazioak, beraz, generoarekin du lotura, eta ez agerpen ordenarekin. Hemen, beraz, beste behin berresten da Martinezek, Lasartek, Gamitok eta Vizcarrak azaldutakoa (2020:7): kirol programazioa generoaren arabera antolatzen dela, hain zuzen.

Urtetik urtera, ordera, bi egunkariak kontrako bilakaera dute: *Berria*-n gero eta gehiago dira espazioa berdin mantentzen duten albiste mistoak, eta, era berean, gero eta gutxiago dira gizonari espazio gehiago ematen dietenak. *El Diario Vasco*-n, aldiz, gero eta gehiago dira gizonari espazio gehiago ematen dieten albiste mistoak, eta gero eta gutxiago espazioa modu berean banatzen dutenak. Bilakaera beraz, positiboagoa da *Berria* egunkarian.

Albiste mistoen trataerari dagokionez, orokorrean, gizonari eta emakumeei trataera bera ematen zaie, eta emakumeei ez zaie inoiz trataera sakonagoa ematen. Albisteetan emakumeei eta gizonari trataera bera ematen ez zaienean, ordea, gizonak modu sakonagoan lantzen dira. Izan ere, trataera espazioarekin dago lotuta: gero eta espazio gehiago izan, orduan eta sakonago lantzen da. Eta hori gertatzen da albiste mistoetan: orokorrean espazio bera ematen zaienez emakumeei eta gizonari, biek trataera bera ematen zaie.

Trataera bera ematen ez zaienean, gizonak sakonago tratatzen dira, emakumeak azken paragrafoetara mugatuz. Aipatu bezala, gizonak agertzen dira lehenengo, eta haiei ematen zaie espazio handiagoa. Horrela, gizonetan estropadaren nondik norakoak kontatzen dituzte,

xehetasunez, eta aurreko egunetako jardunaldiei ere egiten diete erreferentzia. Emakumeei buruzkoak, ordea, azaletik kontaktzen dira, sailkapen eta denboretara mugatuz.

Berria eta *El Diario Vasco* egunkarien bilakaerari dagokionez, esan daiteke *Berria* egunkarian emakumeen traineru estropadek duten presentziak behera egin duela, baina berrien lanketari lotuta dauden aldagaiek hobera egin dutela, trataera parekideago baten bidean. *El Diario Vasco* egunkarian, aldiz, presentzia bere horretan mantendu da, baina trataerak okerrera egin du parekidetasunari dagokionean.

Horrez gain, ikus daiteke bi egunkarietako badituztela elkarren arteko puntu komun batzuk, eta, horiek, gehienetan, aurretik azaldutakoarekin bat egiten dutela. Horiek horrela, esan daiteke emakume kirolarietako egunkarietan duten presentzia eta trataerari buruzko joera komun batzuk daudela.

6. Balorazio pertsonala

Interesgarria izan da lan hau egitea, espero ez nituen gauzekin topatu naizelako, baina, batez ere, arlo pertsonalean ikasteko eta hazteko balio izan didalako. Hasteko, lan hau egiteko denbora kudeatzea zaila egin zait: azkenean, hasieran uste nuena baino denbora gutxiago izan dut lan honetan zentratzeko, ez naiz uste bezain lasai ibili, eta horrek sortzen zidan egonezina kontrolatzen ikastea kosta zait: gauza argia da ezin dugula den-dena kontrolatu, eta pixkanaka joan naiz egoerara moldatzen, ekiteko moduak aldatzen eta denboretara egokitzen.

Denbora horietara egokitzeko modu bat izan da, esaterako, 2018tik 2022ra bitarteko urte guztietako albisteak aztertu beharrean, tartekatutako urteak ikertzea. Horrek urte gutxiago ikertzeko aukeraz gain, denboran zeharreko bilakaerari erreparatzea ahalbidetu dit.

Denboraz gain, aztertzeko nuen albiste kopurua ere izan da ezusteko bat: *Berria* ikertzen hasi nintzen, eta horren arabera kalkulatu nuen egun bakoitzean zer ikertu behar nuen analisia lasai hartu ahal izateko. Ez nuen kontuan hartu *El Diario Vasco*-k *Berria*-k baino orri gehiago dituela, eta albiste gehiago argitaratzen dituela: *Berria*-k traineru estropaden inguruan urtebetean argitaratzen dituen albisteak plazaratzen ditu *El Diario Vasco*-k hilabete bakarrean. Gainera, jasotako datuen analisiarekin hastean, hainbeste datuarekin moldatzea ere ez zait erraza egin; izan ere, datu base handia nuen, eta, agian, lagina gehiago mugatzea lagungarria izan

zitekeen, astegun guztiak aukeratu beharrean hiruzpalau aukeratuz. Gerora, ordea, joan naiz pixkanaka datuekin, grafikoekin eta denborarekin moldatzen, eta geroz eta errazago egiten.

Behin albisteekin hasita, uste nuen bi egunkarien artean, trataerari dagokionean, desberdintasun handiagoak aurkituko nituela, eta espero nuen estereotipo gehiagorekin topo egitea, baina ez da hala izan. Hala ere, trataera horren urtetik urterako bilakaeran aurkitu ditut desberdintasunak.

Ikerketa egiten ari nintzen bitartean, tarteka, amorratu egin naiz gizonei eta emakumeei ematen zitzaien espazio desberdintasunarekin, baina, era berean, gustatu zait datu horiek apuntatu eta azalratzea; orokorrean, gustatu zait egunkariek emakume kirolariei ematen dieten presentzia aztertzea.

Era berean, aurrera begirako galderak ere sortu zaizkit: Nola jasotzen dute emakume arraunlariek egunkarietan ematen zaien errepresentazioa eta trataera? Galdera horren erantzunak osotasun handiagoa emango lioke ikerketa honi; izan ere, ateratako datuak emakume kirolarien bizipenekin kontrastatuko lirateke.

Azkenik, interesgarria izango litzateke gertaera jakin bat hartu eta horri buruzko azterketa sakona egitea: ze trataera eman zaio hedabide desberdinetan, ze espazio? Zer gertatzen da gizonek horixe bera irabazten dutenean? Egunkariak ez ezik, telebista edota irratia ere hartu daitezke kontuan. Adibide bat jartzeko emakumeen eta gizonen Frantziako Tourra izan daiteke, edo futboleko Munduko Kopa. Konparaketa horretan kazetaritza feminista lantzen duen hedabide bat sartzea ere interesgarria izango litzateke.

7. Bibliografia

Abela, Jaime Andréu (2002). *Las técnicas de Análisis de Contenido: Una revisión actualizada* [PDF Artxiboa]. <https://abacoenred.com/wp-content/uploads/2019/02/Las->

[t%C3%A9cnicas-de-an%C3%A1lisis-de-contenido-una-revisi%C3%B3n-actualizada.pdf](#)

Alberdi, Uxue (2019). *Kontrako eztarritik*. Susa.

Alfaro, Elida; Bengoechea, Mercedes; eta Vazquez, Benilde (2010). *Hablamos de deporte. En femenino y en masculino*. Instituto de la Mujer. <https://redined.educacion.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/66746/00820122017222.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Alfaro, Elida; Mayoral, Angel; eta Vazquez, Benilde (2019). *Factores que condicionan el acceso de las mujeres a los puestos de responsabilidad en el deporte*. Consejo Superior de Deportes. <https://www.csd.gob.es/sites/default/files/media/files/2019-04/Factores%20%28NIPO%29.pdf>

Aretxaga, Begoña (1988). *Los funerales en el nacionalismo radical vasco*. Casa Baroja.

Barjola, Nerea (2018). *Microfísica sexista del poder. El caso Alcàsser y la construcción del terror sexual*. Virus argitaletxea

Barrera, Lulu V.; Cerero, Nohemi; eta Plasencia, Itzel (2021eko abuztuak 9). Las campeonas que hicieron de Tokyo 2020 unos juegos feministas. *The Washington Post*. <https://www.washingtonpost.com/es/post-opinion/2021/08/09/juegos-olimpicos-tokio-2020-campeonas-medallas-mujeres/>

Berria (2018ko abuztuak 28). Kontxako Banderako diru sarietan parekidetasuna izango da lehen aldiz. *Berria*. <https://www.berria.eus/albisteak/156045/kontxako-banderako-diru-sarietan-parekidetasuna-izango-da-lehen-aldiz.htm>

Berria (d.g.a). *Berria taldea ezagutu*. <https://www.berria.eus/berrialaguna/berriataldea>

Berria (d.g.b). *Estilo liburua. Generoak*. <https://www.berria.eus/estiloliburua/eliburua/informazioa%20eta%20interpretazioa#40>

Boronat, Danae (2021). *No las llames chicas, llámanos futbolistas. Del maltrato al reconocimiento: La lucha por la igualdad en el fútbol*. Libros Cúpula.

Cancela Gordillo, Rocío; Cea Mayo, Noelia; Galindo Lara, Guido; eta Valilla Gigante, Sara (2010). *Metodología de la investigación educativa: Investigación ex post facto* [PDF Artxiboa]. http://www.formaciondocente.com.mx/06_RinconInvestigacion/01_Documentos/Metodologia%20de%20la%20Investigacion%20Educativa.pdf

De Moragas, Miquel (1994). Deporte y medios de comunicación. Sinergías creciente. *Telos aldizkaria*, (38). https://ddd.uab.cat/pub/artpub/1994/106417/telos_a1994n38p58.pdf

- Diaz Noci, Javier (2012). Historia del periodismo vasco (1600-2010). *Mediatika. Cuadernos de Medios de Comunicación*, 13, 11-259. <https://ojs.eusko-ikaskuntza.eus/index.php/mediatika/article/view/22>
- Diez, Carmen (1996). Deporte y socialización Rita M^a Radl Philipp-en (Ed.), *Mujeres e institución universitaria en Occidente. Conocimiento, investigación y roles de género* (318-324 or.). Compostelako Unibertsitatea. <http://hdl.handle.net/10347/8790>
- Diez, Carmen (2006). Juventud y deporte. Una propuesta de cambio en la organización tradicional de la actividad deportiva. *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, LXI(2), 129-144. <https://doi.org/10.3989/rdtp.2006.v61.i2.18>
- EITB (2017ko abuztuak 28). Bandera eta 24.000 euro, Kontxako txapelaren zatiak. *Eitb.eus*. <https://www.eitb.eus/eu/kirolak/arrauna/osoak/5044943/kontxako-bandera-2017-estropadetako-sariak/>
- El diario vasco (2023ko apirilak 19). El Diario Vasco refuerza su liderazgo absoluto en Gipuzkoa y suma 22.000 lectores en un año. *El Diario Vasco*. <https://www.diariovasco.com/gipuzkoa/diario-vasco-refuerza-liderazgo-egm-20230419165057-nt.html>
- Emakumeen traineru elkarteak (d.g.). *Aurkezpena*. <https://www.ligaete.com/eu/ete/historia>
- Erredakzioa (2023ko apirilaren 20a). Marca se mantiene como periódico impreso más leído en España, seguido de El País y El Mundo. *Laboratorio de Periodismo*. <https://laboratoriodeperiodismo.org/marca-se-mantiene-como-periodico-impreso-mas-leido-seguido-de-el-pais-y-el-mundo/>
- Etxeberria, Julen (2021ko irailak 28). «Ea hau mugarririk den emakumezko gehiago animatzeko». *Berria*. <https://www.berria.eus/paperekoa/1857/022/001/2021-09-28/ea-hau-mugarria-den-emakumezko-gehiago-animatzeko.htm>
- Euskaltzaindia (d.g.). Herri kirol. *Euskaltzaindia*-n. 2023ko ekainaren 2an hartua. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabiltatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu-ES&nondik=0&zenbat=100&non=sarreraBuruaS-tract&query=herri+kirol&subcMota=&pos=&usgDomain=&usgGeo=&usgBeste=&usgReg=
- Eusko Jaurlaritza (d.g.). *Herri kirolak TRAINERU-ESTROPADAK*. https://www.euskadi.eus/kirol-autoktonoak/web01-a2kirola/eu/deporte01_e.html
- Eusko Jaurlaritza (2006ko apirilak 5). *Herri Kirolen Plan Estrategikoa (2006-2010)*. https://www.euskadi.eus/web01-s2osa/eu/contenidos/nota_prensa/herri_kirolak_plan_estrategiko/eu_15553/herri_kirolak.html

- Eusko Jaurlaritz (2020). *Estropadak*. https://turismoa.euskadi.eus/aa30-12377/eu/contenidos/informacion/deporte_vasco/eu_def/regata.html
- Eusko Label Liga (d.g.). *Zarautz Gesalaga-Okelan. Historia*. <https://www.euskolabelliga.com/clubes/index.php?c=15&id=eu>
- Euskotren Liga (d.g.a). *Resultados 2022*. <https://www.euskolabelliga.com/femenina/resultados/index.php?id=es&t=2022>
- Euskotren Liga (d.g.b). *ACT. Historia*. <https://www.euskotrenliga.com/femenina/contenidos/index.php?id=eu&s=6>
- Gonzalez-Abrisketa, Olatz (2013). Cuerpos Desplazados. Género, deporte, y protagonismo cultural en la plaza vasca. *AIBR. Revista de Antropología Iberoamericana*, 8(1), 231-249. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4656358>
- Hasan, Valeria F., Gil, Ana Soledad (2014). Estrategias del periodismo feminista: prácticas y política en la reconfiguración del espacio comunicacional. *Perspectivas de la Comunicación*, 7(2), 42-54. <https://www.perspectivasdelacomunicacion.cl/ojs/index.php/perspectivas/article/view/360>
- Hedabideak Ikertzeko Elkarte (2023). *Ranking de Diarios*. <https://reporting.aimc.es/index.html#/main/diarios>
- Hiru.eus (d.g.). *La prensa escrita en Euskadi*. <https://www.hiru.eus/es/medios-de-comunicacion/la-prensa-escrita-en-euskadi1>
- Labaka, Maddi (2016). *Emakume kirolarien presentzia eta irudia gipuzkoako egunkari nagusienetan (2015)* [Gradu Amaierako Lana, Euskal Herriko Unibertsitatea]. https://www.google.com/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=&cad=rja&uact=8&ved=2ahUKEwiWsqvBqeyAAxU-vxQIHHYzaBK4QFnoECBgQAQ&url=https%3A%2F%2Faddi.ehu.es%2Fhandle%2F10810%2F19980&usq=AOvVaw39aW-mT6lrk_NhCiT7RVdr&opi=89978449
- Leoz, D. (2015). La influencia de los medios de comunicación en el proceso de socialización y la importancia de la coeducación para la igualdad. *Hachetetepé. Revista científica de Educación y Comunicación*, (11), 131-140. <https://dx.doi.org/10.25267/Hachete-tepe.2015.v2.i11.1>
- Macias, Ana; Unsain, Jose Maria; Romano, Soco; eta Iza, Ana (2016). *Emakumeak eta itsasoa*. Untzi Museoa. <https://itsasmuseoa.eus/wp-content/uploads/2021/07/emakumea-eta-itsasoa.pdf>

- Macias, Victoria (1999). *Estereotipos y deporte femenino. La influencia del estereotipo en la práctica deportiva de niñas y adolescentes* [Doktorego Tesia, Granadako Unibertsitatea]. <https://digibug.ugr.es/bitstream/handle/10481/778/15755368.pdf?sequence=1>
- Manterola, Aitor (2018ko ekainak 22). «Emakumeok eman egin behar dugu eskatu aurretik». *Berria*. <https://www.berria.eus/paperekoa/1864/024/001/2018-06-22/emakumeok-eman-egin-behar-dugu-eskatu-aurretik.htm>
- Manterola, Aitor (2018ko uzatailak 19). Ilusioak beste distira bat dauka. *Berria*. <https://www.berria.eus/paperekoa/1996/020/001/2018-07-19/ilusioak-beste-distira-bat-dauka.htm>
- Marcos, Nagore (2021ko uztailak 27). Maialen Chourraut, la madre más brava. *Deia*. <https://www.deia.eus/juegos-olimpicos/2021/07/27/maialen-chourraut-madre-brava-1946203.html>
- Martinez, Francisco (2021ko uztailak 2). La admiradora de Nadal que ha destronado a Ledcky en los 400 libres. *La Razón*. <https://www.larazon.es/deportes/juegos-olimpicos/20210726/alalxhjpbocrpfrn7m3qtuywei.html>
- Martinez, Judit; Lasarte, Gema; Gamito, Rakel; eta Vizcarra, Maria Teresa (2020). La programación deportiva ¿qué lugar ocupan las mujeres?. *Revista Estudios Feministas*, 28(2), 1-15. <https://doi.org/10.1590/1806-9584-2020v28n260585>
- Mendizabal, Iñaki; Lizarraga, Kepa eta Fuentes, Jose Manuel (2009). *Guía para la enseñanza de herri kirolak*. Eusko Jaurlaritzak. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/kirol_eskola_argitalpenak/es_def/adjuntos/Herri_Kirolak_es.pdf
- Mujika, Beñat (2023ko martxoak 19). Hazia ereiten, fruitua lortzeko. *Berria*. <https://www.berria.eus/paperekoa/1944/029/001/2023-03-19/hazia-ereiten-fruitua-lortzeko.htm>
- Nazioarteko Olinpiar Batzordea (2020). *Carta Olímpica. Nazioarteko Olinpiar Batzordea*. <https://stillmed.olympic.org/media/Document%20Library/OlympicOrg/General/ES-Olympic-Charter.pdf>
- Obregon, Angel (2021). Regatas de traineras: de la pesca al deporte. *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, (39), 65-80. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFAnlt/zainak/39/39065080.pdf>
- Osa, Miren (2018). *Indarkeria matxistaren trataera prentsa idatzian: Berria egunkariaren bilakaera* [Gratu Amaierako Lana, Euskal Herriko Unibertsitatea]. <https://addi.ehu.es/handle/10810/27945?show=full>

- Otaegi, Julen (2023ko martxoak 23). Munduko Atletismo Federazioak debekatu egin die emakume transei nazioarteko lehiaketetan parte hartzea. *Berria*. <https://www.berria.eus/albisteak/225936/munduko-atletismo-federazioak-debekatu-egin-die-emakume-transei-nazioarteko-lehiaketetan-parte-hartzea.htm>
- Ott, Sandra (1992). Indarra: Algunas reflexiones sobre un concepto vasco Julian Pitt-Riversen (Ed.), *Honor y gracia* (252-277 or.). Alianza.
- Pedraza, Claudia Ivette (2012). Mujeres en el periodismo deportivo: reflexiones para comprender la transgresión desde la práctica discursiva de las reporteras de deportes. *Derecho a comunicar. Revista científica de la Asociación Mexicana de Derecho a la Información*, (4), 47-67. <https://biblat.unam.mx/hevila/Derechoacomunicar/2012/no4/4.pdf>
- Perez, Celeste (2022ko otsailak 21). Historia de la mujer en el deporte. *Journey Sports*. <https://journey.app/blog/historia-de-la-mujer-en-el-deporte/>
- Prieto, Javier A. (2021ko urriak 6). El deporte rural vasco deja de ser exclusivo de hombres: "En el caserío daba igual la edad y el género". *Antena 3*. https://www.antena3.com/noticias/deportes/deporte-rural-vasco-deja-ser-exclusivo-hombres-caserio-daba-igual-edad-que-tenias-genero_2021102661780c30d4e44e000106969b.html
- Programa Prensa-Escuela (2007ko azaroak 7). *¿Por qué las noticias más importantes se sitúan en páginas impares?*. <https://www.prensaescuela.es/por-que-las-noticias-mas-importantes-se-situan-en-paginas-impares/>
- Real Academia Española. (d.g.). Ex post facto. *Diccionario de la lengua española*-n. 2023ko abuztuaren 17an hartua, <https://dpej.rae.es/lema/ex-post-facto>
- Rivera, Almudena (2016ko abuztuak 11). Maialen Chourraut, una madre de oro. *Marca*. <https://www.marca.com/juegos-olimpicos/2016/08/11/57acbf27e2704e4e778b460f.html>
- Riverola, Roser (2011ko urtarrilak 25). Páginas impares y e plus de notoriedad. *AD-MASSMEDIA*. <https://ad-massmedia.blogspot.com/2011/01/paginas-impares-y-el-plus-de-notoriedad.html>
- Rojas, Angela Maria eta Vargas, Elvia (2010). Salud, género y medios de comunicación. *Folios. Revista de la Facultad de Humanidades*, (23), 45-68. <https://revistas.udea.edu.co/index.php/folios/article/view/11784/10712>
- Sainz de Baranda, Clara (2013). *Mujeres y deporte en los medios de comunicación. Estudio de la prensa deportiva española (1979-2010)* [Doktorego Tesia, Madrilgo Carlos III Unibertsitatea]. <https://e-archivo.uc3m.es/handle/10016/16505>

Universidad Europea (2022ko azaroaren 24a). *Deportes y medios de comunicación*.
<https://universidadeuropea.com/blog/deportes-medios-comunicacion/>

8. Eranskinak

Eranskina 1

	A	B	C	D	E	F	G	H	I
1		BERRIA				EL DIARIO VASCO			
2	Egunak	Arraun albisteak Emakumean protagonista Nagusi+			Mistoa?	Arraun albisteak Emakumeak protagonista		Nagusi+	Mistoa?
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									
11									
12									
13									
14									
15									
16									
17									
18									
19									
20									
21									
22									
23									
24									

Eranskina 2

	A	B	C	D	E	F	G	H	I
1	Urtea	Egunkaria	Albistea	Generoa	Postua	Jardunaldietako lorpenak		Zutabe kopurua	Agerpen ordena
2	2018	berria	1 h		1	2 de 2	1	5	1
3	2018	berria	1 m		1	1 de 1	1	4	2
4	2018	berria	2 h		1	3 de 4	0,75	5	1
5	2018	berria	2 m		1	3 de 3	1	3	2
6	2018	berria	3 h		1	5 de 6	0,83	5	1
7	2018	berria	3 m		1	5 de 5	1	3	2
8	2018	berria	4 h		1	7 de 8	0,87	6	1
9	2018	berria	4 m		1	7 de 7	1	3	2
10	2018	berria	5 h		1	2 de 10	0,2	5	1
11	2018	berria	5 m		1	9 de 9	1	3	2
12	2018	berria	6 h		1	1 de 12	0,083	5	1
13	2018	berria	6 m		1	1 de 12	0,083	3	2
14	2018	berria	7 m		1	11 de 12	0,91	6	1
15	2018	berria	7 h		1	1 de 3	0,077	2	2
16	2018	berria	8 m		1	1 de 1	1	9	1
17	2018	berria	8 h		1	1 de 1	1	5	2
18	2020	berria	9 h		1	1 de 1	1	6	1
19	2020	berria	9 m		1	1 de 1	1	3	2
20	2020	berria	10 h		1	1 de 3	0,33	5	1
21	2020	berria	10 m		1	2 de 3	0,66	3	2
22	2020	berria	11 h		1	1 de 4	0,25	5	1
23	2020	berria	11 m		1	1 de 4	0,25	3	2
24	2020	berria	12 h		1	1 de 1	1	3	1
25	2020	berria	12 m		1	1 de 1	1	3	2
26	2020	berria	13 h		1	1 de 9	0,11	5	1
27	2020	berria	13 m		1	7 de 9	0,77	3	2
28	2020	berria	14 h		1	1 de 2	0,5	6	1

Eranskina 3

FITXA TEKNIKOA	
Egunkaria	Berria
Argitaratze data	
Titularra	Informatiboa
	Titulua:
Egilea/Sinadura	
Orria(k)	zk. Bakoitia
	Non dago kokatuta?
Azalean?	Azaleko albistea
Pieza mota	Albistea
Nolako pieza?	Nagusia
Gehigarriak?	Despiezea
	Zenbat?

ARGAZKIA	
Argazkia	Bai ▾
	Zenbat?
Argazki oina	
Tamaina (zenbat zutabe?)	
Protagonista agertzen da?	Bai ▾
	Zer?
Jarrera	Aktiboa ▾
	Zer?
Kokalekua	Kirol eremua ▾
Estereotipoak	Indartzen ditu ▾
	Zer?

TRATAERA	
<u>Nori/Zeri buruzko albistea?</u>	Nori buruzkoa?
	Gaia <input type="text" value="Kirolarekin lotuta ez dauden jarduerak"/>
Nork hitz egin?	
Hasieratik argi dago nori buruzkoa den?	<input type="text" value="Bai"/>
<u>Zehaztu egiten du gizon / emakumeena dela?</u>	<input type="text" value="Bai"/>
	Non? (<u>titulu</u> , azpi., sarrera...)
	Zehaztu
<u>Nola egiten zaie erreferentzia kirolariei?</u>	<input type="text" value="Izena"/>
	Zehaztu
<u>Protagonistaren rola</u>	<input type="text" value="Kirolaria"/>
Zerekin lotzen da protagonista?	<input type="text" value="Arrakasta"/>
Estereotipoak	<input type="text" value="Indartzen ditu"/>
	<input type="text" value="Kirolarienak"/>
	Zer?
Jarduna deskribatzeko hitzak/adjektiboak	
<u>Protagonisten adierazpenak agertzen dira?</u>	<input type="text" value="Adierazpen zuzenak"/>
<u>Senideei/kirolaz kanpoko jarduerari erreferentzia?</u>	<input type="text" value="Bai"/>
	Zehaztu

Eranskina 4

FITXA TEKNIKOA

Argitaratze data

DD MM AAAA

__ / __ / ____

Titularra

Elige

Zein da titulua?

Tu respuesta

Sinadura

- Emakumea*
- Gizona
- Sinadurarik gabe
- Mistoia

Orria(k)

- Bakoitia
- Bikoitia

Azalean?

Elige

Pieza mota

Elige

Nolako pieza?

Elige

Gehigarriak ditu?

Bai

Ez

Gehigarriak baditu, ze motakoak?

Despiezea

Infografia

Grafikoak

Taula

Beste bat

Gehigarriak baditu, zenbat?

Elige

ARGAZKIA

Argazkia

- Bai
 Ez

Argazkia badu, zenbat?

Elige ▼

Zein da argazki oina?

Tu respuesta _____

Tmaina: Argazkiak zenbat zutabe?

Elige ▼

Protagonista agertzen da?

- Bai
 Ez
 Ez dakigu ziur (Talde argazkia..)
 Albistea mistoa da, gizonak bakarrik argazkian
 Albistea mistoa da, emakumeak bakarrik argazkian
 Albistea mistoa da, gizonak eta emakumeak argazkian
 Analisia da. Idazlearen karetoa

Nolako jarrera du?

- Aktiboa
 Pasiboa

Argazkiaren kokalekua

- Kirol eremua
- Kirol eremutik kanpo

Estereotipoak

- Indartzen ditu
- Aurre egiten die
- Neutroa da

Zergatik? / Zer ikusten da?

Tu respuesta

TRATAERA

Nori/Zeri buruzko albistea?

Tu respuesta

Albistearen gaia

Elige

Nork hitz egiten du?

Tu respuesta

Hasieratik argi dago nori buruzkoa den?

Bai

Ez

Zehaztu egiten du emakumeena dela?

Bai

Ez

Mistoa da. Gizon/emakume zehazten ditu

Mistoa da. Gizonak zehazten ditu

Mistoa da. Emakumeak zehazten ditu

Mistoa da. Ez du ezer zehazten

Zehazten badu, non?

Elige

Mistoa bada, nori buruz ari da lehenengo?

- Emakumeak
- Gizonak

Mistoa bada, desberdintasunak daude emandako espazioan?

- Ez dago desberdintasunik. Espazioa 50/50 banatzen da
- Bai. Gizonen espazio gehiago
- Bai. Emakumeen espazio gehiago

Mistoa bada, desberdintasunak daude trataeran?

- Ez. Biak berdintzatzen dira
- Bai. Gizonak sakonago tratatzen dira
- Bai. Emakumeak sakonago tratatzen dira

Non ikusten dira desberdintasunak?

Tu respuesta

Nola egiten zaie erreferentzia kirolariei?

- Izena
- Izen-abizenak
- Abizena
- Ezizena
- Taldearen izena
- Entrenatzailearen neskak
- Entrenatzailearen mutilak
- Entrenatzailearen taldea
- Herriaren izena
- Beste bat

Protagonistaren rola

- Kirolaria
- Entrenatzailea
- Zuzendaritza taldeko kidea
- Talde teknikoko kidea
- Kirolari ohia
- Epailea
- Jarraitzailea
- Beste bat

Zerekin lotzen da protagonista?

Elige ▼

(Beste bat bada,) zehaztu zergatik:

Tu respuesta _____

Emakumeena bakarrik bada, zerbait aipatzeko?

Tu respuesta _____

Estereotipoak agertzen dira?

- Bai
- Ez

Estereotipoak agertzen badira:

- Indartzen ditu
- Aurre egiten die
- Neutroa

Noren estereotipoak?

- Kirolarienak
- Arraunarenak
- Beste bat

Zer?

Tu respuesta

Jarduna deskribatzeko erabiltzen diren hitzak / adjektiboak:

Tu respuesta

Protagonistaren adierazpenak agertzen dira?

- Adierazpen zuzenak
- Zeharka
- Ez dago adierazpenik

Senideei/kirolaz kanpoko jardueri erreferentzia egiten zaie?

- Bai
- Ez

Erreferentzia egiten bazaie, zehaztu:

Tu respuesta

[Atrás](#)

[Enviar](#)

[Borrar formulario](#)